


SALBADOR ZAPIRAIN

«Ataño»



OOOL-KUTSUA

ODOL-KUTSUA

AUSPOA LIBURUTEGIA

192

Auspoa Liburutegia
EDITORIAL AUSPOA

Plaza Santa María, 2 – Tolosa Gipuzkoa
Tfno. (943) 67 12 82

SALBADOR ZAPIRAIN
«ATAÑO»

ODOL-KUTSUA

AUSPOA LIBURUTEGIA
1986

© Auspoa Liburutegia (Tolosa – Gipuzkoa)
Fotokonposatzalle: Lente fotocomposición, s.a. – Pamplona
Inprimatzalle: Gráficas Lizarra, S. L., Estella (Navarra)
ISBN 84-7158-138-8
Depósito Legal: NA. 1292-1986

ARKIBIDEA

Iturri ondoan	9
Amarekin	20
Illetak	25
Aitortza.....	33
Espetxera	39
Igesa.....	46
Igesaren biaramona.....	52
Pake billa	58
Amaren kezkak.....	69
Alderrai.....	77
Erromes.....	84
Amaren kezkak.....	94
Arraia pasa ta gero sarea	101
Pralletegian	105
Berriro espetxean	109
Auzitegian	113
Auzi gaiztoa.....	117
Erriko esamesak	120
Loturak autsi	127
Berriketak.....	131
Igesa.....	134
Etxean.....	138

Irudipenak	146
Sukaldean	151
Eriotza	158
Bukaera	161

ITURRI ONDOAN

Garai batean Euskalerriko eraman-ekarria idiz ta mandoz egiten zuten. Ez baizeukaten gaurko aurrerapenik. Trenak ordurako baziran noski. Itxas-ontziak zer esanik ez. Baña aiek zekartena, nola erri txikietara zabaldu? Gurdiz, mandoz edo bizkarrez. Legorreko lana beñepein, neke aundikoa ta motela.

Abereak ere, jakiña, gizakumeak bezela nekatzen diranak izaki. Berak ondo zama-tuak ibilli luze aietan. Bideak, Jainkoak jakin nolakoak izango ziran. Aldapatsuak. Ez gañera gaur bezin berdiñak edo legunak. Anketatik ere askotan gorberatuta.

Iñoizka-iñoizka, atsedentzeko ta aldaketak egiteko, bear-bearrezkoa zitzaien ostaturen batzuk jasotzea, abere nekatuak utzi ta berriak eta atsedenduak artzeko, beren lan-nean jarraitzezkeroz, ibillian ere motelak dirala badakigu-ta.

Beren atseden-lekuak bear zituzten itzaiak ere, arratsa an igaro ta urrengo goizean berrituak bidean aurrera jarraitzeko.

Ortarako zituzten, oraindik *Benta* izenarekin ezagutzen ditugun etxe aundi ta zabal oiek. Ara-onera gabiltzala, naiz batera naiz bestera, bide-bazterretan billatuko ditugu: Zamalbide'ko Benta, Errenderi'n; aurreraxea-go, Astigarraga'koa; Irun'go bidean bestea; ta auen antzeko ugari Gipuzkoa ta Naparroa'k zear, beti joan aundiko bide zabal batzuen aldamenean.

Oietan edukitzen zituzten, zekarzkiten abereak nekatzen ziranean, auek utzi ta ordezekoak artzeko. Egun guzia lanerako bai-zeukaten. Arratsa bakarra atsedentzeko. Illuntzean, or geratuko ziran itzaiak ere ostatuz.

Etxe oietako batean gertatu zan, bada, orain kontatzera noan au.

Joxe Migel mandazaia ta Praixku itzaia lagunak ziran eta erri batekoak.

Praixku itzaia gizon eder bat omen zan. Gazte sasoikoa oraindik. Gizon gozoa, paketsua ta atsegiña. Biotza besterik etzeukan oietakoa. Denei on egiteko prest. Abesti ta umore ona gañezka zebilzkiena. Benetan gizartekoa. Bertso zaarrak kantatzen berdiñik gabea gañera. Erri batetik bestera bere bizi-modua eraman-ekarrian ateratzen zuena.

Joxe Migel mandazaiak, berriz, andik urruti gabe lanean ari ziran ikazkin batzuen langille bezela, bear zutena eramango zien lantegiraño, ta onuntzean ango ikatzak ekarri errira. Ostatuko apupillo bat bezela an bizi zan. Txiki-zauli bat izanik, eun kiloz beera-

goko kargarekin mandoa zamatzen irabaziko zionik etzala. Baña oso erretxin ta gizatxarra noski. Jendeak zionez, okasio-zalea. Etsaia geiagoa zala iruditzen bazitzaion, laban zorrotza aguro eskuan.

Bata bestek, bada, alde aundiko gizonak ziran.

Askotan elkartzen ziranak biak ostatu artan. Denbora luze egiten zitzaien ta, betiko lagunak bezela, musean jardun-aldi luzeak egiten zituzten. Baña bai eztabaida beldurgarriak ere. Alare, Praixku etzan ainbesteraño berotzen, erdi zapuztuta asarretu xamarrak geratzen baziran ere.

Ori ez da arritzekoa, galtzen ez dakienak milla aitzaki asmatzen baiditu: tranpa egin diola; kartak ikusi dizkiola; ez dituela ondo zabaldu; edo gaizki ebaki. Beti beñepein aitzakia. Ezin mazal-mazal jokoa galdu duela aitortu.

Galtzean, purrustada batean kartak botako zituen indarrean mai gañera, ta itxumustuan eta zalapartaka aldegingo zuen Joxe Migelek lotara, agurtu ere gabe.

– Etzegok irekin jokatzetik, tranpia bestetik ez dabilkik eta –Joxe Migelek.

– Ona i besteren tranpiak ez ikusteko. Etxerako ez dituk kontu txarrak oiek. Ik tranpiak egin ta edorri asarretu –erantzungo zion pake-pakean Praixkuk–. Litro erdi batengatik orrela jartzen danarekin bai ez da goela jokatzetik.

Eta lasai-lasai, buruari eragiñez, berak ordainduko zuen lagunak galdutako ardoa.

Ondoren, bertso zaarrak kantatzen asiko zan, nai zuenak entzun. Ostatuko geienak laxter inguratuko zitzaizkion, eztarri bikañeko gizona baizan.

Urrena elkartzen ziraneko, alare, dena aztua zegoen, ezer gertatu ez balitz bezela, itxuraz beñepein. Bietan iñori etzizaion komeni asarre bizitzea; ta, betiko oitura zutenez, musean asiko ziran.

Alare, mandazaiak lañeza galanki. Beti berearekin atera bearra. Bestela arekin etzegoen pakerik. Praixku eraman aundikoa zan ta utzi egiten zion.

Goizean, erteran izaten zituzten berriro ixtilluak eta eztabaidarik gaiztoenak. Mandazaia lenen ertetzean, etzegoen okasiorik. Zuzenean berak eramango zituen edan araztera mandoak bertako iturrira. Itzaia lasai-lasai begira egongo zitzaion, arek bukatu arte. Itzaia aurretik bazan, berriz, sumintzen zan mandazaia:

Idiak edandako putzutik etzutela mandoak edan nai izaten; aiek utzitako usai ta kutsuak nazkatzen zituela...

Askotan itzaiak, pakearengatik, utzi egiten zion:

– Gizatxarra aleena! Eramaitzik, motell, eramaitzik. Nik etzeukat ainbesterañoko presik. Bidean ere non edanaren paltik ez ditek izango.

Ezin, ordea, beti aren lañezari amorrik

eman, eta bein zearo ta benetan asarretu ziran, biak presaka zirala-ta.

Ez da, ez, beti egia, ez badu batek nai ez dagoela burrukik. Baten erasoari besteak eutsi egin bear baidio. Norbere babesik onena, berriz, ekitea baida.

Itzaiak norabait urruti xamarrera joan bearra izango zuen, asteleneroko oitura bezela, ta presaka zebillen. Aurretik ere bera zihoan ta ortzak erakutsi zizkion.

– Praixku: lenen mandoak edan dezaten, atzera itzik idi oiek –eraso zion mandazaiak, nai zuena egiten oitua zegoen ezkerro.

– I lasai abil. Ni, berriz, presaka. Idiak, gañera, edaten asiak dituk. Gaur nereak joan bearko ditek aurretik, erten ere ala egin dituk-eta.

– Atzera itzik! Badakik, gero, nere mandoak ez dutela edango bestela.

– Orrek kezkatzen al au? Emendik ikaztegitara bitarte ez ditek non edanaren paltik izango, nai badute.

Ta bere idiak aurretik jarraitu zuten.

– Praixku, atzera itzik idi oiek! Bestela, ikusiko dek Joxe Migel nor dan!

– Zer, bestela? Ia egunero aurrea uzten dit. Ik ez al dek, bein bederen, beste ainbeste egin bear? Ni aurretik erten naizelarik, gañera. Alper-alperrik eskatuko didak. Gaur, be-raizik ere, ez dit utziko. Erekoia amorratua aiz, motell. Ire ondoan bizi bear duenak, bost pazientzi artu bearko dizkik.

– Atzera itzik! Azkeneko aldiz esango dit!

Bestela, ire odolak gorrituko dik iturri ontako ura.

– Zer pentsatuta bizi aiz? Nik presik ez detanean eta pakearengatik uzten badit, ire beldurragatik dala uste al dek? Ez, motell, ez. Ire aurrean ez nauk izutzen, eta iturri ori nere odolak gorrituko duen beldurrik ere etzeukat, i beste etsairik ez badet beñepein. Zenbaitekin etzegok ona izaterik. Lenengo eskatu idanean ukatu izan banin, ez uan gaur olakorik gertatuko –erantzun zion, sumindua, Praixkuk.

Mandazaia gizatxarra zan; ta, besteak arrazoi zuela jakinta ere, len nai zuena egi ten oitua ta orduan aurreraegi sartua, berriz, atzeratu ezker o ollotzat artuko zuela-ta, itzaia izutzeagatik, beti berekin zebilkien giltzazko laban zorrotz bat erekia eskuan zeramala, aurrean jarri zitzaion oiuka:

– Atzera itzik idi oiek! Bestela, odolkia bezela zulatua utziko aut bertan!

– Bai. Desapio pranko ta ollo bat iltzeko ez dek balio. Kakatsua aleena! Nor aizela uste dek? Sar zak, mesedez, laban ori bere lekuan, eta ken adi nere aurretik. Bestela, ik ere laxter igerriko diok Praixku itzaia nor dan.

Mandazaiak etzuen amorrik eman nai; ta, bere onetatik aterea ta itxutua, –ezer gutxi aski izaten zuen ortara jartzeko–, erasotzera zijoakion.

Orduan itzaiak, eskuan zerman akulluarekin, zartako bat eman zion eta garrondoan

arrapatu. Gure mandazaia zerraldo erori zan iturriaren ondora.

Idiak edan zutenean, abian begiratu zion. Eskua biotz gañean jarri ere bai. Baña ura geldirik zegon. Belarri ta aotik odol-zerrenda zerion.

Izutua geratu zan gure Praixku gizarajoa, samiñaren samiñez. Igerri zion ura illa zegoela. Uste baño aundiagoko zartakoa eman ta leku txarrean jo zuela.

- Au ez dek geiago bere onera etorriko.

Bere onetatik aterea ta lagun bat il zuelako izu laborriak artuta, idiak artu ta igesi joan zan andik.

- Txatxua aleena! Azkenean, nai ez nuen egin arazi didak. Utzi ta utzi. Ezin, bada, beti burutu. Itxutu egin nauk ni ere, aurrean laban zorrotza ikusi detanean. Nik ere maite dit bizia. Uste nuen baño zartako biziagoa eman ziot. Lotsakizuna ere badek au nerezat. Akulluarekin jo ta il detala jakitean, askok ala esango ditek: Praixkuk, ura jotzeko, akullurik bear al zuen?

Euli bat iltzeko biotzik etzuenak, bere lagun bat il? Gizarajoa! Laxter, jendea oartzen zanean, izango ziran kontuak.

Ango eztabaida guztiak entzun zituen bentariak; eta, ixildu ziranean, uste zuen baikoitza bere bidean joana zala. Askotan izaten baizituzten alako zalapartak. Mandazaia zebillen lekuan, bada, beti bazan okasioa.

Alare, iturri ondo artan zerbait gertatzen zala-ta atarira ertenik, mandoak aske ara-

onera somatu zituen. Baña ez izutuak. Iturri ondoan, berriz, mandazaia eroria, zerraldo illa, belarri ta aotik odol-zerrendak zerizkio-
la, ta laban zorrotz ura oraindik ere bere es-
kuan lotua.

– Auxe bear genin orain! Ostatu ontan badek beti olakoren bat. Aurki etorriko zaiz-
kiguk galderaka. Mandoak il ote dute ori edo
itzaiaren lana ote da? Eztabaida gogorra edu-
ki ditek eta ez niñuke batere arrituko. Osti-
koka jarduteko, mando auek lasai zebiltzak.
Biak bakarrik itun atari ontan. Etzekit zer
pentsatu, biak nizkin aspaldiko lagunak-eta.

Etzuen ukuitu ere. Bere artan utzita, mo-
rroi txiki bat biali zuen errira epaillearenga-
na, zer gertatzen zan esateko, lenbailen etorri
zedilla eskatuz, gaizki ematen zuela illak itu-
rri ondoan.

Epaille ta sendagillea, biak elkarren lagu-
nak, bereala batera azaldu ziran. Ikusita-
koan, arrituta, ala zion epailleak:

– Au norbaitek il dik.

– Bai, zalantzik gabe. Bere mandoak edo
Praixku itzaiak. Besterik etzan iturri ondoan.
Bi oietakoren baten lana da au –erantzun
zion ostalariak.

Epailleak begiratu bat egin zion, iritzia
eman baño len; eta sendagilleak ori jakin nai
zuen:

– Ona non daukan zartakoa. Garrondo-
garrondoan gañera. Ez nolanaikoa. Belarrie-
tatik odola ateratzeraño. Beetik gora-antzean

arrapatua. Mandoak aske zebiltzala esan ez dek?

– Bai, aske. Baña lasai ta pakean.

– Au ez dek orduan mandoak egindako lana.

– Zergatik ez? Beetik gora joa dagoela esan ez dek? –sendagilleak.

– Ala zirudik –epailleak.

– Mandoak jotako itxura ohea zeukak. Ostikoa beetik gora baidijoa. Mando auetan badek noski lauso irudikor oietakoa. Arraixku txarrekoak izaten dituk.

– Barkatu, sendagille. Ni ez nauk iritzi ortakoa. Laban zorrotz ori zertarako ote zeukak eskuan, mandoekin lasai bazebillen?

– Len ere esan dizutet itzaia ta biak zirala –ostalariak.

– Bera emen izan bazan, gertatua esango ziguken –sendagilleak.

– Berak il badu ere bai? Iñork ez baditu ikusi, ezetz esanarekin aske geratuko uke. Susmo utsarekin ura etzegok zigortzerik, zuzen epaitzezkeroz beñepein –erantzun zion epailleak.

– Ni sendagillea naizen aldetik, nere iritzia eman dit. Baña ni ere zalantzan geratzen nauk. I epaillea aizen ezker, ortik aurrerakoa ire lanak dek.

– Txeetasun guziei begiratu ezker, jota illa dagoela zirudik. Laban zorrotz ori eskuan. Mandoak, berriz, lasai.

– Ortara, biok batera gatozik. Mandoak ez badute, nork jo bear zin?

– Itzaiak akulluarekin –erantzun zien ostalariak.

– Arek ez dik. mandazai au jotzeko, akullu bearrik –sendagilleak.

– Bai. Gizon bikaña da Praixku, ta gutxi bezelako paketsu ta atsegiña. Bestea, ordea, gizatxar utsa. Musean ere, galtzen bazuen, goxoa jartzen zan. Purrustadan kartak botata aldegiten zuen. Iturri ondo ontan ere maiz aritzen ziran eztabaidaka. Gogorrena noski gaur goizean. Litekena, arian-arian ura ere pazientzitik ateratzea, batez ere, laban zorrotz ori eskuan, desapio egin badio. Bere mandoak beti lenen edatea nai izaten zuen. Alakoren batean uste gabeko zartakoren bat eman ta ez badu il... Baña itzaia berez gizon atsegiña da. Urteak dira ostatu ontara etortzen dala.

– Dana dala, au norbaitek il duen aztarranak bazeudek. Laban orrek zerbait esan nai dik. Besteak erasoari gogor egin badio, alde aringarriak dituk oiek. Nik ez dit itzaia danik esango. Epaillea naizen ezkerko, erdikoa nauk. Ez dizkit alde zurretik kanpaiak joko. Baña au etzegok mandoak illa; akullu edo makillen batekin jo ta garbitua baizik, sendagille –zion epailleak.

– Erdikoa aizela esan ez dek?

– Bai. Epailleak, ziur jakin arte, ala bear dik.

– Nola diok, bada, akulluarekin jota illa dala? Orrela, garbi-garbi aitortzen dek itzaia-
ren lana dala.

– Nik esan nai detana ez dek besterik: ez dutela mandoak il. Adiskideren bat al uan ori?

– Mundu ontako denak dituk nere adiskideak. Baña nik ez dit berdin pentsatzen. Ikusten al dek zauri au, azpitik gora nola dagoen joa? Akulluarekin nola liteke ori, itzaia askoz luzeago bada? Mandoen ostikoak, berriez, bai: beetik gora dijoana. Itxurari begirata, au dek nere iritzia. Ez dit esaten utseziña naizenik. Agian ik izan ezakek arrazoi. Nere egitekoa, denak sendatu ta salbatzekoa dek.

– Iretzat ttanttoa –erantzun zion epailleak.

Orrela ariko ziran umeak bezela, baña beti elkarrekin. Bakoitza berean geratu zan.

Ostalariak etzuen ezer esan. Arentzat biak ziran lagunak. Bat illa zegoen ezkerro, ziur jakin gabe etzuen salatu nai bestea. Itzaia gizonik zuzenenetakoa zan, eta epaillearen esku utzi zuen dena. Alare, sendagillearen iritziarekin etzeturren bat.

Juezaren baimenarekin, gurasoak jaso zuten illa. Orduan ez baizan autosirik egiten, gaurko egunean bezela.

Mandoen billa etorri zanak eramane zuen gorputza etxera. Onek ere, etzutela mandoak il bere anaia; arekin iturri ondoan azken egon zanak, bai:

– Sendagilleak asko jakingo ditek gauz auetan. Baña au ez dik asmatu. Itzaiak il

duenik ezin nezakek esan. Nere anaia gizatxarra izanik, etsai asko zeuzkaken.

Ostatuan ere zalantzan geratu ziran. Baña iñork etzekien garbi atari artan gertatuaren berri.

AMAREKIN

Sortu ezkeroztik, egunik tristeena ura izan zuen Praixkuk. Joan-etorri guzian etzizaion ori burutik kendu:

– Ai, motell! Zer egin dekan bai al dakik? Ere lagun bat il! –galdetzen zion maiz bere buruari–. Onuzkero, erri guziko beatzak i salatu aute. Ez dek, ordea, naita egin. Bestela, berak ilko iñun.

Eta, naigabez, malko garratzak zerizkion.

Bazkaldu zuen bentan, zerbait bazekiten, bere erri aldetik etorritako batek esanta: Bee-ko Bentan nola mandazai bat il zuten. Etzekitela nor zan izenez, ziur esateko; baña itzai batek akulluarekin jota illa zala bai.

– Ik ezer entzun al dek? –galdetu zioten Praixkuri.

– Gaur il al ditek?

– Bai, bai, Gaur, egunsentian.

– Ni, seiak ezker, bidean nabillek. Biar-ko ikasten badet, esango dizutet.

Bere bazkari-legea egin ta bereala atera zan andik.

– Praixkuk badik zerbait –zioten–. Ori ez dek atzokoa. Beti txistu ta kantu ibiltzen dana, gaur oso goibel zegok, doi-doi itzegin ere ziguk-eta.

– Itzai batek illa ta Beeko Bentan? Ea bere lana dan.

Beste iñon geratu gabe, amaren etxera etorri zan txuxenean. Idiak sartzeko an bazeukan ukullu eder bat.

Ordurako, amak ere entzuna zuen ori: Joxe Migel mandazaia zala illa; ta, uste zuteenez, itzai batek akulluarekin jota, Beeko Bentan. Nor izan zitekean, bere semea ezik? Berri gaixto ori egiztatuko ote zan beldurrak zegoen ama.

Gurdia atarian utzi ta idiak ukulluan sartzen nabaitu zuenean:

– Ez diagu gauz onik –zion amak.

Len beti Beeko Bentan uzten oitua, txistuka ta kantari etortzen zan etxera. Orduan ixilik eta goibel.

Sukaldera sartu zanean, agur egin zion:

– Gabon, ama!

– Baita iri ere, Praixku –amak, arpegira begiratur–. Goibel ator. Gaixo al ago?

– Zerbait entzun al dezu?

– Bai. Joxe Migel mandazaia itzairen batek akulluarekin jota illa dala. Ez dek, bada, ori ire lana izango?

– Bai, zoritzarrez. Ez nezake ukatu.

- Ainbesteraño itxutu al aiz? Ura jotze-ko, ik ez uan, bada, akullu bearrik.

- Ez. Ori egia diozu. Baña laban batekin erasotzen badizute, zer egingo zenduke?

- Al detanarekin aurpegi eman nik ere.

- Orixe berbera gertatu zait, ama. Odolkia bezela txulatuko nauela-ta, eraso dit. Ni, berriz, ez naiz arengatik igesi joango. Akullua neukan eskuan, eta arekin eman diot. Leku txarrean jo detala, gogorregi jo detala, noski. Baña nik, ama, ez nuen iñor iltzeko intentzio txarrik.

- Aingeru guardakoak zaindu gaitzala! Ain ondo bizi giñanak, leku onean geratuko gaituk. Bakarrik, zer egin bear dit nik orain? Eta ik nora joan bear dek?

- Illetak ospatu arte, etxean gorde. Gero gerokoak.

- Eta ez dek igesi egiterik pentsatzen?

- Nora? Nere denbora guzian igesi ibiltzeko? Munduan eunetik eunek egingo luteke nik gaur egin detan ori. Gizon izatera irixten ez diran petral oiekin zabilta gero. Beti desapioa, labana eskuan. Ni ere, azkenean, pazientzitik atera egin naiz, eta nai ez nuena egin arazi dit.

Elkarrekin apaldu zuten.

- Ez al dek lotara joan bear? -galdetuzion amak apal ondoan.

- Bai; baña ez etxe barrunbe ontara. Goi-ko borda txikira joango naiz, baliteke arratsean nere billa etortzea-ta.

Etxea baño goraxeago, bere biotza ezin

lasaiturik eta il zuen lagunetzaz pentsatzen ari zala, aren bi anai gazteagoak, baña bera bezin gizatxarrak, aiek etorri ziran, ama bakarrik zegoen etxera. Oraindik atea itxi gabea zeukan, eta agurrik ere egin gabe sartu zitzaizkion barrura.

– Non da zure semea? –galdetu zioten.

– Bere adiña badik, nai duen lekuan egoteko. Ni ez nabillek aren atzetik.

– Etxean dago edo ez?

– Ez. Etzegok etxean. Baña etorria dek. Idiak ukulluan sartu ta aterea dek apal ondoan norabait.

– Ez degu sinisten. Etxea goitik beeraño aztertu bear degu.

– Noren baimenarekin?

– Gizon-iltzalle bat arrapatzeko, ez degu iñoren baimenaren bearrik.

– Besteren etxean sartu ta aztertzeko bai, ordea.

– Zure semeak gure anaia il du; ta, berea eman arte, ez diogu utziko.

– Etzekit ori. Baña oartzen bada, bai zue-takoren bat gaizki ibilliko dala. Gero, nere semeak izango dizkik erruak.

– Datorrela. Ez degu besterik nai. Era-kutsiko diogu norekin dabillen.

– Zoazte kanpora! Bestela, epaillearen aurrean salatuko zaitzuet.

– Epailleak ere ez du ura arrapatzea besterik nai.

Bultza ta bazterrera bota zuten alarguna, ta laxterka sartu ziran etxe barrura. Baña Jo-

xepa bixi-bixi sartu zan sukaldera, ez dakit zeren billa.

Praixkuk garbi-garbi ikusi zuen gertatzen zana, atarian baizegoen oraindik. Ama naihabetuak, sukaldera joan zanean, andik ikusi zuen bere semea, makil moztaka bat eskuan artuta atetik barrura sartzen.

– Ea bertan garbitzen ditun! –izutu zan ama.

Etxeko zokoak ikusten ari zirala, uste gabean atzetik arrapatu zituen. Lepo ondoetatik artuta, biak bota zituen ziraldoka, ta bere makil moztaka arekin aurrean jarri zitzaien.

– Aldegin zazute tximistak egiñez emendik! Bestela, bertan garbituko zaituztet!

– Ik il dek gure anaia!

– Zuek ere laxter aren ondora joango zerate, ez badezute nere agindua egiten. Anaia il dizuetela? Zer erru zeukak nere amak? Biak bertan iltzeko ere, naiko arrazoia banukela uste dit, arratsean indarrean alargun baten etxera sartu zerate lapurretara-ta.

– Ire billa etorri gaituk gu.

– Bi olo bustik ez ditek Praixku arrapatuko, ta ni gabe joan bearko dezute. Aguro, gañera. Bestela, biak ementxe garbituko zaituztet. Au ez dek ortara geldituko. Auzitara deituko zaituztet.

Eta aurrean biali zituen.

– Oraindik gure eskuetan utziko dek ere bizia.

– Gaur baño aukera oberik...

Ama daldaraka urbildu zan semearengana.

– Eskerrik asko, seme. Biak bertan ilko itun beldurak aidean nengoken.

– Arrazoi gutxiagorekin norbaitek onuzkero bakarren bat ilko zuen.

– Etzigutegak bizitzen utziko –zion amak.

– Lasaitu zaite. Gaur onuzkero ez dira etorriko, ta etxean lo egingo det. Zoritxarrez, pauso bat oker eman degu. Larrutik pagatu bearrean gera. Baña zuri pakean utziko dizute. Nik salatuko ditut epaillearen aurrean.

Arrats artan, beñepein, etzan beste iñor etorri.

Goizean, ondo jantzita atera zan etxetik, amari esanez:

– Baliteke, ama, ni bolara batean ez etortzea. Ez det igesik egingo. Onuzkero, auzitegirako neretzat deia ekarria izango dute. Iñaxio lengusua bialiko det idi ta gurdiaren billa. Nere lekuan orrek jarrai dezala.

ILLETAK

Inguruko lau gazte aukeratu zituzten illetarako abixuak zabaltzeko. Orduan ala zan. Ni ere bein baño geiagotan ibillia naiz. Txirrita il zanean ere, bat ni nintzan. Ez dakit oraindik badiraun. Era errexagoak badituzte gaur ortarako.

Lau aldeetara zabaltzen ziran ethez etxe, baserririk baserri, olako il zala ta illetak noiz izango ziran adieraziz.

– Eup!

Etxeko atea joko zuten; eta gure baserrietan, lenengo aterako zaizuna, zaunka ta ixkanbilla, txakurra izango dezu. Bereala azalduko da beste norbait. Beren arratsalde onak opa ondoren:

– Zertan zabiltza? Illetarako abisuketan, noski.

– Bai. Alaxe nabil.

– Nor da il zaigun ori?

– Joxe Migel mandazaia, Bordatxo'koa.

– Nola? Eranegun elkarrekin egon giñan, ta arek bazeukan osasuna saltzeko ere.

– Ezbearrez. Ostatuko iturri ondoan illa billatu dute, norbaitek garrondoan zerbaitekin jota.

Zenekizkien txeetasunak kontatu gabe, joaten etzizuten utziko.

– Gizarajoa! Ume bizia zan, bada, uraxe. Gazterik utzi du mundua.

– Bai. Zuena ematen bazekien. Biar zortzietan jasoko dute etxetik, ara eramana baidute; ta bederatzietan illetak, bere erriko elizan.

– Ondo dago. Norbait azalduko dala uste det.

Etxerik geienetan sagardoa eskeintzen zuten. Baña etzegoen artzerik. Bestela, etxera orduko mozkortuko zan bat.

Illunabarrean, il zanaren etxera apari-

merienda bat egitera eta kito. Orrekin dena ordaindua zegoen.

Bere langille lagunak, ikasi zutenean, naitzabatuak geratu ziran. Gizatxarra bazan ere, langille aparta.

Orregatik, goizean, egunsentirako, illaren etxean ziran ikazkiñak, mandazaiaren lagunak, goiz mugitzen oituak. Bezperan eskeñi zituzten beren buruak illa jasotzeko. Beste aukeratutakorik ez bazuten beñepein, uzteko aiei lan errukitsu ori egiten. Urte guzian etzutela beren buruan bestetan pentsatzen-ta.

Etxekoen baimenarekin, auek aukeratu zituzten eramalle.

Berak ziran lenengo iritxi ziranak ere; ta zerbait artu nai bazuten eskeñi zieten, ola-koetan oitura danez.

Ezez, ezetz; denak gosalduta etorriak zirala.

Illetak bukatu ondoren etortzeko, bada, bazkaltzera bederenik. Lana egiten zutenak beren saria merezi zutela.

Ori ere etzieten artu: eguartera galtzen zuten ezkerok, arratsaldean lana egin nai zutela.

Goizean goiz asi ziran elizako kanpantorrean otsak *dan... dan... dan...*, banakabanaka, oraindik asko lotan zeudela. Orduan, apaiza ta sakristaua, gurutze ta guzi, illaren etxeraño joaten baiziran, ta goiz zeukaten elizatik atera bearra. Bere oiartzuna irixten zan lekuetan, bazekiten erri artan illetak zirala.

Apaiza elizatik atera zan orduko, bada,

asi ziran kanpai-otsak. Apaizak, txaramel txuriz jantzia, aurretik meza-laguntzalleren bat bere gurutzearekin, esandako ordurako igoko zan baserrira. An bere dolu-otoitza errezatuta, jasotzeko orduaren zai geratuko zan.

Kanpai-otsa irixten zan baserrietan ez bazuten abisurik artu, elkarri galdezka asiko ziran:

– Noren illetak ote ditugu?

– Oneraño abisurik etorri ez danean, ez da alde-aldekoa izango.

Kanpai-ots ori tristea da benetan gure be-larrietarako. Asko pentsa arazten diguna: norbait il dala ta agian urrengo kanpaiak guregatik joko dituztela. Batzuk ala pentsatuko dute.

Pekatuan dagoenari bere larria sartuko dio. Gaixoari, zer esanik ez. Osasun ona daukanak ere, aterako du ortik bere ikasbi-dea. Il bear duenik pentsatu gabe bizi dan aberatsari ere, sartuko dio bere zarratada biotz illunean.

Ezin ote lezateke dena ixilik egin? Zertarako dira kanpai-ots triste oiek? Ots batek zenbat abots dauzkan, entzuten duenak bere erara ulertzen baitu.

Eten gabeen ari da kanpai-ots izukor ori. Asi ziran, andik-emendik, banaka-banaka, beren aide ta inguruko jendeak etxera biltzen. Beste itzik etzan entzuten:

– Nork il ote du gizarajo ori?

Etxekoak, berriz, bi gazte biurri aiek,

etzuten ezer esan nai, epailleak erabakitzen zuen arte.

Zetorren jendeak zerbait jakin nai, ta an zekienik etzegoen. Il zala, ta ezbearrez gañera, mandoak edo beste norbaitek jota. Zer gertatu ote zan goiz artan ostatuko iturrian?

– Ume bizia uan, bada, gizarajoa.

– Bai. Etzin lanari iges egiten ikasi. Baze-kiken zuena ematen.

Ontan iritxi zan jasotzeko ordua. Berriro apaizak il-otoitzak errezatu zituen, ta gure lau ikazkiñak jaso zuten batera il-kaja. Gurutzea jarri zan aurretik. Ondoren, gorputza. Gero, apaiza. Onen atzetik, gizonezkoak. Gero, emakumeak. Eta jarri ziran martxan.

Baserria kaxko batean zegoen, erritik bixta-bixtan. Gorputza etxetik ertetzen eta eguzkia ere mendi gañetik, il-kaja erdiz-erdi artzen zuela. Au beltza izan arren, eguzkiak diz-diz egiten zuen.

Mandazai gizarajoa, bere adiñik onenean, il-kaja beltz artan aldapak beera zekarten, jaio ta bizi izan zan etxea betiko agurtuz, erri ondoan ta gain batean zegoen ta jendeak beldur gaitza dion kanposantura eramateko. An etzuten ixkanbil ta asarrerik izango. An beti pakean biziko ziran.

Piztuera arteko atsedena an artuko zuen. Etzan geiago iñorekin eztabaidaka ariko. Gazterik eta okasio batean bukatu zuen mundua. Jainkoak eman dezaiola betiko atsedena.

Bere andregai gaixoa negar ta negar bere

ondoan zetorren, beste lagun batzuen erdian. Beste lau gaztetxo, bere illobak noski, kajarren inguruan, andik zintzilik zeuden zintei eusten.

Errira urbildu-alean, gurdibide zakar eta txigor kaxkar aietatik beera bazetorren jende berria saillera.

Ozenki entzuten zan, *dan... dan... dan...*, biotzak illuntzen dituen kanpai-ots triste ori, eten gabean.

Apaiza, berriz, *miserere*'ka otoitzean zetorren. Jenderik geiena ere itzal aundiz, buru-makur ta ixilik. Baña baziran tartean otoitzerako gogo aundi gabeak. Moltxo bat berriketan zijoan; legea betetzera joandako jendea.

– Mandoak garrondoan jota iltzea ere... –zion batek.

– Mandoak, zakartu ezkerro, egoskorak dituk. Elementu gaixtoak, motell. Soldaru ibilli nintzanean, ederki ikasi nin oien berri –zion besteak.

– Baña sabelean jotzea bezela ere, garrondoan, ordea? Nora begira zegoken orduan mandazaia, atzetik arrapatzeko? Ez dit sinisten nik ori. Denborak noizbait azalduko digun ezkutua bazegok or. Laban zorrotz bat ere eskuan omen zeukaken. Zertarako zin ura?

– Sendagilleak ori esan badu, zerbait izango dek. Oiek ortarako ikasten ditek.

– Ez dituk, ordea, uts-eziñak. Dana dala, oraindik argia garbi azalduko dan itxarope-

nik ez dit galdu. Praixku itzaia ostatutik orduantxe erten omen uan. Arek ikusi bear zizkiken mandoak aske ta mandazaia illa.

– Iñaxio, illaren anaiak, itzaiak akulluarekin jo ta illa dala omen zio; lenago ere eztabaidak maiz izaten zituztela iturri ondo artan.

– Bai; susmo txarra besterik ez. Iñork ikusi al zizkin? Ez uan Iñaxio bera ere mandazaiarekin ondo konpontzen zana. Eztabaida bero askoak izaten zizkitek en iñoiz. Orren berri ere laxter zabalduko dek.

– Bai, bai. Ik esan dekan ori, nik ere entzun dit: Iñaxio ta bere anai mandazaia eztabaida gogorrean somatu izan dituztela. Ta Praixkuk pakea egin.

– Berri ori aurki zabalduko dek errian, eta denak itzaia dala iltzallea esango ditek. Ziur ez dakitela ta ajola aundi gabe esaten diran kontuak, gizon jator baten izen garbia zikinduz. Gizon gozo ta pake-zalea dek ori. Alaia, iñoiz purrustada txarrik ez duena. Ziur jakin gabe, ezin litekek modu ortara itzegin.

– Arek, mandazaia jotzeko, etzin akullu bearrik.

Bitartean, kanpai-otsak, banaka, *dan... dan... dan...*, eliz-dorretik mendi aldera burrundaran zijoazen.

Il-kaja jetxi-alean, jendea ugaritzen, elizara orduko mordoska polita osatuz. Asko, zer ikusi ta zer entzun etorriak, noski.

Noizbait ekarri zuten gorputza. Eliz-

atarian mai txiki bat zegoen jarria, zapi beltz batekin estalita. An utzi zuten il-kaja.

Apaizak azkeneko il-otoitzak egin ondoren, berriro gorputza jaso ta goiko kanposantura eraman zuten; ta an utzi, gero lur onetsian eortzitzeko.

Bitartean, illetak asi ziran. Bukatu zira-nean, ez dakit oraindik badiraun eliz-atarian dolu-miñak artzeko oitura triste arek.

Illaren aideak jartzen ziran banakabanaka lerroan; eta, elizatik jendea ertentzean, denak, esku emanaz eta «naigabeen laguntzen dizut» esanez, joaten ziran beren bidean, geienak ajola aundi gabe. Legea bete. Oitura samingarriagorik ez det ikusi nere begien aurrean: asko negar-zotinka, ta alare, dolu-miñak artzeko, denei esku emanaz an egon bear.

Mandazaiaren aideak ere jarri ziran, bada, ateetan. Baña an iñork etzuen negarrik egin. Illa etzan etxean iñorekin ondo konpontzen zana. Bere anairen bati ere entzun zitzaion, il zuenak bere burua babesteko ilko zuela.

AITORTZA

Ama negarrez utzita, bera ere bai noski, zuzenean elizara joan zan... Zurbil zeukan arpegia. Begiak gorri. Lo gutxi egindako itxurakoa.

Etzuen illaren etxera joan nai izan. Tristeegia iruditu zitzaion. Baña eliz-dorreko kanpaiak entzun orduko, negarrari eman zion, eta bazter batetik begira egon zan, jetxi zuten arte.

Gizon gazte ura aldapak beera besteren bizkarrean ikusi zuenean, itzai gizarajoak etzekien zer erabaki artu. Il-kajaren atzetik zetozen bere guraso, anai ta aideak baño nairagabetuagoa zegoen.

– Ai, Joxe Migel! –zion berekiko–. Agon lekuan agola, barka zaidak. Oraindik bizi bear uana, neregatik kanposantura aramate. Uste gabeko zartako ura eman nin, bada, nik! Eztabaidaka aritzen bagiñan ere, beti lagunak izan giñun. Laban zorrotz madarikatu arek dizkik erru guziak. Bestela, nik ez iñudan egundo joko. I joan aiz; baña nere zorritxarra asi besterik ez dek egin.

Baña Joxe Migelek etzion barkatu. Azkenean berak eraman zuen Praixku illobira.

Kezkaz betea zegoen eta txuxenean elizara joan zan pakearen billa. Aitortu nai zuen bere pekatua, aundia edo txikia, illetara eto-

rritako ezagutzen etzituen apaizen batzuk izango zirala-ta.

Illaren gurasoak eta anai-arrebak, ziur ez bazekiten ere, Praixkuren lana izango zala noski bazituzten beren zalantzak. Erne zebiltzan, ura non ikusiko. Bai iritxi ere. Laxter oartu ziran elizan zegoela. Aitor-lekuan, gañera. Etzan itza ta putza apaizarekin luzaroan aritu izketan; eta, ateratzerakoan, alako purrustada batekin, ia irauli zuela aitorlekua, bere apaiz ta guzi.

– Demoniozko apaiz urde ori! –zion berekiko–. Ori ez dek, iñondik ere, parte onekoa. «Agur, Maria» esan diodaneko:

– Aitortzera al ator?

– Onera zertara etorriko nintzan bestela?

– Zer pekatu egin dituk?

– Orain dakarten Joxe Migel ori nik il nuen atzo.

– Gizona il da aitortzera ator?

– Nik ez det zuek erakutsia besterik egingen.

– Alper-alperrik ator, bada. Odolkutsurik ez dek kentzen ez emen ta ez bestean.

Ori entzun zuenean, izu laborriak artu zuen Praixku.

– Pake-billa etorrita, ori al da erantzuna?

Daldaraka geratu zan. Geroztik, il arte, etzuen onik izan.

Txuxenean, atzeko aulkietara joan ta otoitzari eman zion.

– Oraindik olakorik! –zioten ikusi zute-

nak-. Gizon paketsu-atsegin orrek zer ote zuen, aitor-leku ura bere apaiz ta guzi ala astintzeko?

Oraindik geiago arritu ziran, andik ateratako apaiza etzala errikoa. Ezaguna ere ez, eta bikario jaunaren aitorlekuan zegoen. Illetara joandakoren bat agian, Praixkuk eskatuta aitorlekura sartu zana. Alako zaldi-otsaren antza zeukaten aren urratsak. Apaiz estrañoa, benetan.

Orduantxe asi zan bere denbora guziko Praixkuren inperua. Geroztik amaika atzerara-aukera egin zituen barkamenaren eske. Askotan arrapatuko zuen apaiz ura bera aitorlekuan. Baña nai zuenik etzuen iritxiko.

Illetak bukatu ondoren, Praixku ostatura joan zan, bere lanbidea artuko zuen lengusuaekin itzegitera.

Joxe Migelen gurasoak eta senideak, berri, onen billa zebiltzan. Galdera batzuk egin nai zizkioten. Baña etzuten iñon arkitzen aren aztarrenik. Norabait ezkutatu zan andik. Len aren susmoa egiten bazuten, orain ziurtasuna ere bazeukaten ura zala. Zergatik gorde bear zuen bestela?

- Ez, jaunak, ez -esan zien norbaitek-. Zuzenean ostatura joana dek.

Esan bezela, an arkitu zuten. Bera aurre-ratu zitzaien:

- Benetan laguntzen dizutet naigabeen. Ez beste iñoren atzetik ibilli. Lan gaixto ori nerea da eta barkatu. Merezi detan zigor gu-

zia betor nere gañera. Laban zorrotz madarikatu ura atera zidan, bada, arek.

– Orduan ik jo uan akulluarekin?

– Bai, zoritxarrez. Eztabaidaka aritzen bagiñan ere, nik ez nion egundo gorroto txarrik artu. Bere purrustadan dena utzita joaten zanean, grazi egiten zidan neri. Berriz elkarrengana biltzeko pozean egoten nintzan ni. Garbi esango dizutet, nai badezute sinistu: nik maite nuen Joxe Migel.

– Eta nola ainbesteraño asarretu ziñaten?

Gertatu zana dena kontatu zienean, ala erantzun zioten:

– Eta jo gabe ezin al zezaken menderatu?

– Bai. Orain aixa esaten dezute ori. Txikia bazan ere, ume bizia; ta itxutua ni iltzera zetorren ura. Orduan akulluarekin jo nuen. Leku txarrean arrapatu nuela...

– Ik nai dekan bezela kontatu ta guk sinistu egin bear al diagu? –esan zion, etxetik aurrean aizkatu zituen bi gazte aietako batek.

– Nai badezute, ez sinistu. Baña nik egia ziot. Ez gero, bart bezela, nere ama bultza ta botarik nere etxera sartu. Orduan, zuetako bat etxe barruan garbitu izan banu, ni izango niñun gaiztoa. Amarretatik batek etzizuten artara joaten utziko. Arrats illunean indarrean alargun baten etxera sartzea, nik egin detan baño lan gaixtoagoa dek.

– Nere seme auek bart arratsean?

– Bai. Zure seme bi gazteen auek etxean arrapatu nituen. Ama bultza ta botarik sartu

ziran. Uste gabean arrapatu nituen. Neri gogor egin bazidaten, ta jo ta bat ondatu bannen, ni izango nintzan gaixtoa. Nik ere bizia maite det; eta, Jaungoikoak deitu arte, gordetzera beartua nago.

– Guk anaia degu illa; ta, andik edo emendik i galdu arte, ez diagu pakean utziko –erantzun zioten gazteak.

– Nai dezutena egin. Baña zerok atera kontuak. Nik ainbeste arrixku izango dezute. Nere bizia arrixkuan ikusten badet, al detanarekin eman egingo ziot. Baña utzi nere amari. Gaixoak ez dik ortan errurik. Bestela ere, naiko naigabea bazebiltzik berekin. Utzi zaiozute pakean.

– Epailleari aurrea artuta zertan sartzen zerate zuek? –erritan eman zien aitak.

– Bazekit aurki auzitegira deituko didatela, ta bolara bateko espetxea neretzat dagoe-la. Baña nere amari pakean uzteko moduak egingo dizkit.

– Eta bi mando aiekin zer egin bear dek? Joxe Migelek zorretan zeuzkaken.

– Bai. Aren lekuan i asiko aiz? –galdetu zion Iñaxio illaren anaiari...

– Asmo ortan nabillek.

– Gaurtik aurrera, bada, ireak dituk. Ez ago zorretan. Ea, orrela, egindako zerbait ordaintzen dizuetedan. Jainkoak jakingo dik orain nere etorkizunaren berri. Illa or zegok; iltzallea emen. Etzekit nola epaituko nauten.

– Eskerrik asko, Praixku.

Denei esku emanta ezkutatu zan andik.

Ostalariak entzun zuen aien elkar-izketa; eta, joan ziranean, galdetu zion:

– Beraz, ire lana dek ori?

– Bai, zoritxarrez. Gizon ez diran batzuentatik, orrela ibilli bearra zeukagu besteak. Bizia salbatzezkeroz, ez neukaken beste biderik.

– Zer esan ditek?

– Ezer ez. Bart beste bat il ez nuenean, ez nagok asarre.

– Zergatik?

Gertatua kontatu zionean, ala erantzun zion:

– Ire lekuan egon banintz, eta al izatera, biak garbituko nizkin.

– Bi gazte oiek ala esan zidatek: anaia il dietela; eta, ni galdu bitarte, ez didatela pakean utziko. Or konpon. Ez dit, bada, arku-me batek bezela lepoa jarriko. Olakoxeak dituk oiek. Arek zebilzkin mandoak, nereak itun. Aren lekuan asiko dan anaiari eman zizkiot.

– Etzegok gaizki. Gutxik egingo luteken lana. Ez al dek iñora iges egiterik pentsaten?

– Zertarako? Noiz arrapatuko nauten beti beldurrak ibiltzeko?

ESPETXERA

Ostatutik atera ta ordu erdi baño len, udal-ertzaiñak etorri ziran Praixku itzaia an zegoen galdezka.

– Ez –esan zien ostalariak–. Aristian er-ten dek emendik.

– Eta nora dijoan esan al dik?

– Ez. Bolara batean ez dala azalduko esanta joan dek. Nik etzekit besterik.

– Etxera joana izango dek orduan.

– Litekena dek.

– Ara joan bearko. Epaillearen aldetik gatozik, gaur bederatziak aldean auzitegian azaltzeko aginduarekin. Ea igesi egiten di-gun.

– Ez dit uste.

– Eta i zer iritzikoa aiz?

– Nik biak lagunak nizkin. Batez ere, Praixku. Nik ostatuan bear nituen gauzik geienak, onek ekartzen zizkidaken. Epailleak ez banau deitzen, ez dit itz erdi bat ere atera-ko. Nere iritzia bego ezkutuan. Arek il badu ere, bere burua salbatzeko. Ortan etzeukat zalantzik.

– Amaren etxean ez badegu arkitzen, bueltan etorriko gaituk. Ordurako balitekek emen izatea.

Ostalariak bazekin, Praxkuk berak esanta, aren lana zala. Baña etzekien azken orduan

zer erabaki artuko zuen. Etzijoan ura bere lagunik maiteenetako bat salatzeraz.

Aiek joan ta bereala azaldu zan itzaia. Ostalariak esan zion nola bi udal-ertzain aren billa zebiltzan, auzitegira eramateko asmoan. An ez arkitzean, amaren etxera joanak zirala.

– Ondo zegok –erantzun zion–. Zuzenean joango nauk. Ez dit udal-ertzaiñen bearrik. Zuzentasunari begiratzen badiote, ez dit uste luzaroan espetxean edukiko nautenik.

– Gizatxar petral bat dalako, orrela ibilli bearra ere... Au dek gizon paketsu baten alderdia! Bazter guzietan okasioa zuen umea ori uan. Etziok erriak negar askorik egin. Bi anai gazteenak berdiñak zetozek.

– Nik egin bearko dit, bada. Arek ekarri zizkidak aldrebeskeri auek guziak. Amak geiena kezkatzen niok.

– Bakarrik geratuko dala, alegia.

– Nere gora-beeren berri jakin artean, arreba laxter dek ezkontzekoa ta etxera ekarriko al dik. Samingarria neretzat: eztaietara joaterik ez, eta arrebaren aldetik nik egin bear nin aita jaun egiterik ez dit izango, noski. Agur, ostalari. Agian ez nauk bolara batean ikusiko.

– Ez adilla orren ezkorra izan.

Txuxenean auzitegira joan zan. Etzuen oso begizkoa epaillea. Etzan errikoa ere. Amaika lan egin zion. Baña etzion xentimorik kobratu.

Epaillea bere idazlariarekin zegoen, bere zai noski.

– Egun on –esan zion Praixkuk, sartu orduko.

– Baita iri ere. Bakarrik al ator?

– Aiek ara-onera dabiltzan bitartean, ostalariak esan dit eta emen nauzu. Ez naiz iñoren igesi ibilliko.

– Badakik noski zergatik deitzen auten?

– Bai, jauna, bai.

– Iturri ondoan zer gertatu zan jakingo dek, noski.

– Ezetz banio, gezurra esango nuke.

– I ta Joxe Migel besterik ez omen ziñaten an?

– Ostatuan geiago baziran. Baña eztabaida artan, biok bakarrik.

– Orduan ire lana dek ori?

– Egia diozu. Ukatuko banu, salbo nintzake. Ez baigenduen Jainkoa beste leku korik. Ni ez naiz, ordea, olakoa. Neronek egiña da. Zigorrik merezi badet, legez betor nere gañera. Ez dedilla iñor neregatik atzeraurrera ibilli. Baña susmur geiago egingo luteke bere anai Iñaxiorengatik ere. Etzuten elkar ikusi nai. Amaika aldiz berexi nituen. Ura ere ostatuan zan goiz artan. Baña ez: zorritzarrez, nere lana da.

– Orduan zuek maiz asarretzen ziñaten.

– Ni ez nintzan egundo arekin asarretzen. Bera ere ez, benetan beñepein.

– Esaidak, gertatu bezela, dena.

Asi ta buka, urteetako gora-beera guziak kontatu zizkion, bere txetasun guziekin:

– Ori da dena. Orain zedorrek pentsatu, nere lekuan jarrita, besteren batek ere ez ote zuen berdin egingo.

– Bai, estuasun ortan jarri ezkerro.

– Nik ez nuen iltzeko asmoan jo.

– Eta zergatik ez uan orduan bertan abisua eman? Ori aringarria uan iretzat.

– Lenengo egokieran nator. Bearbearreko zama neukan. Ura eramanda, txuxenean etorri naiz. Nai izan banu, ukatuko nuen. Igesi egin ere bai. Oiek ez al dira aringarriak?

– Zalantzik gabe. Alare, badakik orrek zer merezi duen.

– Bai, jauna, bai. Espetxea. Atzo arratsean ez dakit nola ez nuen beste eriotzen bat egin. Eta, jakiña, zigorra mereziko nuen.

– Orduan, bat illarekin ez ago damutua?

– Bai. Ondo, alare! Auxe gertatu zitzaidan.

Dena kontatu zionean:

– Ortaraño ere bai?

– Olakoxeak dira oiek. Ni il arte ez dutela etsiko esan didate. Nik, berriz, maite det nere bizia. Orregatik eskatzen dizut nere amaren etxea zaitzeko. Bakarrik geratuko baita, gizatxar oiek edozer egingo lioteke.

– Utzi ori nere esku. Bero-aldi batean gizona iltzea añako pekatua badek ori. Ez dituk zigorrik gabe geratuko.

Bi udal-ertzaiñen ondoan espetxera joan zan Praixku gizarajoa. Laxter asiko ziran erriko mingain txorrotxen guraizeak eba-
kitzen.

Justizirik bazegoen, etzioten zigor aundi-
rik emango. Gure bizia zaitzeko agindua
eman zigun Jainkoak, eta itzaiak etzuen bes-
terik egin.

Berri au laxter zabaldu zan erri guzian.

Praixku gizarajoa sumindua zegoen, ur-
duri, bakar-bakarrik, zulo batean itxita, amo-
rruz. Egun ta gauak luze ikaragarriak egiten
zitzaizkion, askatasunik etzeukalako. Beste-
tik, berriz, kezketan, eriotz bat egin zuelako
apaizak egin zion isekarengatik. Lasai-lasai
bere pekatua aitortu ondoren, etzion barka-
penik eman. Nola bukatuko ote zan ori gu-
zia?

Etzekien batere erriko berri. Ez baizion
iñork bixita bat egiten. Iñor bere alde edo
aurka ari zanik ain gutxi. Erriko jendea zer
pentsatu etzekiela egongo zala, bai.

– Gizon paketsu ari zer gertatu ote
zitzaion, lagun bat iltzeraño berotu zanean?
Goiz edo berandu otsoak azaltzen dizkik
bere belarriak.

Ori izango zan batzuen berriketa. Besteak
erruki geixeago izango zuten:

– Okasioa jartzeko bestetarako balio
etzuen petral arengatik, bazegok, bada, gi-
zon-modu ori espetxean.

Batzuek alde, besteak aurka itzegingo zu-

ten. Bitartean, bera zulo artan usteltzen. Epailleak ere etzuen deitzen berriz.

Etziran egun asko sartu zala; baña bai luzeak.

Errian, bada, illaren anaia, Iñaxio, bazter guziak nasten ari zan, Praixkuren aurka eten gabean:

– Nere anaia erretxiña zala ez diagu ukatuko. Baña ez orrenbesteraño. Umetxo bat bezela zebilkiken. Azkenean bete ura ere; ta, besterik ezin zuenean, labana artu. Or erru guziak Praixkuk zeuzkak.

Gezurrezko lekukoak billatzen ari zan auzitarako.

Ostalariak bein baño geiagotan adierazi zion:

– Zer naspil jartzen ari aiz? Esaten dekan guzia gezurra dala badakik.

Erria berexia zegoen, bada: batzuk Praixkuren alde ta besteak aurka. Baña auek lanean ari ziran; aiek ez.

Praixkuren ama mezetara joan zan batean, deitu zuen bikarioak:

– Joxepa: zerbait egin bearra dago zure semearen alde. Erriko batzuek gezurretan galdu naiko luteke, eta gogotik jendea iruzurtzen ari dira. Illaren guraso ta anaiak gezurrezko lekukoak billatu dituzte, diruz erositara noski.

– Nik ori dena semeari esango nioke. Baña utziko al didate ikustera joaten?

– Nik egingo dizkizut moduak.

Urrengo egunean, epaillearen baimenarekin, semea ikustera joan zan.

Amak garbi-garbi esan zion errian batzuk bere aurka ari zuten lan gaixtoa. Batez ere, Iñaxiok. Lekukoak, gezurrezkoak denak, biltlatzen ari zala. Ostalaria bakarrik mintzatzen zala bere alde.

– Al badek, motell, obe dek iges egin, egokierarik arkitzen badek. Ez aute, noski, urkamendira eramango. Baña puska bateko itzala emango ditek.

– Iñaxio ori lagun billaua atera zait. Joxe Migelek zebilzkin mandoak nereak ziran. Zorretan zeuzkan eta, espetxera etorri baño len, zor guzia barkatu nion. Mandoak berari eman ta alare ni galdu nairik al dabil? Egokieran arrapatzen badet, anbat bero-bero egingo dizkiot belarri aundi oiek.

– Eta laxter emendik beste espetxeren batera eramango autela. Ots ori zebillek. Au dena neri erriko bikarioak esan zidak.

– Ondo dago ta eskerrik asko, ama. Egunen batean or ikusiko nauzu. Ez da eziña emendik iges egitea. Baña zu betiko utzi bearko zaitut.

– Ez adi ortaz oroitu ere. Ama kontentu biziko dek, i aske ta ondo abillela jakitearekin. Aurki alaba etxera ezkonduko zaidak, eta nere bakardadea ere bukatuko dek orduan betiko.

Ama triste ta urduri joan zan andik. Semea ere berdin: inpernu bera zebilkién biotzean. Aske joanta ere, zer egingo zuen?

Alare zoratzen zegoen beste apaiz batengana joateko. Ez al ziran denak alakoak izango. Ori eraman errexagoa izango zitzaion askatasunean, bakarrik itxituran baño.

IGESA

Illunabarrean joan zan zaitzallea aparilege batekin. Praixku gizon atsegin ta paketsua zalako, etzuen arraixkurik ikusten. Baña itxituran dagoen piztiak norabait jotzen du, lotua dagoenean. Itzaiari ere berdin gertatu zitzaion. Amorratua zegoen itzalpe artan. Berri kaxkarrak ikasi zituen gañera. Zaitzallea, bada, lasai-lasai sartu zitzaionean, lepondotik eldu zion, karraxirik egin etzezan aoa estaliz.

– Barkatu nazak, Joan Mañuel. Baña nik ire bizkar iges egingo dit. I ez aute zigortuko –esanta, bertan utzi zuen lotuta.

Illuna babes, laxter ezkutatu zan. Txuxenean ostatura joan ta ostalaria billatu zue-nean, au arritua geratu zan:

– Aske utzi al aute? Emen esaten diranakin...

– Ez. Iges egin dit.

– Arrapatzen baaute, iretzat bigarren au okerragoa izango dek.

– Bai. Nai badu, datorrela nai duena. Be-

rri txarrak iritxi dituk nere belarrietara. Ni, berriz, ez nauk kaiolan egoteko txoria.

– Ongi etorria.

– Eskerrik asko. Bazekit ostantu ontan ik bakarrak esaten dekala egia ta gogotik nere alde ari aizela. Ik denaren berri badakik. Baña or badek bero-bero egin nai nukena. Nik merezi gabe, nere aurka gezurretan ari dana.

– Egia esatea aski dek, ire alde aritzeko.

– Ori dek arrazoia.

– Iñaxiorengatik esango dek noski ori?

– Bai, neri amak esan zidanez.

– Amaika aldiz esan ziot gezurretan ari dala.

– Orixe arrapatu nai nitek.

– Zertarako? Asmo txarretan al ator?

– Lengoak ere naiko lanak ematen zizkidak. Ni beti bezin paketsua natorrek. Arpegira bota nai niokek bere kaxkarkeria. Ez dek mundu ontan lagun on bat billatzen errex.

– Itzegin nai badek, gela ortan apaltzen ari dek beste bi lagunekin.

– Nere aurkako lekukoak agian?

– Ori, Praixku, nik etzekit.

Txuxenean joanta, an azaldu zan itzaia biziro asarre.

– Gabon denei.

– Baita iri ere.

Izutu zan Iñaxio. Bi lagunekin zegoen arren, alako larri-aldi bat artu zuen. Bai

Praixkuk antzeman ere. Beldurtu edo arritu beñepein bai.

– Ez uan usteko aurrean ni ikusterik.

– Ez, gizona. Ez iltzea baño geiago.

– Biali ez banaute ere, ni askatu nauk.

– Nola askatu, oraindik auzirik ez ditek egin-ta?

– Ez da egingo ere. Iges egin dit.

– Arrapatzen baaute, okerrago izango dek bigarren sarrera.

– Nere bigarren etorrera ere ez uke gaurkoa bezin atsegiña izango, biurtzerik izaten badet.

– Zer esan nai didak orrekin?

– Ez aiz ain ez-jakiña. Iretzat ulert-errexak dek ori.

– Zer? Joxe Migelena egin nai al didak?

– Bai iri ta nere aitari ere, ni iltzera badator. Ik badakik ura nola gertatu zan. Dena garbi-garbi kontatu nizuten, txeetasun guziekin.

– Eta guk sinistu egin genin.

– Ez dik itxurik. Zalla dek, motellak, zalla, lagun on bat billatzen. Zorionean ustez maite niñutenak, zoritxarrean denak iges egin zidatek.

– Zer nai uke orduan: ni espexera sartzea?

– Ez. Ura, batentzat ere, txarra dek. Birentzat ez ohea.

– Oroi adi nere anaia dala illa.

– Ori dena ta geiago ulertzeko lekua bazegok nere biotzean, bizi zanean ain maiteak

ez baziñaten ere. Amaika aldiz berexi ziñuztedan, biak lotuta ito-zorian zabiltzatela. Baña anaia uan eta odolak badik beti alako eraxpen bat. Ori ontzat artzekoa dek. Baña nere asarrea etzeturrek ortatik.

– Zer nai uke orduan egitea?

– Nai dekan ainbeste itzegin; baña egia esan.

– Nik gaur arte esandakoak, egiak dirala uste dit.

– Egia? Deabruak ere ez likek gezur aundiagorik asmatuko.

– Esaidak bein zertara etorri aizen.

– Maite nuen baten billaukeria gezur araztera. Ez natorrek ez iri ta ez beste iñori txarrik egiteko asmoan. Lengoak ere naiko larriak bazekarzkidak. Zertan ari aiz gezurkontari, ni betiko baitua banego bezela, nik ura jostallutzat artzen nuela; desairea ta jolasa besterik ez nuela egiten nik arekin, jendeari parra egiñarazteagatik; ume iñozo bat bezela nebilkiela, indarrean ezin zuelako; azkenean, bere burua babesteko, labana atera bearrean arkitu zala? Ori ez dek egia. Ik ere badakik, bere griña gaixto ta gizatxar guziekin, nik Joxe Migel maite nuela ta, al nueñean, lagundu egiten niola, benetan piña uan-ta. Amaika negar egin dit, lan txar ori ezin ordaindu detalako. Baña Aita Santua berbera etortzen bazait ere bere labana eskuan erasotzera, nik, al badet, eman egingo ziot, nere bizia gordetzera beartua nagoen ezker.

– Eta ori zeñek ukatzen dik?

– Nere belarrietara iritxi dituk alako kontu batzuk. Amak eraman zizkidaken, bikario jaunak esanta: alegia, semea jartzeko jakiñaren gañean errian sailtxo bat badabillela, illaren anaiak eta ez diranak ere, auzitegian nere aurka gogor egiteko, diruz lekuko gezurrezkoak erosteraño. Nik ez nin bestela igesirik egingo. Oraindik zuek baño gorrotogarriagoak zaizkidak, ezer ere jakin ez ta ortara dijoazenak. Ez ditek zerurik merezi. Iges egin dit espetxetik eta bego ura bi anaientzat.

– Nere bi anaiak zer txarrik egin ditek?

– Len ere esan nizuten nola arratsean indarrean sartu ziran, nere ama bultza ta ziraldoka boteaz, etxea aztertzer. Epailleari salatu ziot ori, nere ama alarguna babesteko, bakarrik geratzen dala etxean-ta. Epailleak ala erantzun zidak: «Ik egin dekana baño larriagoa dek ori. Ez dituk zigorrik gabe geratuko. Eta oiek, beste olako bat ire amari egingo baliote, urkamendira joango ituke». Iñaxio, uste dit zuen esku dagoela ori galeraztea.

Ixilik zeudenei eskua emanaz, abian ala esan zien:

– Inpernu batean bizi nauk. Bizia maitagarria nin. Baña uste dit obe nukela illa bango. Ez nauzute noski emen geiago ikusiko. Bizi naizen arte, alderrai ibilli bearra zeukat. Mesedez eskatzen dizutet etzazutela nere ize-na geiago zikindu.

Eta bizi-bizi atera zan andik. Ura ezkutatuz zanean, ala zioten Iñaxioaren lagunak:

– Beti izan dek atsegiña, ta agurra ere ala egin ziguk. Erri ontan zan gizonik maitagarriena galdu diagu. Nai gabe egindako lanak ontaratu dik. Gizarajoa, nora ote dijoa orain?

Iñaxiok ala erantzun zien:

– Bai. Doan lekura dijoala, beti Justizia atzetik ibilliko zaiok. Gizarajoak bizi-modu kaxkarra benetan.

Andik, txuxenean, amaren etxera joan zan. Semea aske etxean ikusi zuenean, besarkatu zuen biotzez.

– Aske utzi al aute?

– Ez, ama. Iges egin det, eta mesedez iriki zazu leio ori, norbait baletor ere ortik jauzi batean iges egiteko.

– Larri abil orduan.

– Ain larri ez noski. Baña badakizu Justiziari aldegin diodala. Ez dute biar goizera arte agian ikasiko. Baña etorko balira, ez nintzake makurtuko, ilko niñutekela jakinta ere. Ez naute ni espetxean edukiko edo urkamendira eramango. Agur, bada, ama. Uste det pakean utziko dizutela. Bizi banaiz, bali-teke iñoizka bixita batzuk egitea. Inpernua bera daramat nerekin, eta otoi egizu nere alde.

– Eta nora joan bear dek orain?

– Ori da oraindik pentsatu ez detana.

Musu bana eman zioten elkarri, ta semea mendiko illunpean ezkutatu zan. Amak leioa itxi zuen ta negarrari eman zion:

– Noiz ikusiko ote aut berriz? Ez aiz, bada, i mutil biurri oietakoa. Alare, naiago

dit iges egin dekan. Ni bakarrik gelditzen banaiz ere, abil munduz-mundu, askatasunera-ko egin gaitziken Jainkoak-eta.

IGESAREN BIARAMONA

Praixku iges egiña zala, lau edo bostek bestek etzuten ikasi. Goizean, zaitzallea etzalla iñon ageri ta zer gertatzen zan espetxe artan ikustera joan ziranean, au barruan lotuta arkitu zuten aoa estaliarekin, eta itzaia aldegiña.

Asarretu zan biziro gure epaillea, laxter beste espetxe batera eramateko asmoan zebillenta. Bereala deitu zituen udal-zaiñak eta ala agindu zien:

– Zoazte lenbailen ostatura. Gure Praixku buru-aundi orrek, zaitzallea lotuta utzirik, igesi egin ziguk. Ea an ezer badakiten.

Udal-zaiñak ala zioten elkarri:

– Ez dik arrazoiazen paltik. Ori baño leku zikiñagorik? Guk olakoan txerririk ere ez diagu edukitzen. Ura ostantuan geratuko zala uste duenak, etzekik asko askatasuna zer dan.

Ostalariak, ikusi zitueneko, igerri zion aiek Praixkuren atzetik zetozela.

– Egun on –agur egin zioten.

– Baita zuei ere. Orren goiz zer zabiltzate emen?

– Ikaragarria gertatu zaiguk: Praixkuk espetxetik iges egin ta bere lekuan zaitzallea lotuta utzi.

– Bejondeiola! Etzegok gaizki pentsatuta egiña. Iñork espetxerik merezi badu, uste dit zaitzalle ori dala lenengoa erri ontan. Amai-ka erru gabeko zigortu dituen otsa zegok. La-saitasun pixar bat uzteagatik, bai dirua polli-ki eskatu ere. Itzaia gogorregia izan ortarako.

– Bere egin bearrak bete besterik ez dik egiten arek.

– Bere eginkizuna zigortu ta erru gabe-koei dirua ebastea bada, berriro ere Praixku bezelakoak ortzak erakutsiko zizkiotek.

– Utzi zaiogun orri. Emen al zegok?

– Ez uke nolanaiko eroa, andik iges egin ta ateetan geratuko balitz. Ez; emen etzegok itzairik. Baña pozten nauk iges egiña. Atzo arratsean azaldu uan. Bere esan bearrak bu-
katuta, aldegin zin. Jainkoak jakingo dik onuzkero non dabillen.

– Eta zergatik ez uan salatu?

– Nère negozioa laxter joango uke anka-z gora, onera datozenak salatzen asiko banintz. Maitasunez artu ta al detan ondoena ser-bitzea, ori dek nere eginkizuna. Beste ori dek zuena.

– Ez ote dek gero zigorrik merezi?

– Zigorra? Zuek merezi dezute. Beste egi-tekoric ez ta ori ere ezin ondo bete. Gaizki egingo nitek, iñor salatuko banu.

– Orduan etzegok emen?

– Len ere esan dizutet, etorri ta bereala joan zala.

– Epaillearekin konponduko aiz gero.

– Bai, motellak, bai. Erantzunaren paltan ez gaituk geratuko.

– Amaren etxean ote zegok?

– Ez dit uste. Lo egin badu ere, onuzkero andik aldegingo zin.

Ostalaria madarikatuz, amaren etxera joan ziran. Semeak iges egin zuelako, au ez-taietan bizi zan, edozeñi adarra jotzeko prest. Aldapak gora ikusi zitueneke, ala zion:

– Emen dituk, beti beranduegi ibiltzen diran oietakoak. Alper galantak! Eguneroko ona irabazi ta golperik jo ez.

Atea jo zuteneko, jetxi zan ama. Bi udal-ertzaiñak ikusi zituenean:

– Garai ontan zertara zatozte zuek etxe ontara?

– Praixku zure semearen billa.

– Nik seme bat bakarra daukat. Ura espetxean ez daukazute, bada?

– Bart iges egin du andik.

Algara gozoa egin zuen amak, esanez:

– Bejondeikela, seme, alper aundi auei aldegin badiak.

– Alperrak? Nor dira emen alperrak?

– Espetxean bakarra zeneukaten eta arek anka egin dizute. Munduan nor alperragorik, txoriak izutzeko ere ez dezute balio-ta?

– Ez gera zure isekak artzera etorri gero. Epaillearen aldetik gatoz.

– Arek esna erazi al zaituzte?

Amaren adar-jotze arek sumindu zituen gure udal-ertzaiñak; eta, asarre xamar, ala galdetu zioten:

– Aren berririk badezun edo ez esaiguzu beingoan.

– Pollita izango uke amak bere semea salatzea. Etzekit non dabillen. Baña bart nerekin itzegiñ ta joana dek.

– Ea etxean gordea daukazun.

– Orixe egingo bagendu, ero galantak giñuke. Oitu bezela, berandu zabiltzate. Nere semea ez dek kaiolan egoteko egiña. Bein saretik iges egindako uxoa, ez dek egundo bertan geratzen. Ni bakardadean geratuko banaiz ere, dabillega ura aske munduz-mundu. Ez, txakurrak bezela, katean.

– Arrapatzen badegu, lengoak eta oraingoak batera ordaindu bearko ditu.

– Kontuz! Berriro ere anbat esku artetik iges egingo dizute arek.

Asarre aldegin zuten andik. Amari arrazoi ematen zioten: semea salatzen ezin ariko zan. Baña bentara etorri ta ez salatzea etzuen ondo egin ostalariak, gizon-iltzalle bat zan ura-ta.

Uxoak, amak zion bezela, iges egin zuen, bai, ta etzan errexia izango ura berriz arrapatzea. Epailleari gertatuaren berri emango zioten, bai, ta or konpon zedilla.

Au asarretu zan biziro, ostalariak salatu etzuelako. Baña erori bear zuen. Egindako iseka etzan ortan geratuko.

Arratsaldean epaillea ostatura joan zan, benta-zaleari egundokoak esateko asmoan. Au ere, ordea, etzegoen berriketarako. Bere lagunik maiteenetakoa izanik Praixku, iges egin zuelako kontentu zegoen. Baña etzion onik egiten, ari gizon-iltzallea deitzeak.

Bere agurra egin ondoren, ala eraso zion epailleak:

– Uste nin nere lagun maite bat intzala ta iruzurtua nengoken.

– Zergatik diozu ori?

– Gizon-iltzalle bat, espetxetik iges egin ta ostatura etorririk, salatu ez dezulako.

– Ala jainkia! Erri ontan dan gizonik onen ta paketsuena salatzea nai al zenduke? Ni ostalaria naiz; ez ertzaiña. Nere lagun kutuna zerala diozu? Agintzen dezuten oieta-koak ez ditut egundo nere laguntzat eduki. Zenbat eta urrunago, obe.

– Nai dekan bezela pentsatu. Baña ori gizon-iltzallea dek.

– Olakoari ezin lezaioke gizon-iltzallea deitu. Erretxin baten laban zorrotzari iges egiteko, zartako bat besterik etzion eman. Leku txarrean arrapatu zuela. Beste pekatu-rik ez du orrek.

– Etzekit ori berezko gizon-iltzallea ez ote dan. Ea besteren batzuk ere erortzen diran, ez badegu aguro arrapatzen.

– Erotzen bada, bai; edo ezin bizitzeraño estutzen badezute. Kontuz igesbiderik gabe lotua dagoen katamotzarekin. Andik aldegin ta agurtzera etorri zitzaidanean, ez dakizu

zer atsegin artu nuen. Jakingo dezu noski illaren bi anai nola dabilzan Praixkuren amaren etxean. Arrapatu ta bat garbitzen badu, gizon-iltzallea? Ortan ez nator zurekin bat.

– Bazekit. Baña beste orrek gizona il dik, eta ori espetxean obeto zegok, kanpoan aske baño.

– Eta beste oiek zergatik ez? Oiek alar-gun gaixoari nai dutena egiteko eskubiderik bai al daukate? Ori ez al da pekatu? Eta, zuen erabaki okerrez errugabekoren bat urkamendira bialtzen dezutenean eta gero iñoxentea dala jakitean, espetxera joaten al zerate?

– Gu ez gaituk uts-eziñak. Ez jainkoak ere.

– Baña errugabeko bat il dezute. Orrena oraindik aringarriagoa da. Iltzera zetorkiona jo ta garbitu du, ta ori uste gabe. Orri gizon-iltzallea deitzen dionak, ez du anka ta bururik. Bestela, dena gorrotoaren lana da. Emendik aurrera, epaille guziei gizon-iltzalle esango diet nik.

– Iritzi zebreak dituk orratik ireak.

– Maitasunezkoak; biotz-biotzetik atereak. Orren atzetik bazabiltzate, besteren bat il erazi ta erri ontan dan gazterik paketsu ta jatorrena ondatu besterik ez dezute egingo. Auziak ez dute zigortzeko bakarrik bear. Errukiz artu ta oker-bidetik baztertzeke ere bai. Epaille oiek etzoazte bide ortatik. Jo ta

txikitu, il ta ito, zuen erabakietatik urruti dabil kristau legea.

– Epaille batek zer egin bear duen, ik ez didak neri erakutsiko.

Eta asarretu xamarra atera zan ostatutik.

Gora-beera auek guziak larunbatez ziran. Urrengo egoartean erritarrak mezetara bilduko zirala-ta, bandua jotzea erabaki zuen:

– Erriari jakin arazi nai diote bertako agintariak, gizon-iltzalle beldurgarri batek emengo espetxetik iges egin duela ostiralarratsean, zaitzallea lotuta utzirik. Ostatuko iturri ondoan akulluarekin jo ta gizon bat illa. Bere bizibidez itzaia. Uste degu erri onek ondo ezaguna duela. Non dabillen ikasten duen erritarra, salatzer a beartua dago.

– Nor dek ori? –zioten askok.

– Praixku itzaia ez dek olako beldurgarria. Arek gizona il badu, bera ere larri ibilliko uan.

– Nik, al badet, lagundu egingo ziot. Ez salatu. Erri ontako gizonik jatorrena galdu ditek betiko.

PAKE BILLA

Askatasuna iritxi zuenean, Praixkuk aldegin zuen andik, atzetik zebiltzanak arrapatuko etzuten lekuraño, ta artzai baten morroi jarri zan Aralar'ko egalean.

Bazterrik geienetan zabaltzen saiatu arren gizon-iltzalle beldurgarri bat nola espetxetik iges egin ta aske zebillen, ta jendearentzat arraixku txarrekoa zala, inguruko errietako epaille ta besteren batzuk jasoko zuten albiste ori abixua artu berrian. Baña gero, aztu ta zokoan geratuko zan. Izan ere, garai aietan Euskalerra geiena badakizute baserria zala.

Beraz, zemai guzi oien beldur gabe, ez baiziran aren belarrietaraño iritxi, mendimendian artzai zebillen. Bere nagusiak ez bazuen ikasten erri aldera jeixten zanen batean, etzeukan arrapatuko zuten beldurrik. Etzan errexia izango berri ori jakiten, arek artu-emanak zituen lekuan ez baizan olakorik aipatuko.

Arranoak bezin aske bazebillen ere itxuraz ori, zearo lotua zegoen. Kezkaz betea, inpernu bat zeraman biotzean.

Bere mendi-txabolatik txango bat baño geiago egin zituen inguru artako eliz geienetara. Pralletegietara ere bai. Baña dena alperrik. Denetan erantzun berdiña artzen zuen.

Aurrean belaunikatu ta:

– *Abe Maria purixima.*

Apaizak entzungo zuen; baño agur orri etzion beññere erantzuten.

Ta Praixkuk bere pekatua aitortu orduko:

– Aaa! I al aiz, Praixku? Baabil, bada, i ere pake billa, gizarajo ori. Baña alperrik. Odol-kutsurik ez dek kentzen, ez emen ta ez bestean.

Eta askezpenik eman gabe bialiko zuen andik.

Ondo pentsatu ezkeru, bazirudien etzuela pekatu egin, bere burua salbatzeko ta nai gabe gizon bat iltzea. Ala bada ere, ez ain larria beñepein. Baña gure Praixku gizarajoa, baserritar ta langille jendea bezela, ez-jakiña zan olako arazoetan. Iñork barkatu nai etzionean, izugarria izango zala iruditzen zitzaion. Ortatik zetorren bere larria. Aitortu orduko, denetan erantzun berdiña ematen baizioten.

Bera aitorlekura sartzerakoan apaiz goxo, atsegin ta patxarosoak iruditzen zitzaizkionak, aurrean belauniko jarri ta bere pekatua aitortu orduko, «Kaixo, Praixku!» esaten zioten. Bazirudien denak alkar artuak zeudela, barkapenik ez emateko. Maltzur-maltzur iseka egin gero.

Nola demontre ezagutzen zuten, berak etzituen ordurarte aurrean ikusi-ta? Dena zitzaion beldurgarria.

Gure artzai morroia, berriz, daldaraka geratzen zan, bertan bere burua iltzeko zorian, eta etzan gutxiagotarako.

– Demonioaren apaiz urdea!

Ta, aitorlekua astinduz, joango zan andik, sartu baño askoz larriago.

Askotan bidean topo egingo zuen ura. Bere ustez, beñepein, eta izketan, oso atsegiña irudituko zitzaion. Aitorlekuan, berriz, deabru berbera.

Zer ote zuen bere pekatuak? Edo gizona

iltzen zuten guziak orrela ibiltzen ote zituzten? Eta nori galdetu? Etzioten itzegiten uzten-ta.

Norbaitek esanta, ikasi zuen Aralar'ko San Migel'en, egun jakin batzutan, pekatu guziak barkatzen zituztela; ta joan zan ara ere, bere biotzeko pake orren billa, aspaldian galdua zeukan itxaropena berriro arkitzen ote zuen.

Bere askatasuna arraixku txarrean jartzen zuela, ori bazekien. Bere ezagun asko an izango zirala ere bai. Baña etzuen uste bere erritarrak ain errex salatuko zutenik.

Askotan, berekiko ala pentsatzen zuen:

– Zorionekoak sinismenik gabeak. Aiek mundu au bederenik lasai pasako ditek. Gero gerokoak. Ni, ordea, sinisten detalako, egun guzian beldurrak, noiz edo noiz arrapatuko nauten. Arratsean, berriz, loaren orde, nere gogorapen triste orri lotua. Geroko itxaropena biotzean illa. Ta jakin Jainkoa neurri gabeko errukitsua dala. Neretzat, berriz, alperrik. Bizi-modu gaixtoa zeramat: inpernu bera nerekin. Jainkoak eta nik zekiagu zer dan itxaropena galdutako sinisten duen kristau baten larria. Orretxegatik urkatu zan Judas. Dena illun zegok neretzat. Etzidak ezerk pozik ematen. Kezka, urduritasuna. Loa igesi zebilek nere begietatik. Jateko gogorik ez. Lagun artean ordurik zorientsuenean ori aztuta nabillenean, intziri baten antzera norbaitek aopean esango balida bezela, nere egoera triste au oroituz, dena eden, ozpin

biurtzen zaidak orduan. Itxaropenean bizi dan baten munduko naigabeak, utsak dituk orren ondoan, beti nere burua galtzeko larritasunez bizi nauk-eta. Ortarako daudenengana joanta, nere pekatua entzun orduko, beti erantzun berdiña: «Alperrik abil!» Zertarako bizi orrela: sinismena bai ta itxaropenik ez? Berdin nere azkena ikusia zegok. Bota zak bein betiko ere burua itxasora ta gorde adi bizien artetik eta kito. Orrela bizitzeak ez dik balio. Ori, ordea, okerretik okerragora joatea uke. Nik denak maite dizkit. Nere egoera triste onentzat pakea ta atsegiña billatu nai nizkikek. Biotzean bizi-poza sartu. Denei nere ondo gabeko utsun onen berri emateko gogoa, ea lasaitasun pixar bat ekartzen diodan biotz oni. Baña alperrik. Gizonak eta deabruak, etsai. Jainkoa ixilik. Bera ere naiko aurkari, ez baiditu nere otoitzak entzun nai.

Gogorapen auek berekin zebilzkiela, joan zan gure Praixku San Migel'era.

Ango jendearen emana! Badauka, bai, oraindik euskaldunak sinismena. Gazte, erdiko ta zaarrak, mutil, gizon, neskatx eta emakume, an ikusten zituen elkarren leian, aitortz on bat egiteko zoramenez.

Aietan asko, beñepein, bera bezela joanak izango ziran, edozein apaizek barkatu ezin lezaken pekatu gaixtoren batekin, gotzai jaun edo Aita Santuak ezik ezin zitekena, auek beren ordekoak jartzen zituzten-eta San Migel'en. Oiek, denak barkatzeko bazuten esku-

bidea. Etxean bertan aukera edukita, zertarako joan bear zuten araña?

Batzuk ala joanak izango ziran. Baña geienak, San Migeli zioten eraspenez. Maitasun aundia dio euskaldunak, ta arixe bixitatxo bat egiteko ta laguntza eskatzeko ere bai.

Norekin aitortu etzekiela ara-onera zebillela, ostalariarekin topo egin zuen.

– Kaixo, Praixku! Emen al abil?

– Ongi etorri. I ere San Migel'en?

– Bai. Urtero etortzen nauk. Onuzkero Euskalerritik igesi egiña izango intzala uste nin.

– Mendi-mendian artzai morroi nabillek. Ango oiurik ez dek oneraño irixten.

– Ortan balitekek arrazoi izatea. Baña askatasuna maite badek, erne ibilli. Ire lagun epaille maite ori onera etorria dek, eta orain ez gaituk len bezin lagunak. Ez dek aspaldi ontan ostatuan azaldu. I salatu ez iñudala-ta, asarretu egin uan.

– Eta orrek kalte egiten al dik?

– Neri ez-ta batere. Ez dek ostatu-zalea. Baña erne ibilli. Onuzkero anbat ikusiko iñuan.

– Ikusten banau ere, kakareren batzuk egingo dizkik. Baña ortan geratuko dek guzia. Zer moduz errian?

– Ire utsunik ez dek an nabari. Iñaxio ixildu uan. Erriak aztu au. Ori gertatzen dek, bat begien aurretik galdu ezkeru. Illaren anai

gazteenak zebiltzak, i non abillen jakin nairik, bazterrik bazter.

– Arrapatzen baditut, belarri ondoak berotuko zizkiet eta orixe irabaziko ditek. Bakarririk al dek epaillea?

– Bai. Erritarren batzuk emen izango dituk. Baña etzekarrek udal-ertzaiñik.

– Orduan lasai banebilkek. Zer moduz nere ama?

– Osasunez ondo. Arek bai nabaituko duela ire utsuna. Ez-bear bat izandu ditek: alabaren senargaia enbor batek arrapatu ta txikitu zin geronekoan.

– Ama aren itxaropenetan geratu uan-ta, nik andik aldegin nuenean! Eskumiñak emaizkiok. Luzatu gabe, bixitatxo bat egin nai nioke arixe.

– Kontuz! Gorrotoan artu autenak badi-tuk; eta len esandako bi anai oiek, urkamen-dian bukatuko omen ditukela ire egunak ari dituk kontari. Epailleak berak ere, ez omen diola olako isekarik iñork egin, ziok.

– Egin dezatela alegiña. Baña kakatsu oietakoren bat arrapatzen badet, gogoratuko zaiok egun ori. Beste gañerakoan, nere etxera sartu-atera bat aixa egingo dit, oiek oartzera-ko. Eskerrik asko. Aitortz on bat egiteko asmoan natorrek.

Eta, laguna agurtuz, txuxenean lekura joan zan.

Aulki banatan an ikusten zituen lerroan apaizak, nai zuen guzia aitortzeko zai. Bat

sartu, bestea atera, banaka-banaka bazijoan jendea elizara.

Ikusten zituen batzuk nola daldaraka belaunikatzen ziran aitorlearen aurrean; eta, bukatu ondoren, zoriontsu ta atsegiñez, alako par-irudi batekin eskuak igurtziz, joaten ziran elizara, apaizak jarri zien penitentzi pixarra betetzera, San Migelen oñetan belaunikatuz ta biotz-biotzez eskerrak emanaz, paketu ta galdutako itxaropena berpiztu zielako.

Luzaro begira egon zan Praixku, inbiritan, len daldaraka aitortu ziranak orain zoriontsu elizara joaten ikusita, len beñepein kanpoan aitortzen ziran-ta.

– Zorionekoak zuek! Nor sartu liteken zuen artean!

Berak joateko asmoak artzen zituen; baña beldurrak berriro atzera, zemai gaixto ura entzuteko ikaraz.

Noizbait urbildu zan batengana. Arek barkatuko zion noski. Apaiz atsegiña iruditu zitzaion.

Oso goxo artu zuen. Baña aitortu zanean, ala erantzun:

– Kaixo, Praixku!

– Utziozu Praixkuri pakean ta emaidazu askezpena.

– Alper-alperrik eskatzen didak ori. Ire pekatuak etzeukak barkapenik.

Alako amorru ta larria eman zizkion batera, ojuka ala esan zion:

– Besteei bai ta neri ez? Deabru urdea aleena!

Lotsatua zutitu zan andik.

– Zertarako etorri ote nauk ni onera? Au ez dek bizitzea. Obe nitek arkaitz ontan beerra nere burua amilduko banu, orrela ibilli baño.

Praixku an ikusi zuenean, laxterka azaldu zan erriko epaillea:

– Espetxetik iges egindako gizon-iltzalle bat da! Eutsi, eutsi orri!

Baña an etzan aren adiskiderik azaldu.

Praixkuk antzeman zion an etzala bere etsairik azaltzen; ta, urreratu zan arte, itxogin zion bertan txutik.

– Baitua ago, baitua! –oiuka epailleak.

– Zertan zatoz onera, ollo loka bezela, kakareka? Urbil zaite, urbil! Erakutsiko dizut emen nor dagoen baitua.

Baña atzetik iñor etzetorkiola oarturik, atzera egin zuen. An zebillen jendea etzan artara joana.

– Alix orrek kalte aundia egiten didazu.

Praixkuk, bein andik urrundu zanean, negarrari eman zion, ume batek bezela, pago aundi baten zañetan exerita.

– Zertarako etorri ote nauk ni onera? Orra nere azkeneko itxaropena! Nola ote dakite denak nere izena? Aitortu orduko, betiko erantzuna nere belarrietara. Izatea omen dek gizonaren doairik onena. Inpernuan dau-denak eraman omen lezatekek ango suprikizuna, izateagatik. Ori ere tristea dek orratik:

izaten iraun, beti supritzeko. Etzekit, bada, nik, aukeran jarri ezker, beti oñazetan bizi baño, ezerezera biurtzea ez ote nuken aukeratuko. Beldurgarria dek benetan Jesusek Judasengatik esana: «Obe zuen orrek, ez balitz jai». Nere inpernua, beñepein, oraindik asi dek. Etzekit egundo bukatuko dan.

Kezka gaizto auker ezin uxatuz, iritxi zan bere artaldera. Ez baizeukan San Migel'etik urruti.

Orain epailleak bazekien nonbait mendi aietan bizi zala, ta ziur asko artzairen batekin; udazkenean beera jeixten diran oieta-koekin noski, ta alegiñak egingo zituen arkitzen ote zuen.

Artzai nagusia, erri aldera joana, -etzan artaldearekin bizi ere-, arratsalde erdi aldera etorri zitzaion, eta berri kaxkar samarra ekarri:

Erri ondoan gizon bat il zutela. Ta mutil gazte aundi bat zala iltzallea, ikusitakoak esan zuten.

- Ezagutzen autenak, i ote aizen esan zidatek.

- Ala jainkia! Emen ere ezagutzen al naute? Ez nauk, bada, etorri ezker, errira jetxi. Ortan ere deabruak zirika asi ote zaizkit? San Migel'en, bai, izan nauk. Iri esan nin. Bi ordu baño len emen nioken. Zer garaitan gutxi gora-beera izan uan eriotz ori?

- Atzo arratsaldean, zazpirak alde ortan, esan didatenez.

- Ez badet bi lekutan batera egoteko

doairen bat, nik ezin nezaken egin, biok artegi ontan ari giñun ardiak jeizten-ta.

– Ori dek arrazoia, zazpirak jota oraindik emen geundenen-ta.

– Tarte ortan bazebillek norbait naspillan. Len naigabetua etorri banauk San Migel'dik, berri onek ez niok asko poztuko. Dagoeneko erosi dizkitek lekukoak. Aspaldi ontan gertatzen zaidan guzia arrigarria dek. Bai beldurgarria ere.

– Zer egin bear dek orain?

– Zer egingo dit? Anka. Arrapatzen bannaute, nola ezeztu bear dit ez naizela ni izan, bi edo iruk baiezten badute? Nere naigabe guzien artean, ez dek neretzat au baño leku atsegiñagorik; ta orra, txabolatik atera gabe, erriko ateetan gizona il. Gaur, bertan geratuko nauk. Baña ez dit txabolan lo egingo.

Arratseko ordubiak aldean, ikusi zituen, nagusiak bidea erakutsiz, bi ertzain txabolara igotzen.

– Urdeak aleenak! Nork abisatuta ote zatozte onera? Ez dezute kaiolan txoririk arrapatuko, ez. Ni segurutik nagok begira.

Txabola-barrua ondo aztertu ondoren, ala galdetu zioten nagusiari:

– Nola zekiken gu etortzekoak giñala?

– Orri etziok iñork ezer esan. Nik ere ez nekiken zuek etortzekoak ziñatenik nere eske bidea erakusteko. Nik esan nioken atzo erri ondoan bat il zutela, ta nere morroiaren antzekoa iruditu zitzaiela ikusi zutenei.

Orrek etzekiken besterik. Ori dena, au baitzêko aitzaki bat izango uan.

– Ori ez dek emendik urruti egongo, ez.

– Etzekit. Len txabolan lo egiten zuenik ere ez. Erne ibiltzeko badizkik bere arrazoiak.

– Orduan alper-alperrik etorri gaituk?

– Igotzerako esan dizutet.

Ordukoz, beñepein, txoria aske geratu zan.

AMAREN ONDOAN

Goizean goiz igo zan nagusia txabolara, itzaia an egongo etzalakoan. Baña ordurako artaldea larrean zebilkin, ta bera artzai arkitu zuen.

– Ez al dek iges egiterik pentsatzen –galdetu zion.

– Artaldea bakarrik utzita ez beñepein –onek erantzun.

– Eskerrik asko. Iregatik esaten diran guziak gezurrak dirala, oraintxe erakusten didak garbi asko.

– Zergatik diok ori?

– Iñori kalterik egin nai ez diokelako. Ire arraixku guzien gañetik, ez dek artalde au bakarrik utzi nai izan.

– Ez dek mendi ontan ni arrapatuko nauen ertzaiñik.

– Sendagilleak dionez, gizon ori ez dik iñork il. Mozkorra zegola ta, kroskan beera eroriz, buruarekin arri gogorra jo ta seko geratu dala.

– Eta iltzen ikusi niñuten lekukoak?

– Etzekit nor diran; baña gezurrezkoak. Deabruak edo sorgiñak agian.

– Aingeruak ez beñepein. Aiek ez ditek gezurrezko testiguantzarik egingo. Alare, nairgabez, baña anka egin bearko dit emendik. Gure erriko epaille kaxkar arek dakien ezkeron non nagoen, etzidak pakean utziko.

– Eta norako asmoak dituk?

– Txuxenean etxera amarengana. Ari bixitatxo bat egin gabe, ez nauk Euskalerritik urrunduko. Bueltakoan balitekek emendik igarotzea.

– An arrapatzen baaute...

– Amaren etxea erritik berex zegok. Ez badaukate beintzat zelatariren bat jarria, ango atzera-aurrera lasai egingo dit.

– Torik onoko gazta au. Eramaiok amari.

– Eskerrik asko. Etzaiok gaizki etorriko.

Bere traste pixarrak pardel batean bilduta beti berekin ibiltzen zuen aizkora txiki kidar-luze batetik zintzilik bizkarrean artu ta, nagusia agurtuz, atera zan bere menditxabolatik gure euskaldun alderraia.

Bere ama bakartiari bixitatxo bat egin naitzion. Illundu arte, goiko txaran itxogin zuen,

bada ez bada. Orduan, jetxi ta jo zuen etxeko atea.

Amak maiz begiratzten zuen azkeneko semea ezkutatu zitzaion bidera. Bai-baizekien andik edo emendik, bizi bazan, azaldu bear zuela. Garai artan deika somatu zuenean, bere biozkadak etzuen iruzurtu:

– Iñondik ere nere semea ari dek atean deika!

Laxterka jetxita, biak maitasunez besar-katu ziran.

– Ator, ator barrura, alper galant ori. Ezer artu nai uke?

– Lenengo itzetik, ama, ez naiz alperkerian egon. Artzai baten morroi ibilli naiz. Torizkizu an irabazitako ontzako urreak. Oiek, nere partetik. Gazta eder au, berriz, artzaiak zuretzat eman dit.

– Motell, gorde itzik diru oiek iretzat.

– Ez, ama. Nik badakit bear dituzula. Osasuna eduki ezkeru, egingo det neretzako aña.

– Eskerrik asko, Praixku. Etzaizkidak gaizki etorriko. Ara-onera baabil, baña ez aiz amatzaz aztutzen.

– Azkeneko arnasa eman arte ez-ta aztuko ere, ni baño len ez bazera iltzen.

– Urrundik etorriko intzan. Zerbait artu naiko dek.

– Ezer gutxi. Gauza berexirik ez beñe-pein.

– I tripezai xamarra aiz. Nonbaitik aterako dit iretzako aña.

Zeukanetik oparo jarri zion, eta Praixku gizarajoak, apaldu bitartean, bai erantzun ere amaren galdera-erasoari.

– Baña, seme: nik atzo entzun nuena egia al dek? Eranegun Amezketan gizon bat il omen uala.

– Laxter iritxi dira ango berriak oneraño.

– Orduan egia dek ori?

– Nik, ama, ez det gizonik il. Ez daukat iñori txarrik egiteko asmorik ere.

– Epaille zikin ori! Ala jo ziteken bandua.

– Ez sinistu ezer ere, ama. Norbait galdu detala egiz ikasten badezu, aldeztu aurretik jakin nere burua babesteko izango dala. Igesi nabil, ta nik ere maite det nere askatasuna.

– Ondo zegok. Emen geratuko aiz noski lotarako.

– Ez, ama. Bereala joango naiz. Nork daki etxea zaintzen badute ere? Uste gabekorik ez det nai.

– Beldurrak begiak ernetu dizkik. Ez dek arrazoiaren paltik. Atzo emen nizkin bi gazte berritsu oiek. Ikaragarriak esan zizkidateken iregatik.

– Zergatik ez diozu epailleari salatzen?

– Epaillea irekin itxutua zegok, eta erria erabat utzia.

– Aizu, ama: San Migel'en ostalariak, an ikusi bainuen, zerbait esan zidan. Zer gertatu zaio nere arrebari?

– Enbor batek txikitu zioke bere nobioa.

Alare, bazebillek beste bat. Ez dit uste aldaketa orrekin asko galdu duenik.

Bere aparti-legea egin zuenean, benetan goseak baizegoen, amari musu bat emanta, ala esan zion:

– Zuk, ama, olakorik ez sinistu. Eta, al badet, iñoizka etorriko naiz.

– Orain nora joan bear dek? Noiz lotuko auten beldurak bizi nauk.

– Bai al dakit? Baña Euskalerritik urrun. Zuk urduri bizi zerala diozu? Ez daukazu nik biotzean daramadan inpernurik.

– Esaidak. Amak agian bazeukak orren sendagaia.

– Bego gaurkoz ixillean. Zuk otoi nere alde.

– Orrela ixten baaiz, zeñek lasaiturik ez dek izango.

– Ortarako dauden txapel luze oiek dituzte erru guziak, aitortu orduko, aurrean bialtzen naute-ta.

– Jesus! Deabruak al dituk? Edo i abil deabruak artua? Nik nere bizitza guztian ez dit olakorik arkitu. Beti maitasunez artu izan niotek.

– Baliteke zuk diozun ori egia izatea: ura ta ni deabruak gerala. Baña nik ez det zuk bezelako suerterik. Beti isekaz bialtzen naute –esanta, erten zan etxetik.

Oartu ziran Praixku etorria zala, ta zaitua zeukaten. Baña bertan geratuko zalakoan, lasai ibilli ziran, ta txoriak iges egin zien.

Itzaia, ordea, ausarta izaki ta andik osta-

tura joan zan. Bere ateetan Iñaxiorekin topo egin zuen.

– Kaixo, Iñaxio.

– Ongi etorri, Praixku. Gure epaille jaun ori, atsedetik gabe, i arrapatu nairik zebillek, eta i aurrean azaldu.

– Bai. Amari ikertxo bat egin ziot, eta nere lagun zaarrak agurtu gabe ez nitek jcan nai. Zer moduz emen?

– Betiko martxa. Ostalaria ta beste lagunen batzuk emen biltzen geranean, beti itzaz oroitu gabeko onik ez diagu.

– Beste batzuk ere oroitzen dituk. Baña txarrerako. Nere ama gaixoa beldurrak aidean zebilkitek ire bi anai gazteen oiek. Atzo arratsean ere, izugarriak esan ta izutua utzi omen ziteken. Baña iregatik ondo itzegin zidak.

– Bi edo iru bider esan zietek gurasoak. Sendi geienak ulertzen degula. Bat il zala ta bestea ere badakigula nola dabillen. Batez ere amari uzteko pakean. Baña alperrik dek oiekin.

– Ostalaria emen al dek?

– Bai, bai. Nonbait or barruan ibilliko dek.

– Agur, Iñaxio. Etzekit noiz arte.

Ta barrura sartu zan. Ostalariak, ikusi zueneko, beso zabalik etorri zitzaion.

– Kaixo, Praixku! Baneukaken irekin itz batzuk egiteko gogo. Egia al dek Amezketa alde ortan gizon bat il uala? Erri ontan banda ala jo baizuten.

– Ortaraño ere bai? Praixkuk ez dik oraindik bururik galdu. Lengoak ere naiko naigabeak ematen zizkidak. An ala zabaldu ziteken. Ikusitakoak ere bazirala. baña sendagillearen iritziz mozkorra zegoela, ta erorikoan arkaitza jo ta lepezurra autsi zuela. Emendik aurrera, iltzen diran guziak nere lana izango dituk. Ez ezer ere sinistu. Iñor iltzeko baño, salbatzeko asmo obeak zeukazkit. Alare, Iñaxioren bi anai gazte oiek sumindua nabilkitek. Atzo ere, amaren etxera joanta, izugarriak esan omen zizkioteken. Epailleak ezin bazuen nerekin, aiek garbituko niñutela. Etzekit oiek ez ote dabiltzan nere atzetik. Berak aterako dizkitek kontuak. Nere burua babestuko dit nik.

– Erdietan, bietan bat palta dek etxetik. Epailleak, berriz, gorroto txarra artu dik. Etzebiltzik ire arazoa besterik esku artean, eta ia okerragoak gertatzen ari dituk.

Auek izketan ari zirala, laxterka sartu zan Iñaxio:

– Praixku! Obe dek lenbailen aldegin. Lau udal-ertzain zetozek, eta seguru asko ire billa.

– Eskerrik asko, motell.

Eta ostalariak atzeko ate txiki batetik bialli zuen.

– Orain oiekin konpondu bearko dezute –esanez, joan zan itzaia.

– Praixku emen dagoela esan zigutek –bota zioten arpegira, agurtu ere gabe.

– Bai. Emen izan dala egia da. Baña zuek

etortzen ikusi zaituztenean, iges egin dik atzeko ate txikitik.

– Geronekoan Amezketa'n gizona il zuen bati salatu gabe joaten utzi?

– Gezur borobilla dek ori. Arek ez dik gizonik il, eta salatzalle-paltik ez daukazute. Bestela, nork esanta zatozte?

– Guk etzekiagu emen dagoela besterik. Denaren berri epailleari emango ziogu.

– Or konpon. Neri etzidak batere ajolik.

Urrengo egoartean goxoa azaldu zan epaillea.

– Gizon-iltzalle bat ostatura etorrira, ez diguk salatu.

– Len ere esan nizun ni ostalaria naizela, ta ez salatzallea.

– Espetxera eramango aut.

– Ara nere eskumuturrak. Etzerala ausartzen! Etzenduke aste au errian pasako. Bi edo iru txoro besterik ez da emen, ura salatu tuko lukenik.

– Orain egun batzuk gizona il dik arek Amezketa'n.

– Ez da egia. Erorikoan arria jota, burua autsi zuen, sendagillearen iritziz. Zuk, berriz, bandua jo erazi, erria aren aurka jartzeagatik. Eta, zemaika etorri zeran ezkerro, nik ere ala egingo dizut. Zuk orri gorroto gaitza artu diozu. Ez dezu besterik ikusten, eta aren izen ona galtzen ari zera. Bitartean, erri ontan ia okerragokoak ari dira gertatzen. Joxe Migelen bi anai gazteenak, ama ziraldoka botata, etxean sartu zitzaizkion eta Praixkuk aurrean

biali zituen. Eranegun-illunabarrean, ikaragarriak esan omen zizkioten amari. Zer erru dauka arek? Arrapatzen badezu itzaia, eman berea. Bitartean, zaitu erri au.

- Kontuz gero...

- Zer kontuz? Bestela bai zu gorago salatuko zaitugula.

Agurtu ere gabe aldegin zuen andik epailleak.

ALDERRAI

Bere pardeltxoak aizkora txikitik zintzilik, gau guzia ibillian igaro zuen. Baña etzan artzai-txabolara igo. Zeraman bidetik urrun geratzen baitzizaion.

Meta ondoetan lo egiñez, gaztain gordin ta erremoletx ta arbi-buruak janari, urrundu zan. Ikasi zuen gabezia bizitzen. Etzeukan odol-kolpe gaixto baten beldurrik. Erri ta bere bideetatik igesi zebillen.

Egun batzuen buruan, antzeman zion Euskalerritik atera zala. Lasaitu zan orduan, ta errira sartzeak etzuen ikaratzen. Amaika aldiz galdetzen zion bere buruari:

- Non ote nabil? Au ez dek Euskalerria. Emen etzegok an bezelako ezetasunik. Erri txiki auek suak erretakoak ziruditek. Baña

nere kezka madarikatu au ez dek Euskalerrian geratu. Au nerekin zebillek.

Aurrera, beti aurrera, erri txiki batera iritxi orduko, konbentu xaar bat ikusi zuen bere sarreran. Txuxenean ara joan zan.

Elizako atea zabalik zegoen. Txukun ta artzalle oietakoa iruditu zitzaion; eta, aurreko alkieta urbilduz, an belaunikatu zan, aldarean zegoen gurutzeari begira, malkoak zerizkiola. Ia etzan otoitz egitera ausartzen.

Ordurako, emakume bat an zebillen, kuadratik kuadrora belaunikatu ta zutituz, gurutz-bidea egiten noski.

Baña Praixkuk aurrera begiratzen zuen. An zegoen bere Jainkoa, gurutz batetik zintzilik eta besoak zabalik, odol-zerrendak arpegi eder artan beera. Oraindik bizirik zegoela zirudin; baña azken larrian.

Jesus norengatik zegoen oñazetan? Norengatik zijoan jainkozko odol ura arpegi atsegin artan beera, pekatariengatik ez bazan? Orduan, bere ordeko zeudenak zergatik etzioten barkatu nai?

Berak benetan sinisten zuen gizonak salbatzera zerutik etorria zala ta pekatariengatik zegoela gurutzean, damututa zetorkionari barkamena eskeñiz. Berari, ordea, etzioten barkatu nai. Aitortu orduko, aurrean bialtzen zuten. Noren izenean? Ez noski gurutzetik zintzilik zegoenarenean. Bera benetan zegoen damutua. Etzan, bestela, ainbeste aldiz aitortuko.

Odola ixuritako guziak ez bazeukaten

barkaziorik, amaikak joan bearko zuten txuxenean inpernura. Berak ebanjelioan ikasi zuenez, errex asko barkatzen zien gurutzean zegoen orrek, Jerusalem'go bideetan topatzen zituen pekatariei. Bera, berriz, Kain bezela zebillen ara-onera, denen igesi.

Oroipen auk buruan zebilzkila, sartu zan apaiza aitorlekuan, gurutz-bidea bukatu ta zai zegoen emakume otoilari arek deituta noski.

Bereala zutitu ta joan zan au. Ordubete igaro zuten. Zer esan bear ote zioten elkarri? Berak bi minutu aski zituen.

Amaika burutapen bazebiltzan Praixkuren buruan. Aukera oberik etzuen aurkituko. Al zuen ondoena preparatuta, bestea ateratzen zaneko zai zegoen. Noizbait, askezpena artuta, atera zan aitorlekitik.

Txuxenean an zuen Praixku ere. Apaiz atsegin bat zirudin. Bestela, aurrekoarekin etzuen ainbeste pazientzi edukiko. Baña airtortu zuenean:

- Kaixo, Praixku -agurtu zuen.
- Zer Praixku ta Praixku-ondo! Emaidazu askezpena!
- Pekatu orrek ez du barkaziorik.
- Demoniozko apaiza! Ortara etorri al zera onera?

Ta, bere amorruez, aitorleku ta guzi zili-purdika bota zuen.

Ezer gertatu ez balitz bezela, -len alakoak egiten oitua zeukatela zirudin-, serio-serio kanpora erten zan apaiza, Praixku gizarajoa

larritasunez erotua utzita. Baña zaldiaren anka-otsen antzekoak ziran apaizaren urratsak.

Emakumeak oiuka eraso zion:

– Astakilloa aleena zu! Jainkoaren ordeko bat lurrera bota?

– Ori ez da egundo izan Jainkoaren ordekoa. Deabru berbera da. Ez al dituzu orren anka-otsak entzuten?

– Zaldiaren anka-otsak bezelakoak ateratzen ditu, bai.

Ta zalantzan geratu zan.

– Ori ez dek apaiza, ta beti ori ateratzen zaidak. Ez nauk geiago aitortzera joango. Nere ontan aldegingo dit mundu ontatik. Barkaziorik merezi badet, Jainkoak entzungo al dizkik nere otoitzak.

Belauniko jarriz, ala zion gurutzeari:

– Urrikal zaitez nitzaz, Jauna! Urrikal zaitez!

Larritua, daldaraka, etzegoela artara bizitzerik, eta erotu baten antzera, bere burua galtzeko zorian atera zan elizatik, andik aurreraxeago baizijoan ibaia. Etzan, Kain bezela, denen igesi ibilliko.

Baña ertzera erten zanean, bat-batera, an ikusi zuenarekin, asmo txar aiek guziak uxatu zitzaizkion burutik.

– Ona emen nere bidea –zion berekiko–. Zertarako nere burua alperrik galdu? Bizitzari eman zaiodan bere gatza. Gaurtik aurrera, nere elburua denei on egitea izango dek.

Orrekin menderatuko dizkit nere etsai gu-
ziak.

Ortxe amabi bat urteko mutil gaztea zebi-
llen ibaian larri. Ur aundiak zetozen. Gai-
xoak bazekin igari; baña alperrik ziran aren
alegiñak. Indarra palta zitzaion; eta, eziñak
nekatuta, menderatzen ari zuen uraren
bultzadak. Erdira zeraman bazterrak jota ze-
torren zurrunbulluak, eta beti ibaian beera.

Ama gaixoa bakarrik, berriz, ibai ondoan
begira, eziñaren aurrean oiuka ta karraxika,
urera murgiltzeko zorian. Mutillak ere, «*¡So-
corro!*» eskatzen zuen.

Arlote xamarrak ziran noski. Alabak ba-
zituzten; baña seme bakarra. Amaren karra-
xira erten ta amarekin batera eraso zioten
aiek ere. Kupiragarria iruditu zitzaion ori
Praixkuri, eta xamurtu zitzaizkion barrenak,
ikuskizun triste aren aurrean. Ala zion bere
baitako:

– Maite duenik ez omen dala galtzen. Eta
nor dek, bere burua, Jainkoagatik, lagun ur-
koaren salbaziorako, ematen duenak baño
geiago maite duenik? Or itotzen banaiz ere,
lagun urkoa salbatzeagatik itoko nauk, eta
Jainkoak etzidak bere barkamenik ukatuko.

Igari ondo zekiena zan, txikitatik ikasia.
Ta, bi aldiz pentsatu gabe, –ortan segundo
baten okerra izan liteke beranduegi; ama-
alabak karraxika ari ziran beste aldetik, aiek
etzekiten an iñor bazebillenik–, murgil aundi
bat egin zuen. Ta, urpeko arrai bat bezela,
iñork ikusi gabe, arnasa artzera azalera azal-

du zanean, bere bizkar gañean artu zuen, segundo gutxiko bizia zeukan mutil koxkorra, la azkenetara etorria zegoen gaixoa.

– Jarri adi nere bizkar gañean, eta eutsi ondo bi eskuakin nere lepotik.

Orrela bizkarrean arturik, beste besarkada batzuekin, ama-alabak zoraturik begira zeudela, ertzero atera zuen. Amak lagundu zuen legorrera ertetzen. Ondoren, busti-bustia, atera Praixku.

Eskerrak beroenak emanez:

– Eskatu bear dezuna. Ez gera aberatsak, baña emango dizugu al deguna.

– Bego on egiña bere ortan. Ez det ogi koxkor bat beste saririk nai, aspaldi ontan erdi baraurik nabil-ta.

Itz auek entzun orduko, izutu zan ama. Bai Praixkuk antzeman ere, eta ala galdetu zien:

– Ogi koxkor bat eskatu detalako izutu al zerate?

– Ez. Orregatik ez. Egia garbi esango dizut. Komeni zaizu jakitea. Etzera gaixtoa, guretzat beñepein, gure seme bakarra, galdua zegoena, zuk salbatu diguzu-ta. Baña erri ontan zure beldurrak dago jendea.

– Ala jainkia! Nere beldurrak?

– Bai. *El terrible vasco* esaten dioten gizon aundi eder bat erri onen inguru xamar ikusi omen dute; ta, ura dabillen lekuan, ez omen da eriotzik palta. Agidanean, gaur goizean bat il omen du. Erri guzia zutik dago, non dabillen ikasten badute bidera ertetzeko.

– Eta nola dakizute ori ni naizela?

– Bere ezaugarriak eman dizkigutenez, berbera dirudizu.

– *El terrible vasco* izen gogorra jarri didazute. Bai; ni euskalduna naiz. Baña ez det batera bi lekutan egoteko doairik. Jaio ezkerro, oraintxe ordubete arte, ez naiz erri ontan sartu. Nola il bear nuen gizon ori? Emen, berriez, ikusi dezute nola bizia arraixkatu detan zure semea salbatzeko. Orregatik al naiz *el terrible vasco*? Ekatzu, ekatzu ogi koxkor ori; ta nik pakean utziko zaituztet, eta erri ontakoak ere bai.

Ogi eder bat eskura eman ez:

– Zoaz lasai Jaunaren pakean, etzaitugu salatuko-ta.

Opil ura eskuan ta agur egiñez, joan zan Praixku arriturik, atzetik begira zeuzkala. Baña zer pentsatua eman zioten, Euskalerritik kanpora ere bere berriak zabaldu zituztelako.

– *El terrible vasco*. Izen gozoa jarri didate.

Andik aurrera, zebillen lekuan iltzen ziranak, bere lanak izango ziran.

– Noan, noan emendik. Bestela, arrapatzen banaute, gaizki ibilliko niotek.

Eta, garai batean San Frantzisko bezela, erreka xior baten ondoan exerita, pakepakean an jan zuen opilla, erreka ur garbitik tragoxka batzuek edanez.

Eguzki ederra zegoen; ta, erropak legortuz itxogin-aldi bat egin ondoren, bere

jantziak txukatu zirala ikusi zuenean jantzi-ta, itxaropena ta etsipena bere barruan burruka zebiltzala, Santiago'rako bidea artu zuen.

ERROMES

Bizi-modu kaxkarra jarri zioten orratik Praixkuri. Apaizak biotzeko pakearen bideak itxi zizkioten. Orain, berriz, badaki bere urratsak norbaitek zelatatzen dizkiola.

Amezqueta'n gizon bat il zan ez-bearrez; berari ezarri. Ainbeste kilometro pasa ditu, Erdalerrian aurreraño sartuz. Norbaitek an ere gizona il du, ta berari ezarri diote. Erri artan azaltzerako, bazekiten bazetorrela.

El terrible vasco izen gaixto orrekin baitaiatu gañera. Bere askatasuna zaintzen naitako lanak izango ditu. Emakume arek esan dionez, badaki bere billa dabiltzala. Ta zer egin?

Egoitez ez da iñon biziko; beti ibillian, alderrai, Jainkoak deitzen dion arte.

Deabru ta gizonen igesi, Santiago'rako bidea artu zuen, erromes bezela.

Erri txiki aietatik igesi ibilli bearra zeukan, denean bere berriak izango zituzten onuzkero-ta.

Garai artan, batez ere udara aldean, erro-
mes asko joaten zan Europa aldetik Santia-
go'ra. Etorri aundia zeukan jendeak. Gaur
oraindik ezagutzen ditugu orduko bideak.
Ermita eta etxe ugari ere bazituzten jasoak.

Praixku, Euskalerra zear ibilli zanak, ja-
kingo zuen oien berri. Aietako batera er-
tean, ille-bizarrez josia ta makil aundi bat
eskuan iñork ezagutu etzezan, gizon ta de-
bruak bera galtzeko zebiltzala oroitzuz, eta
apaizak barkatuko ote zioten pozez, oroipen
auk berekin zebilzkila, bazijoan geldi-geldi
bere bidean. Alare, bere etxeko oroitzak
etzitzaizkion aztu.

– Nere ama gaixoa nola ote dabil? Zer ez
ote ditu entzuten? Ni emen orrela ikusiko
baniñu, negar egingo luke. Jainkoak eman
dezaidala, noanean, bizirik arkitzeko grazia.

Bere maiteak oroitzuz zijoala, aiton bakar-
ti bat aurkitu zuen. Ura ere erromes zijoana.
Makil ordez, gurutze aundi bat, eta dotore
jantzia. Zirudienez, etzan edozein. Baña kais-
kaildua ta eziñean zijoan.

Gure Praixku urrikaldu zitzaion, ura ala
ikusitu zuenean. Agure kankallu ederra, baña
bera baño ondotoz zaarragoa. Gaixo xamar
ote zebillen itxurak artu zizkion. Bidean ari
lagunduz on egiteko etzeukala aukera txarra-
ta, Santiago'rako bidea ere arek erakutsiko
ziola-ta, urbilduz ala itzezin zion:

– Jainkoak egun on.

– Baita zuri ere –erantzun aitonak, buru-
tik oñetaraño neurtuz.

- Santiago'ra erromes joango zera noski...
- Bai, adiskide. Ala nai nuke. Baña ez dakit iritxiko naizen. Oraindik xaarra ez bannaiz ere, gaixo xamar nabil.

- Ez larritu. Ni ere arako asmoan noa. Oraindik sasoi oneko ta osasuntsua, nik lagunduko dizut.

- Eskerrik asko. Rafael goi-aingerua ote zaitugu, Tobias'i bezela, neri bialia? Baña Tobias xaarraren jabe egin zera. Denean dira biotz onak. Zure laguntzarekin ziur nago iritxiko naizela. Zu bidean aurkitzea, ez da neretzat Jainkoak bialtzen didan grazi bat besterik. Ez dala nitzaz aztu.

- Zeren atzetik zabilta zu? -galdetu zion Praixkuk.

- Nik eraspen aundia diot Santiagori. Len ere bi txango egiñak baditut. Au irugarrena, ta azkenekoa noski. An aitortu ta jaunartuz, agurtu nai nuke Santiago betiko. Jakizu Alemani'tik natorrela. Baña ez dakit iritxiko naizen. Emen bazterren batean utzi bearko ditut nere ezurak.

- Zorionekoa zu. Ni erruki-eskari nator. Amaika aldiz aitortu arren, apaizak ez didate barkamenik ematen.

- Zuri lenengo entzuten dizut olakorik. Zer da, bada, barkaziorik merezi ez duen pekatu ori? Benetan arritzen nauzu.

- Eztabaida batean lotu giñan bi lagun. Arek laban zorrotz bat atera zidan. Ura mandazaia zan; ni, berriz, itzaia. Neraman akulluarekin, garrondoko bat eman nion ta

zerraldo illa erori zan, ortarako asmo txarrik gabe. Ainbeste aldiz aitortu arren, ori da barkatzen ez didaten pekatua. Geroztik emen nabilkizu, zer egin ez dakidala, deabruen, gizonen, Jainkoaren ta abereen igesi, Kain bezela, gizonen aurretik ezkutatzeko zoratzen, beti mintzo bat nere belarrietan: «Zertan abil orrela? Garbi zak bein ere burua ta kito. Bukatuko dituk betiko ire naigabe guziak». Il arte, nere kutizi ta atsegin guziei agur egiñez, on egitea erabaki det. Agian Jainkoa nitzaz urrikaldu liteke.

– Ori, adiskide, pekatu ote da gero? Nik ez det kristau moralik ikasi. Baña bere burua salbatzeko, ta nai ez duela gañera, gizona iltzea, nere iritzian, ez da pekatu. Batek nai ez duela, ezin lezake pekatu egin. Deabrua dabilkizu or tartean. Zuk on egin, esan dezun bezela. Lagundu ezin dutenei. Ta, oien alde bizia eskeñiz, ziur egon ziñezke, munduko apaiz guziak ukatzen badizute ere, Jainkoak barkatuko dizula. Ura bakarra baita gure obenak asketsi lezazkena. Arek, jakinña, ortarako baldintzak jarri dizkigu: apai-zak. Baña auek uko egiten badizute, jo zazu gorago: Jainkoarengana. Len esan dizudanez, Arek bakarrak barkatu lezazke gure pekatuak. Ainbeste aldiz aitortu zeranean, ezin gentzake esan damutu etzeranik. Ez gero itxaropenik galdu. Ez zure burua ondatzeko ere modurik egin. Eutsi biziari, Jainkoak deitzen zaitun arte. Ez da munduan, damutua dijoan pekatari bati askezpena emango

ez dion apaizik. Deabrua dabil or. Benetan damutua dagoenarentzat, errukitsua da Jaungoikoa. Bestela, zergatik gurutze batean ixuri zuen bere odola? Larogei ta emeretzi seguruan zeuzkanak baño poz geiago ematen zio-la galduta zebillen baten biurtzeak etzuen esan, bada, Jaunak? Gu salbatzearekin Jesussek irabazi egiten du. Ez baidira bere neke ta eriotza guretzat alperrikakoak izan. Pekatu egin gabekoentzat bakarrik bada, zerua utsa geratuko da. Zu aita baziña ta semetxóren batek lan txarren bat egin eta benetan damutua besoetara etorriko balitzaizu, merezi duen zigorra artzeko prest, etzenioke biotzbiotzez barkatuko?

– Bai, gizona, bai. Bestela, arrizkoa izan bearko luke batek.

– Umetxo orren joera berbera egiten degu guk ere. Gaixtoak izanik, pozik barkatuko bagenio, nola ez digu asketsiko, neurri gabeko errukitsua izanik, gure Jainkoak? Zenbat eta altsuago izan iseka egiten zaiona, ta egillea aulago, orduan ta aixago barkatzen dio altsuak aulari. Gañera, Jaungoikoak ez dauka zertan asketsirik. Munduko pekatu guziak barkatuak daude. Bere gurutzeko eriotzarekin, dena gañezka utzi zuen. Guk damutasunez artu bear degu, aukera ortatik, bear degun ordaña. Nai duenak, eskua luzatu besterik ez dauka. Jaungoikoak, gutako bat ondatuarekin, galdu egiten du, orrela itzegin bage-neza, beretzat egiñak geralako ta bere nekeak alperrikakoak egiten zaizkiolako.

Arrituta zegoen, ari entzuten, Praixku. Bai goxoak zirala, ari jaulkitzen zitzaizkion itz eta arrazoiak, bere biotz trinko ta naigabetuarentzat. Zergatik ez ote zuten apaizak pulpilotik orrela itzegiten? Inpernua, pekatua, zigorra, beldurra... Besterik etzuten sartzen pekatarien biotzetara. Jainko zigortzalle bat, maitasun ta errukirik gabea, erakusten zuten, Jupiter bezela beti tximistajario. Ta gurutzean gugatik il zana, ez alakoa izaki. Zuzena bai; baña beti errukibera, neurrik gabe maite gaituna.

Geldi-geldi, erromes xaar arek ezin zuen geiago, Praixkuren laguntzarekin iritxi zan erri baten sarreran zegoen lekaidetxe batera. Arakoan ta onerakoan, an igarotzen zuen arratsa. Orduan ere an kokatu ziran.

– Goazen, Praixku –izenez deitzen zion–, aurreko etxe aundi ortara. Ori lekaidetxea da. Biotz-biotzez artuko gaituzte.

– Nola dakizu ori?

– Or gelditzen naiz ni. Ori betiko leku jakina det. Erromesentzat aukeratutako gela berexi bat daukate. Gure etxera goaz, bada. Komeni zaigun apari beroa or emango digute.

– Aspaldi ontan ez det nik ere berorik artu. Ez litzaidake gaizki etorriko. Ni berria naiz. Artuko ote niñuteke?

– Kupirik gabe. Ez al dizut esan gure etxera goazela?

Ordurako illuna zan. Atean deitu orduko, an zegoen atezaia ta atsegiñez artu zituen.

Andik bereala, ur beroa ekarri zien, oñak garbitzeko. Lan au bukatu zutenean, beren apari-legea, baña beroa.

– Ongi etorri zaigu –zion Praixkuk.

– Jesukristo bera bezela artzen gaituzte beti etxe auetan.

Ondo apaldu ta arratsa guri-guri igaro ondoren, gosari txiki lege bat artu ta eskerrak emanenez, erten ziran bidean jarraitzeko.

Noizbait eta nolabait Santiago'ra urbildu ziranean, gure aitona, besoak zabalduz, agurtu zuen eliza, urrundik ikusi zuteneko.

– Nere itxaropen, zorion ta atsegiñen eliz ederra! Zoramenez nator zure barrura!

Ez bazion Praixkuk eutsi, an bertan eroriko zan auspezka.

Eliz aundi artara joan ziran txuxenean. Ango jendearen emana! Lurreko izkuntza guziak entzuten zituzten. Baita euskera ere. Baziran Euskalerritik joanak.

Praixku bezelakoak, zenbat ote zebiltzan an? Bai okerragoak ere noski. An aitortza on baten bitartez, beren biotzak lasaitu, kezka gaizto guziak uxatu ta orain eskerrak ematera, aitona ura bezela. Asko, berriz, gure itzaiaren antzera, pake billa.

– Bazeukak orratik oraindik jendeak sinismena, dena utzita urruti aietatik etortzeko –zion berekiko Praixkuk.

Sartu ziraneko, erromes xaarra auspez erori zan, eta luzaroan ala egon. Eskerrak itzaiari. Onak lagundu zion zutitzen. Eta,

txuxenean joanta, aitorleku aietako batean belaunikatu zan.

Aitortza bukatu zuenean, irripartsu, mundu ontan bizi ez balitz bezela biurtuta, une batean bere baitara bildua egon ondoren, ixil-ixilik, aopean, ala esan zion Praixkuri:

– Zoaz. Ikusiko dezu nolako atsegiña artuko dezun. Bai ona dala Jainkoa, benetan damutzen dan pekatari batentzat. Orain, nai duenean eraman nazala.

Aren pake ta atsegiñak suspertu zuten. Etsita beldurak eta daldaraka bazegoen ere, bada ez bada joan zan aitorlekura. Belauniko jarri ta aitortu zaneke:

– Kaixo, Praixku! –esan zion–. Oneraño etorri al aiz? Alper biaje ederra egin dek.

– Deabrua aleena! Apaiza izateko asko palta dek ik!

– Utikan, gizon-iltzalle ori! Odol-usaia dakark. Orrek etzeukak barkaziorik. Obe dek betiko etsi.

– Ez dit gaurtik aurrera enbarazorik emango. Bazekit deabruak ez dakila barkatzen.

Ainbesteraño itxutu zan, lepotik eldu ta aidean aitorlekutik atera zuen.

– Ori ez dek ire lekua! Inpernua dek ire bizi-tokia!

Zer gertatzen ote zan, denak bazter artara begiratu zuten. Lotsatua, etsia, daldaraka, bere aulkira joanta, zorabiotua zegoen lagunaren ondoan exeri zan.

Apaiza ere bai, bere zaldi-ots arekin, ezkutatu zan ixil-ixilik jende artean.

Praixkuren oiuaak iñork etzituen ulertu, euskeraz itzegin baizuen:

– Ori deabrua berbera dek; ez apaiza. Ez nauk geiago aitortuko. Jainkoak jakingo dik nerekin zer egin. Aren errukian jartzen dit nere itxaropena.

Erromes xaarraren ondora joan zaneko, au oartu zan izutua ta urduri zegoela, ta ala galdetu zion:

– Zer moduz, Praixku?

– Zer moduz diozu? Ez dakit nola ez dedan ito deabru ori. Iltzen ez dana izango da, bai, noski. Obe nuen ez banintzan joan. Sartu baño okerrago nator, betiko erantzuna artu baidet.

Alare, laguna alai ta zoriontsu ikusteak poztu zuen Praixku. Besteren onak atsegin ematen zion.

– Ori deabru berbera zan –itzaiak.

– Deabruak ezin lezake gizonaren biotzik paketu –erromesak.

– Orduan, aingeru ona ta gaixtoa bat eginta dabiliz, biak bizkarrez-bizkar. Zu aitortu zeranean, aingeru ona zegoen aurrez. Nere txandan, berriz, gaixtoa. Bestela, ezin liteke ori gertatu: neri uko ta zuri barkatu. Ez da arritzekoa nere onetatik ateratzea. Apaiz bat bera baigendun biok.

– Esaera zorrotzak badituzu.

– Zer esatea nai zenduke? Zu zeruan sartu zaitun apaizak, ni inpernu batean utzi

nau. Ez ote da neretzat ere mundu ontan poz ta atsegiñik?

– Emengo nekeak oso laburrak dira. Azken onak, orrek balio du. Eutsi zuk on egite ta itxaropenari. Or dago gure etorkizuna. Maite duenik ez baita galtzen.

– Ori ala da. Baña erantzun gaixto oiek nere onetatik ateratzen naute. Zer egin bear det nik orain? Au ez baida bizitzea. Nere gaztaroa galtzen ari naiz barkazio billa, ta gero ta okerrago uzten naute. Nora jo bear det? Azken onak balio duela, ori badakit. Baña bitartean etsipenean galtzen banaute? Zuretzat deabruak ez du indarrrik. Neretzat, berriz, aingeruak ez du. Nola ulertu liteke ori?

– Lasai zaitte, lasai. Gaiztoak zirikatuko zaitu txarrera. Baña ez kasorik egin, onak ere bultzatuko zaitu onera-ta. Jarrai orri. Ez al dituzu bien burrukak zure barruan nabaitzen?

– Apaiz batekin ez gera, bada, aitortu biok?

– Barkatu, Praixku. Orrentzat ez daukat erantzunik.

– Orduan zu ere deabruarekin aitortu zera?

– Ori ez. Arek ez daki pakea zer dan.

Erten ziran andik eta etxerako bidea artu zuten. Baña Praixkuk igerri zion etzeukala luzarorako bere laguna. Zorionak gañez egin zion eta aren biotz aulduak ezin zuen geiago.

Lekaidetxe artan eskatu zuten ostatua; ta, beti bezela, oso ondo artu zituzten.

– Bai pozik sartuko nintzakela ni emen –zion Praixkuk–, biotza paketua baneuka. Baña atsegin ordeztu, inperua ibilliko nuke nerekin.

Goizean atera nai zuen andik aitonak. Baña serbitu zien atezaiak deituta, nagusia bera etorri zan. Etzion joaten utzi.

– Agur orduan –esan zion Praixkuk esku emanetz–. Ni ama bakartiaren etxera noa.

Erromesak atera zuen bere poltsatik diru-mordoska bat:

– Torizu. Ez amarengana esku-utsik joan, orrenbeste merezi dezu-ta. Bestela, nik ez nuen txango au egingo.

– Ez naiz diruagatik ibilli.

– Ar zazu ori. Ez nabil eskaxian. Paltako banu ere, bialiko lidateke.

– Eskerrik asko.

– Ez zuk, ez. Nik eskerrik asko.

Aitona lekaidetxean utzita, etxerako bi-dea artu zuen.

AMAREN KEZKAK

Berari ondo etorri edo ez, denei on egitea erabakia zeukan.

Biotz mazala zeukan Praixkuk, ta bazekien ama kezka txarretan biziko zala. Oraindik noski etzan illa izango, sasoiko ta osa-

suntsua utzi zuen-ta. Iru urte aietan noski, semearen berririk gabe biziko zan.

Ikustera joateko garaia etorri zitzaion. Bere askatasuna arraixkuan jarriagatik, etzuen atzera egingo. Mundu ontan, amak ezik, nork maite zuen?

Askotan entzungo zituen bere semeagatik gaizki esaka: gizona il ta espetxetik igesi egiña zala; agian besteren batzuk il zituela ere bai noski.

Iritxi zanean, arratsaldea zan. Eguzkia sartzera zijoan. Bere ama zapi-langetan ikusi zuen, legortutako maindire txuriak biltzen.

Gizon kankallu ura, bizar ta illez estalia, makil aundi batekin, erromes-jantzian, beregana zetorrela oarturik, izutu zan ama. Zertara zetorren bere etxera garai artan?

Zearo burutik egiña zegoela iruditu zitzaion. Ez baizuen ezagutzen. Baña geldigeldi urbildu zanean:

– Arratsalde on, ama –agur egin zion.

Pixka batean begira egon zitzaion, ezin ezagaturik. Ama deitzeko, Praixku ote zan ura? Oraindik bere semeak berrogei urte etzitu, eta zaar-itxura aundia baizeukan artua. Tankera artan jantzia, berriz...

– Orren aldatua al nago, ama batek bere semea ez ezagutzeko? –zion Praixkuk.

Azkenean, abotsera ezagutu zuen. Beldur zan besteren bat iruzurtzera ez ote zitzaion etorri. Laxterka joan ta besarkatu ziran biak.

– Ator, ator barrura, seme! Aspaldian, ire berririk gabe, ez nenbilleken lasai. Ez il edo

bizi intzan. Erriko batzuk ez baiaute aztu. Auxe uste gabekoa! Bide oietan nekatu ta go-seak etorriko aiz, eta zerbait artuko dek.

– Ez dezu gauza aundirik bear neretzat. Ogi koxkor bat eta ur preskoa aski ditut. Ez du Praixkuk geiagoren bearrik.

– Erotu egin al aiz? Ez engoen i lenago ortara oitua. I ezin aserik ibiltzen niñun, ta orain ogi koxkor bat aski dekala?

– Lau egun auetan ez ditut bi erremoletx besterik jan.

– Mando biurtu al aiz? Zergatik ez aiz lau oñean etorri, garai bateko Nabukodonosor sonatu ura bezela? Aspaldian utsik zegok ukullua. An bazegok iretzat ainbat leku.

– Alperrikako tripazai batzuk gera askotan, ni orduan nintzan bezela; ta bear baño askoz geiago jaten degu. Bearrak, berriz, ugaritu egiten zaizkigu. Ni, aspaldian, ogi ta ur utsetik bizi naiz; eta, bidean billatzen ditudan igaliren batzuk janez, ez nago ain eroria ta auldua. Jakiña, ortarako ez det diru bearrik. Errietara ere ezin sartu ninteke. Denean badakite nere berri. *El terrible vasco* jarri di-date izena. Etsairen bat badet. Ni nora, ura ere ara.

– Ori dana, bearbada, egia izango dek. Baña ez daukak lotsik ere. Erremoletxa janta bizi aizela? Edorrek eñan gabe ere, ez dek begiratuan ezagutzen zalla, aldaketa ikaragarria egin dekala. Asto batek bezela daukak ille ta bizarra. Len, txukun jantzia, mutil bikaña intzan. Erri ontan zan ederrena bai noski,

ama batek esateko etzegok ondo baña, neskatxen begiak iregan itula. Orain, eltze konpontzen ibiltzen dan ijito ori baño baldarra goa ago. Zearo alperkeriari emana, lanik ez egiteagatik goseak, zikin-zikiña, Basajaun berbera dirudik. Mandoa botako luken usaia dabilkik, gain-jantzi zikin ori estalgarri jarrita. Ikusi nai nitek barru alde ori nola ote daukaken. Zorriz josia noski. Berrogei urtez beerakoa aizelarik, irurogeitik goragokoa dirudik. Gero, makil aundi orrekin, baratzan txoriak izutzeko aproposa. Ero-aize auek nondik sortu zaizkik?

Praixkuk, bere kezka guzien gañetik, par egiten zuen, amaren ateraldiak entzunik; eta ala erantzun zion:

– Egi batzuen artean, amaika gezur bota dizkidazu. Ni ez nabil alperkerian; eta, egia jakin dezazun, torizkizu ontzako urre auek.

– Nondik atera dituk?

– Nere lanetik.

– Eskerrik asko, motell. Etzaizkidak gaizki etorriko. Urte batzutarako bazeukat naikoa. Nitzaz oroitzen aiz orratik.

– Alare, ama, nere antzeko asko dabil bide oietan. Oiek denak eroak ote dira?

– Zalantzik gabe, eroak eta alperrak.

Sukaldera sartu ziran biak; eta, maitasunak eraginda, egundoko apari on ta oparoa jarri zuen amak. Bai Praixkuk zoramenez irentsi ere ezurak ez bestek.

– Goxoa al zegoken? –galdetu zion.

– Ezin ukatu. Lau urte auetan ez det olako aparirik egin.

– Ogi koxkor batekin mantentzeko ona ago i. Badakik zer apari egin dekan? Lau gizonak aña jan dek bakarrik. Gezurra zirudik, lan egin baño, goseak ibilli naiago izatea. Gaur ez lertzezkeroz, altzairuzkoa aiz.

– Dana dala, eskerrik asko, ama. Lau urte auetan ni olaxe bizi naiz: eskean biltzen nuen pixarretik jan, beti erritik iges, noiz arrapatuko nauten bildurrak...

– Sasoirik oneneko nere semea eskean? Lotsa ematen didak.

Alaxe, su ondoan exerita, lau urte aietako gora-beerak kontatu zizkion. Baña etzion bere biotzean zeraman inpernuaren berririk eman, ama geiegi ez naigabetzeagatik. Orregatik aldegin zuen, eta ez du pakerik aurkitu.

Ala erantzun zion amak:

– Lotsagabea aleena! Ire adiñik onenean alperkeriari emango ion, bada? Ezin burutu dituztelako, iñon artu nai ez dituzten alde-rrai nagi oiekin bat eginta abil. Lanik ez egi-teagatik eskean, besteren bizkar biziz, ire bu-rua txukuntzeko ere ez aiz gauza-ta.

– Ez dezu ortan arrazoirik, ama. Batzuk, ezkontzeko deia izaten dute ta ezkondu egi-ten dira, beren askatasuna betiko galduz. Beste batzuk, apaiz. Dena utzi ta konben-tuan sartzen diranak ere badira. Mutil zaar ugari ikusten degu bazterretan, besteren se-meak ezin azirik. Nik, berriz, bizi-bide au aukeratu det, Frantzisko Deuna ta oien

antzeko santurik sonatuenak bezela. Aske-
askeak egin baigiñun Jainkoak. Nai duen bi-
detik joaten da bat. Denetatik iritxi liteke
Erroma'ra, zerura alegia. Bide auek denak
zuzenak dira, Jainkoaren aginduak beteaz ta
urko lagunak maitatuz igarotzen baditu.

– Lanari iges egiteagatik, zer asmatzen
duen batek! Ik aipatu dituken bide oiek de-
nak lanpekoak dituk. Ortatik bizi bear dik
gizonak, eta ez besteak egiña zurrupatuz.
«Ere kopeteko izerdiz oretuko dek jango de-
kan ogia» esan zioken Adani Jainkoak. Ezer
gutxi zekit. Baña ez dit uste alper ta nagirik
zeruan sartuko danik. Gizona gizon danak
sortu egin bear dik; ez bestek egiña txautu.
Nor dituk ire urko lagun oiek?

– Denak.

– Ez dik itxurik. Ni ez al nauk urko lagu-
na? Baita geixeago ere: ire ama. Baña bakar-
bakarrik utzia naukak.

– Zuk badauzkazu seme-alaba geiago.

– Ire itzetatik galtzen aut. Jainkoak aske-
askea egin duela gizona. Ori ez dit ukatuko.
Baña aiek ere ala izango dituk: askeak. Zer-
gatik ez dek errespetatzen, irea bezela, aiena
ere? Eure egin bearretarako lotu nai dituk,
eta zamak beste astoari bota, i aske geratze-
ko. Ori bada ire ero-aldia, urteak badituk eta
abil nai dekan eran. Alare ondo gogoan ar-
zak amaren arrazoi au. Ez dala, lan egin le-
zaken alperrik, besteren bizkar bizita, zeruan
sartuko. Ori dek nere iritzi apala. Ori bada
ire gogoia, joan adi. Laxter ezkonduko dan

alaba ekarriko dit etxera. Berdin, bizi diran lekuan, gaizki zebiltzak nagusi kaxkar arekin. Au, berriz, nereak dek. Ire itxaropenetan ez nauk alperrik egon. Utzi zaiogun berriketa oni, Jainkoak noizbait gurea eskatuko ziguk-eta.

Praixkuk antzeman zion, semearen joeraz ama oso naigabetua zegoela ta benetan eraso ziola, ta berari ere min pixar bat eman zioten aren itzak.

– Ama, barkatu erantzuna, Baña memori kaxkarra daukazu eta oso oker epaitzen nauzu. Ez da egia zuk diozuna. Nere atsegin guzia etzan besterik: emaztetxo bat ekarri etxera, billoba txikiren batzukin zure bakardadea pozteko. Baña zoritxarrez gertatu zitzaidana, aztu egin al zaizu? Biotza korapillatzen dit gaur oraindik oroitze utsak. Arek moztu zituen nere amets guziak. Espetxeratu niñuten. Oso berri txarrak zetozen ara. Etzuten egirik sinisten; ta, zigor ikaragarriren bat ezarriko zidaten beldurrak, zedorrek aolku emanta, iges egin nuen. Geroztik ez naiz iñongo erritan sartu. Beti mendi ta baserrietan nabil. Nere berri ikasiko balute, gañean nituzke ertzain guziak. Arkumetxo bat iltzeko biotzik ez, ta Kastilla aldeko erri txiki oietan *el terrible vasco* esaten omen didate. Bide oietan egiten dituzten eriotz guziak, nere bizkar geratzen dira. Ni ezin nindeke, bada, etxe ontan bizi ta zure jabe egin. Orretxegatik nabil bizar ta illez josia ta nabillen bezela, ezagutu ez nazaten. Arraixku gaixtoan

etorria naiz zu ikustera, benetan maite zaitudalako. Ez dezu, bada, zure semea luzaroan espetxean edo agaren batetik zintzilik urkatzen ikusi naiko. Nerekin daramat, ama, ixil-ixilik gurutze astun ori. Ordu beteko segurantzirik gabe nabil.

– Ago ixilik. Naigabetua nengoken, baña barkatu. Arrazoi osoa daukak. I aiz lenengo.

– Orixe bakarra da egia, ama. Ondamendi aundiren batzuk egin dituzten pixti batzuen antzera, denen igesi ibilli bearra daukat, Jainkoak naraman arte. Ez nuke beste eriotzik egin nai. Lengoak naiko nekeak ematen dizkit, erri guzietan ni, bizirik edo illa, arrapatzeko bandua joa dago-ta.

Biak beren baitan bilduak geratu ziran, ixil-ixilik.

ARRAIA PASA TA GERO SAREA

– Lotarako emen geratuko aiz noski?

– Bai. Baña alde z aurretik iges-bidea jarrita.

– Beldurrak aidean baabil, ez daukak bizi-modu ederra.

– Alaxe nabil ni. Erri batera inguratzera-ko, badakite *el terrible vasco* an dabillela, ta ez daukat erri artan sartzerik. Baña dana

dala edo diranak dirala, ez dute neri aurpegi emateko ausardirik.

– Noren susmurra egiten dek?

– Joxe Migelen bi anai gazte oiek zer egiten dute?

– Orixe etzekit. Gazteena emen zebillek. Baña bestea ez dit ikusten. Epaillearen oso adiskideak dirala bai, ori bazekit.

– Or dago nere beldurra. Ni arrapatu baño len, norbaitek pagatuko du larrutik. Ez naiz umil-umil makurtuko, eta ori ez nuke nai.

– Lengo etxe atzeko komon zaar ori or zegok. Beetik orma eroria zeukak. Iru metroko jauzia, geienera jota ere. Zintzilik jartzen baaiz, lurra oñakin joko dek.

Goiz aldera norbaitek atea jo zuen. Ama jeiki baño len, bai Praixkuk leiotik ikusi ere, ta komon artatik iges egin zuen.

Amarekin etxea aztertzen ari ziran bitartean, txuxenean kanposantura joan zan. Bidean bildutako lore batzuk jarri zituen Joxe Migelen illobi gañean.

– Agur, Joxe Migel, nere lagun maitea intzana ta uste gabe neronek illa. Ezeren trabarik badaukak atsedenean sartzeko, beude nere naigabeak, ezertarako balio badute beintzat.

Aitagure bat errezatu ta atera zan, bere erromeri-jantzi ta makil aundi ura eskuan, bera lotzeko bandua joa zegoen errian barrerna, ikusten zuen guziari oiuegiñez:

– Adiskide: lagun urkorik maite badezu,

otoi nere alde, nora-ezean dabillen pekatari ontaz urrikal dedin Jainkoa. Denen eskutik utzia bainabil.

Bideko autsa atzaparka artuta, burutik beera botatzen zuen.

– Burutik egiña zebillek ori –ta par egiten zioten batzuk.

Beste askok ez, ordea. Baziran oso bestela pentsatzen zutenak. Promesen bat egin ta ura bete gabea il zan anima gaixoren bat zala, penetan zebillena; ta, berak ezin zuen ezkerro, bitartekoren baten bearra zeukala, atsedenean sartzeko.

Baziran errian bat baño geiago, batez ere emakumezkoak, aren alde mezak atera zituztenak.

Amak, etxea aztertu ondoren, biali ziotuen.

Bere semea ogi koxkor bat ere artu gabe joan zan. Agurtzeko betik ere etzuen izan. Len bazter guziak irentsi bear zituenak, txantxangorri batek aña etzuen jaten orain.

– Orrela luzaroan ezin lezake iraun.

Laxter semea auleriak ondatuko ziolako, naigabetua geratu zan.

Bai tristea dala gizon batentzat orrela bizi bearra. Denen igesi, beti bakarrik bizi, lagunik maiteenak salatuko duen beldurrak; dijoan lekura dijoala, beti gizartetik urrun; bizirik edo illa, ikusten duten lekuan, ura arrapatzeko agindua.

Etxea utzita, meza entzuteko aitzakitan,

kalera erten zan ama. Len naigabetua baze-
goen, ikusi zuenak etzion asko arindu.

Artza edo Basajaun baten itxuran, bere
semea, ezagutuko zuten beldurrik gabe,
errian barrena oiuka zijoala somatu zuen.
Biotza oñetaraño erori zitzaion.

– Nere semea zearo erotua zegok.

Eta, arekin topo ez egiteagatik, elizara
sartu zan, bere naigabeak Jainkoaren oñetan
jarri ta aren alde otoi egitera.

Praixku, txakur batzuk atzetik zaunkaka
zituela igaro zan, iñork ezagutu gabe.

Nork pentsatu bear zuen, gazte arek arta-
raño erori bear zuenik? Baña itzaia etzegoen
burutik joana. Bazekin ederki asko zer egiten
zuen. Ari batzuk par egingo zioten. Berak,
ordea, denei. Arrapatu nai zutenen sudurre-
tan barrena igaro zan, eta etzuten ezagutu.

Polliki-polliki, arrapatzen zuena janez,
iritxi zan, agure xaarra gaixo utzi zuen kon-
benturaño.

Orduko atezaiak oso ondo artu zuen; eta,
oitura zeukaten bezela, bere apari-legea
eman zioten, eta an geratu zan ostatuz.

Gaixo utzitako aitona xar arek zer egin
zuen galdetu zion.

Egun batzuk an pasa zituela. Bere zora-
men ura igaro zitzaionean, zerbait suspertu-
ta, betiko agurtuz, bere erri aldera joan zala,
Alemani'ra, angoa zala-ta.

– Iritxi ote zan gero ura etxeraño?

– Baietz, baietz. Erromesak konbentutik
konbentura ibiltzen zirala, ta denetan ondo

zainduko zutela. Etzeukala bide luze ori ezin egiñik.

Goizean, abiarakoan, nagusia etorri zitzaion eskari:

– Pralle gutxi gaude, ta geienak gaixo. Kolera zikin ori sartu zitzaigun. Baña oraintxe, batzuk aurrean eraman baditu ere, pasa da. Ez bazaizu beñepein gaizki iruditzen, naiago genuke emen geratuko baziña, martxa pixka bat jarri artean. Orduan, nai dezuna egin, aske geratuko ziñake.

– Ni, jauna, pozik. Zerok esango didazute noiz arte.

An geratu erazi zuten gure Praixku. Beretzat zerua zan ura, ez balitu kezka gaixto aiek berekin ibilli.

PRALLETEGIAN

Nagusi jaunak artu zuen berekin, ta erakutsi zion bere bizi-lekua, konbentutik kanpora. Etzekiten nor zan. Etxean bazebillen, kutsatzeko beldurra zeukan.

– Nola dezu izena?

– Nik Praixku, jauna.

– Ona emen zure lekua. Etxean sartzen bazaitugu, agian kutsatu egingo ziñake.

– Nik, jauna, ez daukat kutsu-bildurrik.

Gero, baratz ta itxiturako barrunbe gu-
ziak erakutsi zizkion.

– Au dena zure esku geratuko da.

– Jardunean-jardunean, txukunduko det
nik au. Etxean bear dana baño geiago atera
ere bai nik emendik.

– Ez dezu, bada, egon bearrik izango.

Txerritokiraño nagusiak ekarri zuen, ta
an geratu zan. Bereala ekarri zion txerri-
zaitzalleak gosaria, baño beroa. Antxe bertan
jan zuen. Ajola zion ari, aietako batetzat ar-
tzen bazuten ere.

Ille-bizarrak moztu zituen eta txukundu
zan.

– Zer esango ote luke orain nere amak?
Alperra naizela? Pakean uzten badidate, nor-
baitek igerriko dio etxe ontan badala gizonen
bat langillea. Lan auek egiteko ona ni emen.

Ta etzuela mantenua besterik nai.

Amaren arrazoiak kezketan utzi zuten.
Alperrik etzala zeruan sartuko. Orregatik ze-
billen lantegi baten billa, ta urkoari on egite-
ko ere etzitzaion gaizki etorriko.

Txerri-zaia txalkor txiki bat zan. Bereala
egin ziran lagun.

Laxter artu zituen aizkora ta soka, ta
egurketan asi. Ekarri ala, txikitu. Izerdi-
patsetan ikusi zuen nagusiak batean, ta arri-
tuta geratu zan gizaki aren aurrean:

– Zu al zera Praixku?

– Bai, jauna, bai.

– Beste bat dirudizu.

Aldatzeko erropa garbiak eman zizkion.

Etzan asarre, ez, prallea ere. Astea bete baño len, urte guzirako naiko egurra pillatua zeukan, neguaren sarrera zalako.

Baratza berdin ta zabala zeukan; ordeka oso. Baña utzi xamarra, lengo baratza-zaia illa zan-ta. Izurrite ura igaro-zai zeuden, berria ekartzeko.

Praixkuk, nagusia etorri zan batean, lanerako erremientak eskatu zituen. Baita ekarri ere atxur ta laiak. Txukundu zuen baratz guzia. Urtea joaterako, etxean bear zuten barazkirik geiena andik zetorren. Ara eguzki artzera joaten ziran pralleak, txoraturik geratzen ziran.

– Nor dala esango zenuteke ori? Bi gizonek aña lan egiten du orrek bakarrik.

– Ez dakigu nor dan. Baña ez da gizon alperra. Legorpe guziak egur txikituz bete dizkigu. Baratza egundo ez bezela antolatu. Nik nere partetik ez nuke gizon au konbentutik bialiko. Asko balio du lanerako.

– Mantenurako ez du, bada, askoren bearrrik.

– Norbait il da igesi etorria izan liteke.

– Utziozu pakean gizonari. Ori ez da gure egitekoa. Lan bikaña egin digu beñe-pein. Beste ori gero pentsatuko degu –zion nagusiak.

– Nola? Gu eziñean gabiltzan arte, duen guzia emandako gizona Justiziari saldu? Kristau legea al da ori? –zion batek–. Ertzaiñen eginkizuna da ori. Billa dezatela. Baña ezin gentzake Judasena egin. Nik agindu

bear banu beñepein, bertan utziko nuke. Jarrai dezala ta, joan nai badu, dijoala emendik; baña aske.

– Norbait il badu ere bai?

– Zer dakigu orren berri? Iñork edo berak zerbait esan al du?

– Ez. Onengatik ez digu iñork ez onik ta ez txarrik kontatu.

– Orduan zertan ari zera, gero ta usai txarragoa botatzen duen zure susmo gaixto ori zabaltzen? Lan oiek guziak egin ondoren Justiziarri saldu? Zaude ixilik.

Urte ta erdi zeramazkin. Baso ura garbitu ta ikatz egitea oroitu zitzaion. Baratza-zai berria etorria baizan. Nagusiaren baimenarekin, dena mudarratu ta egundoko pagotapillak egin zituen. Ondoren, txondorak jasotzen asi, bat bestearen urren. Orrela, esandako lekuan pillatzen zituen, andik saltzera eramateko. Etxerako geiegi zala-ta, basoa garbituz gañera, ikatz egin.

Noiznai joaten zitzaion nagusia ikusi bat egitera, ta arrituta geratzen zan.

– Zuk non ikasi zenduen ikazkintzan?

– Ortan obeto dakigu maisutzan baño. Txikitatik asi nintzan, ikastetxeak utzita. Beartsuaren legea ori baita. Ama gazterik alargundu zan; ta, biziko bagiñan, txutik ikasi orduko, an ta emen lanean asi bear. Gogozkoa det gañera nik lantegi au. Inguru artan zan txondor-piztalerik onena nintzan. Lan neketsu ta zalla; baña «gustoko lanean

nekerik ez» esan oi da. Neri ori gertatzen zait. Ez diot egundo lanari atzerik eman.

– Jarrai, jarrai ontan! Etixerako geiegi egiten diguzu. Baña saldu nai ta ere, ez degu erostunaren paltik. Ezin susperturik ari gero nontzat, ez dator gaizki.

BERRIRO ESPETXEAN

Bixta ona ta ezin ikusi. Ori da askoren pekatua: bekaizkeria.

Txerriketari txalkor txikia oitua zegoen nagusiaren loxintxak eta goratzarreak artzen, umetxo bat bezela. Pulamentu geiagorik etzeukan on egiteko; txarrerako bai noski. Bera prallea ez bazan ere, lañezaz betea zegoen aien artean.

Praixku etorri zanean, ordea, arek alako amar balio zuen onek, eta txalkor txikia baztarrera utzi ta denak onen eder egiten zuten. Ori ezin zuen eraman gure txerriketariak. Beldurrak zegoen gañera, baratza-zai berria etorri zanean, bera kendu ta bere lekuan itzaia jarriko ote zuten. Iñondik iñora galdu nai zuen ura. Bixta ona ta ezin ikusi.

Arratsalde batean entzun zuen ango pralleen elkar-izketa: gizon ura izan zitekela norbait il ta ezkutura etorria.

Bazekin, erri txiki artan berak entzuna, nola gizon bat il ta espetxetik igesi egindakoa, oso gaiztoa, gizaseme sasoiko aundi eder bat zala ori, *el terrible vasco* esaten ziotela. Ura zebillen inguruan, beti bazala eriotzen bat. Bere jaioterrian Praixku esaten ziotela.

Zalantzik gabe, ura zan. Ematen zituzten ezaugarri guziak ondo zetozkion. Konbentu artatik bota nai zuen, bada, ura, ta epaillea-rengana joan zan.

El terrible vasco ori bazekila arek non zegoen.

– Benetan diozu ori?

– Bai, jauna, bai. Elkarrekin lan egiten degu konbentuan.

– Konbentuan nola artu lezateke olako bat?

– Ez-jakiñean. Aiek ez dakite *el terrible vasco*’rik badan ere. Aiek konbentuan bizi dira, ta ez errian.

– Gizon ori ez dago aske uzterik, ori dabilen lekuan beti eriotzen bat bai omen da-ta. Ez al du or olakorik egiten?

– Ez, ez. Zuzen dabil. Langillea da. Pralleak asko maite dute.

– Bai. Olakoak baidira. Begiratuan iñork ez ditu ezagutuko. Baña gutxiena uste danean, *zapla!*

– Iru bat urte badaramazki konbentuan.

– Inguru-erri auetako ertzaiñak orren bila, ta ori ia gure etxean, ezkutuan. Non ta pralletegian gañera. Nagusiarekin itzegin bearko degu.

– Pralleak asko maite dute. Nagusiak noski geiena. Ortik asten bazera, norbaitek esango dio, ta orrek anka egingo du.

– Kanpora ateratzen al da?

– Etorri ezkerro, nik dakidala, ez da atera.

– Arratsean egingo ditu txangoak, eta iskanbillik gabe. Nola arrapatu liteke?

– Aixa. Ni olako lekutan egongo naiz, eta datozela ara ertzaiñak. Baña gutxieneko lau, gizon gogorra da ura-ta. Nik eramango ditut, konbentuan sartu gabe, itxiturako orman dagoen ate batetik. Andik aurrerakoa, zuen esku.

Badirudi billaukeri ori Judasi ikasi ziola. Berdin-berdin egin zuen arek ere.

Esandako orduan an ziran ertzaiñak. Ate artatik sartu erazi zituen, ta Praixku lo zegoen lekura eraman. Ez baizuten auek konbentuan lo egiten. Bera, berriz, ixil-ixilik lotara joan zan, lan on bat egin balu bezela.

Atea kanpotik aixa irikitzen zan. Maratil kaxkar bat zeukan eta zabaldu zuten, Praixkuren arpegira argia zuzenduz.

Jauzi batean aidatu zan Praixku oietik. Baña aurrean lau ertzain ikusi zituen, ondo armatuak. Etzegoen ezer egiterik.

– Zertara zatozte?

– Zu baitu ta eramatera.

– Eta nork salatu ta erakutsi dizute bi-dea?

– Ori bego guretzat.

Pralleak ezin zitezkean izan. Barru artan

bakarra zan ori egingo zukeana: bere aldameneko txalkorra.

– Ez dezu noski gogor egiterik pentsatuko.

– Ez. Ez naiz orren txoroa. Agian egokiera obeak etorriko zaizkit.

Lotuta kanpora zeramatela, txalkor txikiaren gelako ateari ostiko bat eman zion. Bai onek karraxi bat egin ta jauzi egin ere, Praixku barrura zetorrelakoan.

– Ni naizela esan ote diote?

Kanpora atera zutenean, txalkor txikiak atea itxi zuen kontuz-kontuz, bazterren bate-tik Praixku azalduko zitzaiolakoan beldu-rak.

Urrengo goizean etzan Praixkurik azaldu. Baña txalkor txikiak eramane zion gosaria. Gaixtoak baiditu milla malezi. Atea zabaldu ta an ikusi etzuenean, nagusiari abisatu zion, Praixku etzegoela etxean.

Nagusiak etzuen aintzakoz artu. Etzan batere arritu. Bazekin luzatu gabe joango zala. Baña naigabetu zan, ainbeste lan eginta sari koxkor bat artu gabe aldegitea. Agian arratsaldeko elkar-izketa entzungo zuen; ta, beranduegi izan baño len, ixil-ixilik aldegin.

Beste pralleak ere benetan naigabetu ziran.

AUZITEGIAN

Bere erriko epailleari albiste bat biali zioten: Praixku, *el terrible vasco*, arrapatu zutela, ta mesedez erriko bere txeetasunak bialtzeko. Poztu zan. Espetxetik iges egin zuelako gorroto pixar bat bazion ere, etzuen deabru baten antzekoa agertu:

Gizon paketsu, langille ta atsegiña zala; erriak benetan maite zuena; baña bein, eztabaida batean, bere burua salbatzeko, eskuan zeraman akulluarekin jota, gizon bat il zuela ostatuan. Berak aitortu ere nola gertatu zan. Espetxean zegoen lekutik gero iges egin zuela, bertako zaitzallea lotuta utzirik. Erri artan egin zuela eriotza, ta epaitzea ere bertakoari tokatzen zitzaioa.

Baña etzioten eskari au aintzakoz artu. Beste iru edo lauren eriotza ere ezartzen ziotela-ta, erantzun gabe utzi zuten.

Gure *el terrible vasco* espetxean zeukaten, beraz. Konbentuan txalkor txikiak bestek etzekin ori.

Gizarajoa etzegoen artara bizitzen oitua. Gela batean bakar-bakarrik; beti pentsamentu bat buruan eta ezin kendu; gau ta egun arek zapaldua; lagun arterik ez; eriotz-larria; bere ixillean lan egingo zutela; salatzallea etzala lo egongo...

Noizbait auzitegira deitu zuten.

– Oraintxe bai gorriak dauzkadala ikustekoak. Izan ere, ero-ero ibilli nauk.

Alperrikako negarrak ziran. Besteak ma-lezi geiago baizeukan. Ederki arrapatu zuten. Orain saretik nola iges egin? Ori zeukan asmatu bearra. Al bazuen beñepein, andik al-degin bear, onean edo txarrean. Bestela iltzen il. Igertzen zion, alare, iñoizka biotzak ximiko egiten ziola. Ez; kale gorrian, aga batetik zintzilik, etzuten odol otzean, aizeari ostikoka parregarri, jendearen aurrean ilko, eguerdi-eguerdian, arra erdiko mingaña aotik kanpora zeukala gañera.

Iges egin edo iltzen il. Etzuten arkume bat bezela ibilliko, erru gabea zan-ta. Baña nola iritxi ori? Zainduko zuten gau ta egun, katamotz bat bezela, berriz igesirik etzezan egin.

– Ai, Praixku, Praixku! Ire on-egiteak ez ditek mundu ontarako aurrerapen aundirik ekarri. Bestean sarituko auten itxaropenik ez, berriz. Etorkizun beltza zegok neretzat beñe-pein. Ni gaizki ibilliko niotek. Baña lenago norbaiti lepoa biurtuko ziot.

Bi otordu, nolako-alakoak, ematen zizkioten. Etzegoen asko jaten oitua. Geldi artan, gañera, etzuen geiagoren bearrik.

Egun batzuk bazeramazkian. Egoarte batean, epaillearengana deitu zuten, lotua ta ortzetaraño armatuak zeuden lau ertzaiñen erdian.

– Edozeiñek iges egiten dik auen artetik!

Alare, ango ate, jendearen ibillera ta txee-tasun guziei ondo begiratzen zien.

Zorrotz artu zuen epailleak. Salaketa gogorak egin baitzizkioten. Lenengo, bere izen-abizenak eskatu zizkion:

– Frantzisko Pagaortondoa Zabalbeas-koetxea.

– Abizen auk ez dituk españolak.

– Ez noski.

– Alemana aiz orduan?

– Ez naiz alemana.

– Nongoa aiz, bada, i?

– Ni, Euskalerrikoa. *El terrible vasco* deitzen ez didazute, bada?

– Española orduan. Baña abizen auk ez dituk españolak.

– Ez noski. Len ere garbi-garbi esan dizut euskalduna naizela.

– Dana dala, esaizkidak berriro ire izen-abizenak eta nongoa aizen.

– Frantzisko Pagaortondoa Zabalbeas-koetxea, Gaintxurizketa, Irun.

– Nolabait idatzi zituen. Berak jakingo zuen nola.

– Len bi lagun ibiltzen ziñaten. Non galdu uan ura?

– Gaixo zegoela-ta, konbentuan geratu zan. Ango pralleak erantzungo dute ondoena.

– Egia al dek Justiziaren igesi abillela?

– Bai. Egia da. Baña onuzkero badakizu, andik abisatuta, nik bezin ondo, an gertatu zanaren berri.

– Ondo zegok. Arazo auen berri ikastean, deituko aut berriro.

Ta, ekarri bezela, ondo lotua ta zaindua, eramán zuten lengo lekura. Alare, ondo neurtzen zituen an zebiltzanen atzera-aurrerak.

Olaxe geratu zan, bada, Praixku: askeaskea zana, Judasen salkeriz baitu ta etorkizunaz kezkatua.

Iru bat illabete zeramazkin gela estu artan, bere asmoak egosten eta zai, epailleak noiz deituko.

Baña bere osasuna gainbera zijoala antzeman zion. Euskalerriko aritzak baño gogorragoko gazte bikain arek, oraindik berrogei urtez beerakoa, etzuen lengo erdirik balio. Bai-baizekin etzegoela luzarorako. Baña aretxek bere amaren ondoan bukatu nai zituen bere egunak, ura ere bizi bazan.

Ori ere etzekin; baño baitua zegoen. Mundu onek etzion atsegin aundirik ekarri. Bestea ere berdiña izango ote zuen? Orren gaixtoa ote zan beretzat Jainkoa, maitasun bera izanik?

AUZI GAIZTOA

An usteldu bearko zuela etsi ta gero, deitu zuen epailleak.

– Bauan ordu –zion berekiko.

Lasai-itxurak egiñez eraman zuten, ondo lotua ta ertzaiñez inguratua.

Sartu zaneko, arrituta geratu zan. Iru zeuden maian bera epaitzeko. Gizon ta emakume-mordoska bat ere bai, lekuko bezela etorriak. Lau-bost ertzain, berekin joandakoez gañera. Olakoetan oi dan bezela, ezin ziteken gurutzerik palta.

Sarreran txorakeri batzuk egin ondoren, erdikoak, bertako epailleak alegia, ala esan zion;

– Ire erriko epailleak biali dik bere erantzuna: egia dala gizona il uala, baña ere burua salbatzeko. Espetxetik iges egin uala, ordea. Emen egindako beste pekaturik ez badek, ara bialtzeko. Emen ori baño aundia-goak egin ditukela ziur bazekiagu. Badakik zenbat salaketa datorren?

– Nor dira oiek: gizonak edo deabruak?

– Giza-jantzian zetozek beñepein. Or zai dauden oiek guziak, lekuko egitera datozenak dituk.

– Nik ez diot jendeari on besterik egin.

– Ez ditek denak ori esaten. Olako ibaitan, amabi bat urteko mutilla urera bota ta

ito nai omen uan; eta, gurasoak azaldu zira-
nean, igesari eman. Egia al dek ori?

– Zer edo zer bai. Baña ortara kontatuta ez beñepein. Itotzea nai izan banu, aski nuen uztea. Etzuen asko palta, ni azaldu nintzanean. Laxter zituen azkenak. Jauzi batean aterata, eziñean karraxika ari ziranei eman nien. Baña ez nituen ama ta iru neskatx besterik ikusi. Ondo egiña gaizkitzat artu. Ori ez bada deabruaren lana...

– Ona emen mutil koxkor ura bere amarekin. Egia al da nik diodana?

Amak, erosia noski, baietz esan zuen. Baña ez mutil koxkorrak:

– Neroni erori nintzan, ta orrek atera niñun.

Ezkerreko epailleak ala zion:

– Mutil orrek egia dio.

– Olako lekutan, gizon bat arriarekin jo ta illa arkitu ziteken. Badituk lekukoak, erro-
mes zebillen gizon aundi gazte batek egiña zin egin dutenak. Karraxiak entzun da urbil-
du zirala, ta gizon ori ikusi omen ziteken, azkeneko zartakoak ematen. An ikusi zenu-
ten gizona, au al da?

– Bai, jauna, bai, zalantzik gabe.

– Aizu, epaille jauna: aolku bat emango nizuke, ez bazera beñepein ni galtzeagatik ari. Or lekuko egiten duten oiek baitu itzazu. Oien artean aurkituko dituzu orko iltzalleak.

– Ez dit ire aolku bearrik. Ni epaille nauk. I, berriz, errudun. Ik erantzuiok nere galderari.

– Ori baño erantzun oberik ezin nezake asmatu.

– Edozer astakeri esaten ari aiz, ta epailleari begirune geixeago bear diok.

– Eta erru gabeak ez al du ala bear?

– Apaltxeago itzegin zak.

– Ez dago gaizki esana.

– Onenbeste lekuko etzebiltzak gezurretan.

– Emen batek bakarrak esan du egia: mutil koxkor arek. Erosia izango zenduten, ba...

– Beste bat ere, emendik urruti gabe, ito omen uan. Ikusi iñuten lekukoak badituk bat baño geiago. Au al zan, zuek diozuten gizon ori?

– Bai, bai, zalantzik gabe.

– Arritzekoa da ori. Emen kilometrotara ez da iñor ikusten; ta, norbait il dan leku oietan denetan, ni ikusi naute. Zertan ari zera eriotzak kontatzen? Abel'dik asi ta orain arteko guziak nere bizkar jarri, bai, ta orduan nai dezuna egin.

– Nik, epaille bezela, zuzen egin nai dit auzia.

– Nik, berriz, egia diot, eta Jaunaren aurrerako garbi geratuko naiz.

– Ez dek orrekin ere bururik salbatuko.

– Ez-ta zuk ere zere animarik.

– Ausarditsu mintzatzen aiz. Ikusiko dek zigorrak astean. Orduan itzegino dek.

Zigortu zuten gogotik ortarako zeudenak. Epaillearen aurrera ekarri zutenean, ala galdetu zion onek:

– Ez al dek ori aski? Oraindik erean al ago?

Praixkuk etzien begiratu ere. Oraindik gaixtoagoko zigorrak eman zizkioten, txutik ezin egoteraño.

– Ez al dek ori aski? Oraindik lengoan al ago? –esan zion berriro ere.

Praixkuk etzien begiratu ere. Oraindik geiago zigortu nai zuten. Baña iruetako batek aurka egin zien:

– Utziazute gizonari pakean, ortara ibiltzeko eskubiderik ez dago-ta. Ez dezute sendagille baten iritzirik ekarri, gizon oiek nola illak diran jakiteko.

Iruetatik bik eriotz-zigorra eman zioten. Baña irugarrenak *inocente* jarri zuen, garbi-garbi azalduz bere ezezkoa.

Bere eriotz-pena bizkarrean ta oñazetan, bi eskuak lotuakin, berriro espetxera eramán zuten gure Praixku gizarajoa.

Goragoko batek ontzat eman bear zuen eriotz-zigor ori, beteko bazan.

ERRIKO ESAMESAK

Praixku illa billatu zutela norbaitek zabaldu zuen. Iru urte baziran, gutxieneko, ori gertaturik. Biotzeko eraso txar batek egin ziola lan txar ori.

Askok sinistu zuten. Besteak ez, ordea; ta bere amak ain gutxi.

- Beraz, Praixkurenak egin zuen -zion jendeak-. Jainkoak emango zion egin zuen eriotzaren ordaña.

Andik egun gutxira, len esan degunez, etorri zan ama bisitatzera; ta errian barrena joan, makil aundi batekin, barkamen-eske oiuka.

Au gertaturik urte ta erdi gutxi gorabeera, kontu au ixil-ixilik zegoela, erriko bentako ostatuak, alegia, arrats batean su artu zuen. Sekulako ixtilluak jendeak ibilli ondoren, itzali zuten. Baña ostatua zearo erre ta kiskalia geratu zan, apupilloen puskak eta aziendak salbatu bazituzten ere.

Ostalaria bere burua iltzeko zorian zebillen, zuen guzia an galduta. Beren biziak salbatu zituzten; baña ondasunik ez. Alare, gaitz erdi, zion; ostatua etzala berea, udalarena baizik.

Nagusiak, udalak, ordea, ainbesteko galarak zituen ezkerro, zer gertatu zan, suak nola artu zuen, etxekoen zabarkeriz edo norbaitek emanta, txeetasun auek guziak jakin nai zituena.

Ostalaria, berriz, tripak jaten zebillen. Nora joan bear zuen orain?

Orrela zebiltzala, sekulako kontuak zabaldu ziran errian. Mandazaiaren etxekoak banatuak noski. Praixku aga batetik zintzilik ikusi nai baizuten.

Urte batzuk lenago, makil batekin errian

barrena barkazio-eske joan zan erromes aundi ura, Praixku omen zala; ta, ostatua erre zanean, ikusi zutela oni bi-iru buelta ematen.

– Benta zaar au deabruz betea zegok –esanez, lau-bat lekutatik su eman ziola, gero bere bidean jarraituz.

Etzekin iñork lenengo nork asmatu zuen; baña laxter zabaldu zuten au errian: Praixkuk su eman ziola ostatuari; ikusitakoak bazirala; bizirik edo illik, ura arrapatu bear zutela, oraindik okerragoak ez zitzan egin; eroz edo gaiztoz, etzekitela; baña ari etzegoela artara uzterik.

– Izan ere, epaille egoskor orrek joaten utzi zioken-ta.

Erriak, berriz, ala erantzuten zuen:

– Praixkuk ostatuari su eman diola? Sorgiñen bat al da, bada? Orain urte batzuk, illa zala zabaldu zenuten. Piztu egin ote da? Ez ura, ez. Zuek joan bear zenuteke espetxera, erriko pakea galtzen dezutelako.

Ostalariak ere entzun zuen ori. Baña etzuen sinistu. Orixe baño piñagoa zan itzaia. Bere lagunik maiteenari etzion olako azio txarrik egingo. Mandazaitarren kaskarkeria izango zan ori.

Epaillearen belarrietara ere iritxi ziran ixkanbil auek. Sumindua geratu zan:

– Naiago nuke zalaparta auek sortzen dituen nor dan baneki. Itzaiak etxea erre balu ere, ura baño okerragoa da, len il zala zabaldu zuena. Gezur biribilla. Orain, berriz, erri-

ko ostatua erre duela. Erru guziak nereak dira, nik iges egiten utzi niolako. Ai, nor dan baneki! Gogor erantsiko nizkioke eskuak, merezi du-ta.

Erriko zarata auek bizian zebiltzala, epailleak eskutitz bat artu zuen, Praixku juzkatu zuten iru aietako batek egiña:

«Ene adiskide ori, agur:

Oraintxe zazpi bat urte artu genduen zuk bialitako eskutitz bat, gizon bat il zuenak nola iges egin zuen espetxetik, auzia egin baño len. Iñon arrapatzen bazan, eramateko orrera, merezi zuena emateko.

Gizon ori baitua daukagu ta eriotz-zigorra emana. Orkoa ezik, beste eriotz geiagoren zama erantsi diote. Ondatzeraño zigortu arren, ez du ori besterik aitortu. Amaika lekuko urbildu ziran onera, ura gizon iltzen ikusitakoak. Baña gezurrezkoak noski; diruz erosiak.

Auzi-maian ni nintzan. Baña ez nion zigor ori izenpetu. Nere iritzian, erru gabea da. Au iltzea zuzengabekeri gaixtoa izango litza-ke. Ta iru eriotz ezarritako bati ez diote al-daketarik egingo.

Eskutitz au iritxi baño len bukatuko ditu bere nekeak. Ostiral ontan urkatzeko asmoak dituzte gure *el terrible vasco*, erriko enparantzan. Ortik iges egin zuela? Naiago nuke emendik ere egingo balu».

Irakurri zuenean, asarretu zan epaillea, bere eskubideak kentzen zizkiotelako. Baña, alare, ala zion berekiko:

– Ona emen epaille bat zuzena, kristaua. Ez daude gaurko egunean olako asko.

Ostalaria, zer gertatzen zan jakitean, joan zan, eta epailleak irakurri zion artu zuen eskutitza.

– Eskerrik asko. Banekin etzuela Praixkuk olako lan txarrik egin. Mandazaiaren aita xaarraren kontuak dira guztiak.

Ostalariak zabaldu zuen berri au errian. Asko benetan naigabetu ziran. Zergatik egin ote zioten auzi biurri ori? Orra eztabaida txar baten ondorenak.

Batzuk benetan naigabetu baziran ere, aien artean epaillea bera, beste asko, berriz, jakiña: poztu.

Emakumezko asko joan zitzaizkion ama alargunari dolu-miñak ematera. Baña etzioten onik egin. Ez baizion iñork ere okakorik esan.

Bere amari nork emango zion berri gaixto au, zion epailleak, egi garbia jakin zezan? Errian ta emakumeei entzunak nastuko bai-zuen. Bere ustez, bikario jaunak. Arekin artu-eman aundiak izaten zituen alargunak.

Bere eskutitza eskuan, parrokira joan zan, bada. Esan zion zer gertatzen zan. Eskutitza irakurri ere bai.

Goibeldu zan bikarioaren arpegia. Baña uzteko, bai, aren esku; berak emango ziola denaren berri.

– Eskutitz ori egin dizuna kristau piña da. Ez dituzu olako asko billatuko mundu borobil ontan gaurko egunean.

– Irakurri orduko, orixe berbera pentsatu nuen nik ere. Baña sumindua geratu nintzan. Nere eskubide guziak zapaldu dituzte. Ez dago ezer egiterik. Baña ematen didaten nazka agertu gabe ez det utziko. Arek ez du emengo eriotza besterik egin. Jakiña: zigorra merezi zuen, uste gabean egiñagatik.

– Utzi, bada, au nere esku. Oraintxe bertan joango naiz, errian zabaldu baño len jakin dezan.

– Ez. Errian zabaldu da. Ta badakit emakumeren batzuk, beren dolu-miñak ematera, joanak badirala.

Ordu erdi baño len, Joxeparen etxeko atea jo zuen. Baña, ordurako, leiotik ikusia zeukan etortzen.

– Garai ontan zertara ote dator ori? Bazkaltzera ez noski. Oiek beranduago ibiltzen dituk. Nere semearen berriren batzuk izango dizkik. Zoritxarrez, egia izango dek emakume oiek esan didatena.

– Arratsalde on, Joxepa.

– Baita zuri ere, bikario jauna. Nolaz zu nere etxera?

– Zergatik ez? Jainkoaren aurrerako zuen denen kargoa daukat nik-eta.

– Bai, bai. Ala da. Zuk zerbaiten eginkizuna badakartzu, ta gutxi gora-beera badakit zer dan ori.

– Bai, noski. Onuzkero entzuna izango dezu.

– Atoz sukaldera. An itzegingo degu.

Sukaldeko epelean exerita, jaulki zuen

zekin guzia bikario jaunak. Il zanaren berri emakumeak eman zioten. Txetasunak bikario jaunak eman zizkion.

– Auzi gaixto bat egin zioten, eta eriotz gogorra eman. Ez dakit zenbat eriotz erantsi dizkioten. Epailleak dionez, berriz, arek bakarra egin du: emengoa. Ondatzeraño zigortuagatik, berak etzuen olakorik aitortu. Zuzengabekeri ori salatuz, ango epaille batek idatzi dio emengoari. Zoritxarrez, gaur eguerdiko amabietan urkatzekoa zuten, erri guziaren aurrean.

– Ez det sinisten. Oraindik semea emen bizirik ikusteko itxaropenik ez det galdu.

– Joxepa: Jainkoak entzungo al dizu orixe! Il dutenik ez dakigu.

– Erriko gizon erretxin, gizatxar, lañezoso batek galdu zuen nere semea.

– Bai, ta benetan paketsua. Zu ere oraindik bakarrik bizi al zera?

– Ez, jauna. Alaba ta suiarekin. Semetxo bat ere badute. seaskan daukat. Berak, berriz, lanera zelaira joanak dira.

– Berri kaxkar au ematera etorri naiz epaillearen partetik, berari baño, neri arrera obea egingo didazula-ta.

– Bai, ta asmatu dezu. Zigortzalle oiek ez ditut begien aurrean ikusi nai.

– Orko berriak ondo ikasten ditudanean, etorriko naiz. Jainkoak nai dezala obeak ekartzea. Ziur il dutela jakiten badegu, illetak ospatuko ditugu.

– Bai, jauna, bai. Zerbaiten bearra izango du arek ere zeruan sartzeko.

– Agur, Joxepa. Zuk ere zer egiñak edukiko dituzu.

– Agur, bikario jauna. Ta eskerrik asko denarengatik. Txutik gabiltzan arte, ez da neretzat lanik paltako.

LOTURAK AUTSI

Errian bandua jo zuten: urrengo eguneko eguerdiko amabietan urkatuko zutela lau eriotz egindako *el terrible vasco*.

Lekua ere moldatua zeukaten. Bertako jenderik geienak ikusi zuen enparantzan non zegoen jasoja «T» letraren moduko beso zabal bat; goian soka lotzeko antxilla; bean, be-rriz, ortxe metro erdi bat altuko sala, ol batzuekin egiña. Ura zan urka.

El terrible vasco nolakoa zan ikusteko ba-zeukaten gogoia. Lau eriotz egin bazituen, zerbait ere merezi zuen. Antxe ikusiko zuten, bada, gizon beldurgarri ura zintzilik, eskuak atzera lotuakin, ostikoka aidean, ezin itorik, arra erdi bateko mingaña aotik zintzilik zeukala.

Erri artan, bada, bezperatik asi zan jolas-giroa.

Len ere iges egiña zala ta erne ibiltzeko agindua zeukaten, zaitzalleari emana. Onek, seguruago edukitzeagatik, egundoko bola astun bat lotu zion oin batean.

Praixkuren gela lurretik lau bat metrora zegoen. Berak ere bazekin, urrengo eguerdiko amabietan urkatuko zutela zabaldua zegoela erri artan. Norbaitek ots egin baizion kanpotik leiora. Beraz, bazekiten non zegoen. Agian, azpian zegoen zentinelaz izango zan.

Itzaiak, berriz, etzuen denen aurrean parregarri, soka batetik zintzilik, il nai. Baña espetxera sartu orduko, artu zituen asmoak utzi zituen; iges egitekoak, alegia. Bai-baizekin andik iges egiterik etzegoela. Aske egon balitz ere, or nonbait. Zegoen bezela, ordea, eziña zan ori. Iltzen il bearko zuela artu zuen etsia.

Asko pentsatu zuen bakardadean. Egun ta gauak gorriak zijoazkion. Betiko bere kezka ta amets gaixtoak zamatua bizi zan.

– Ez ote naiz ni emendik ertengo, amaren ondoan, bizi bazait beñepein, pakean iltzeko?

Aparia joan zan. Burutik asi ta oñetaraño katxeatu zuten. Bere gelako traste pixarrak ere bai. Baña etzioten ezer aurkitu.

Ordu gutxiko bizia zeukan. Ori bazekin. Baña nola urkatik iges egin? Txalkor madarikatua! Estuasun ederrean jarri zuen.

Azterketa egin ta atea itxi orduko, norbaitek botata, etsaia edo laguna izango zan etzekin Praixkuk, baña lima aundi berri bat

sartu zitzaion leiotik barrura. Ia buruan jo zuen.

Bere ari begira nor izan ziteken pentsatzen denbora alperrik galdu gabe, eraso zion lanari. Bere oñetako lotura bereala ebaki, lasaitu ta kendu zuen. Leioko burnisareari ekin zion. Eguraldi gaixtoa: euria ta aizea. Bazirudin Jainkoak laguntzen ziola. Gaixo bazegoen ere, indarra zeukan. Bat ebaki ta okertu zuen barru aldera. Proba txiki bat egin zuen; baña ezin pasa. Nai ta nai ez, besteren bat ebaki bearra. Ta ordua aurrera joango zan. Agian, gaberdian etorriko ziran bere billa.

Bigarrena ebakitzen asi zanean, leio azpitik igarotzen ikusi zuen bat.

– Zentinela izango dek –pentsatu zuen.

Pixka batean utzi zion lanari, ezkutatzen zanean berriz erasotzeko.

Bigarrena azken puntaraño moztua zeukanean, nabaitu zituen bere billa zetozeala. Bat baño geiago baziran.

– Auxe dek atarramentua. Nere lanean arrapatuko niotek.

Baña zetozenak lasai zetozen. Atearen ondoan bertan elkar-izketan geratu ziran: Erri artan etzala ordura arte iñor urkatu. Zer pentsatuko zuen jendeak?

An igaro zuten unetxo orrek, on egin zion itzaiari.

– Biar ere ez dute, bada, Praixku orzintzilik ikusiko.

Atea zabaltzen asterako, moztu ta ebaki-

tako burnia okertu zuen. Presaka asi ta traba-
tu etzedin, polliki-polliki leiotik kanpora
atera ta besoetatik zintzilik geratu zan. Ortxe
bi metro eskaxeko jauzia zeukan.

Bi suren erdian zegoen gure Praixku:
goian, bere gelara gutxieneko iru sartu ziran
beñepein: ta bean, erdi ezkutuan, beste bi zai
zeuzkan. Iñondik, bietan etsaiak zeuden.
Bestela, lima bota ziotenak lagunak izan ba-
litu, etziran an zai egongo. Etzuten beren bu-
rurik ainbesteraño arraixkatuko. Urrutixeago
ta ezkutuan itxogingo zioten.

Goian etzeukan iges egiteko itxaropenik.
Iru baziran. Ta, aietatik askatzen bazan ere,
barruan geratzen zan ta bazter guziak ondo
itxiakin. Laxter arrapatuko zuten. Bean saia-
tu bearko zuen. Bi ikusten zituen illunpera.
Ezin antzik eman nor izan zitezken.

Goikoak gelako atea zabaltzerakoan,
bada, jauzi egin zuen.

Zaitzallea ta bi ertzain armatuak, gelara
sartu ziranean, arrituak eta izutuak geratu zi-
ran: bola aundi ura moztua zegoen; bi burni
ebaki ta okertuak; lima aundi bat leio on-
doan.

– Nork ekarri ote dio au? Atzo bede-
ratzietan egin genion, txeetasunez, katxtoa,
ta orra iges egin urkatzeko zeukaten txoriak.

Sartu ziraneke, entzuten zituzten leioaren
parean, baña kanpotik, egundoko iskanbillak
eta burrukak.

– Eutsi orri! –oiu egin zuten leiotik.

Uste baizuten zentinelak oartu zirala ta jauzieran arrapatua izango zutela.

– Ez da makala deabru ori, iru ordu eskaxetan auek ebaki dituenean.

BERRIKETAK

Len esan gendunez, iru epailletako batek etzuen ontzat artu auzi ura. Zuzengabekeri gaixtoa egin zutela arekin idatzi zion Praixkuren errikoari; eriotz askoren errua eratsi ziotela; lekukoak ere bazirala ugari; baña, bere iritziz, denak gezurrezkoak, erosiak.

Norbaitek esanta ikasi zuen urte batzuk konbentuan lan egiña zala ta andik salatuta ekarri zutela espexera. Jakin nai zuen ori egia zan edo ez eta zer salatzen zioten.

Egoarte batean topo egin zuen konbentu artako nagusiarekin. Baita galdetu ere:

– Zuk ezagutzen al dezu edo, obeto, entzun al dezu Praixku *el terrible vasco*’ren izena? Ez baita erri ontan gaur besterik aipatzen.

– Ezagutuko ez nuen, bada? Iru urte ta erdi gure konbentuan lan egiña da ori. Guk Praixku esaten genion. *El terrible vasco* izen ori geroztik entzuna det. Baña ez nuen uste biak bat ziranik. Amaika lan egin zuen gure

konbentuan, izurriteko bi urte aietan. Oso maitea genduen pralleak. Bakarren batzuk esaten zuten, agian Justiziaren igesi etorria izango zala. Baña pralleak zor aundia diogu. Eskupeko on bat emateko asmoan nintzan. Banekin, konbentuko martxa jarri zanean, joan nai zuela. Ta zer gertatzen zaio?

– Zer gertatzen zaion? Ezer ez dakizu?

– Emendik ixil-ixilik joan zala besterik ez.

– Etzenuten orduan zuek salatu.

– Praixku salatu? Konbentu ontan ez da ura salatuko duenik.

– Norbaitek salatu zuen. Auzia egin zitzaion. Lau eriotzen errua eransten zioten. Txikitzeroño zigortu zuten. Baña arek bakarra aitortu zuen; bere burua salbatzeko ta nai gabe egin zuen eriotza. Nik ez nuen izenpetu. Gorrotoa zebillen tartean. Onuzkero bere nekeak bukatu ditu. Gaur amabietan zuten urkatzekoa, ta ordubietara goaz.

– Oraintxe zuri entzuten dizut lenengo. Ez dute gure atean deitu. Ixilka eramana dute, ta nondik? Ori zillegi al da?

– Ez da zillegi. Ori sekuestroa da.

– Nork zekin ura gure etxean zegoenik? Bakarra da ura salatu zezakena: Txalkor txikia esaten dioguna.

– Anaia du erriko epailleak.

– Ura bada, aurrean bialiko degu. Ez degu Judasik etxean eduki nai.

Aitaren egiñez etorri zan nagusia. Pralleak, ikasi zutenean, samindu ziran.

Illunabarrean, ango baratz, bei ta txerriak ikustera joan zanean, ea Praixkuren berririk bai al zuen galdetu zion nagusiak txalkorrari.

Ezet; ari itzik egin gabe joan zala.

– Arritzekoa ori. Zure ondotik eraman zuten baitua. Ate ortatik atera ta sartu ziran. Nork erakutsi ote zien orko bidea?

Txalkorrak igerri zion dena bazekitela ta etzion erantzun.

– Orduan aitortzen dezu zure lana dala ori? Konbentuko iñoren berri gabe, ori zere buruz egiteko nor zera? Gaur amabietan urkatu dute. Ez degu etxe ontan Judasik eduki nai. Gaur emen gera zaite. Baña biar, amabietarako, aldegin zazu. Epaillea zure anaia bada, arek lagunduko dizu.

Lan-tokia kenduko zion beldurrak salatu zuen. Orra orain pekatuaren saria.

Praixkuren errian, bada, bazan zer itzegiña. Epaillea zai zegoen ango berriak jakiteko. Bere ama gaixoa zer esanik ez, lenbailen illetak ospatzeko. Baña beste guztiak etsita bazeuden, ura etzegoen oraindik ala. Ainbeste itzezin zan. Askok, berriz, pulamentu aundi gabe. Batek etzeekin zer sinistu.

Arek lau eriotz egin zituela, ori etzuen bere etsairik gaixtoenak ere sinisten. Gazte modu ura etzan ainbesteraño erori.

Mandazaiaren bi anai gazteenak etziran erdietan errian azaltzen. Beñere ez beñepein biak batera. Bazekiten berak iltzeko ziña egin zutela. Baña, agidanez, Justiziak aurea artu zien. Aren atzetik joanak baziran, ikusi-

ko zuten aren urkatzea, ta aseko ere bai beren gorrotoa. Laxter errian ikusiko zituzten itxaropena zeukaten gurasoak.

Ostatuan, berriz, etzan besterik itzegiten. Etsaiak berak ere urrikaltzen zitzaizkion:

– Nik zigortzea nai nuen; baña ez olakorik. Urte pareren bat espetxean edo. Baña erri osoaren aurrean lotsagarri... Gizarajoa!

– Orra eztabaida txar batetik etortzen diran ondorenak. Gallen atera zanak ere, dena galdu.

Orduko albisteak etziran gaur bezin azkar irixten. Trenak baziran. Baña erri txiki aietatik eraman egin bear zan treneraño.

Epailleak, il zutela noiz esango zuen, erria urduri xamar zegoen. Ama ta bikario jauna ere berdin. Baña auek, illetak lenbailen egiteko asmoan.

IGESA

Praixkuk, bere zorionerako, jauzian aurreraka edo atzeraka erori bearrean, txutik geratu zan. Etzuten ori usteko bi gazte aiek. Eroriko zala ta orduan bien artean eutsi ta lotuko zutela; ta andik urkara eraman, ekarri zuten sokarekin berak an urkatzeko. Baña txutik geratu zan. Gizon gaztea, indartsua, auldu xamarra bazegoen ere.

Eltzera lenengo urbildu zitzaionari, ala bear ta suertez noski, eman zion egundoko begiondokoa; ta atzeraka, ondatua, ormaren kontra erori zan. Bestea lotzen asi zitzaionean, bakarra eskax zan arentzat. Bultza ta bestearen gañera erori zan.

Oartu ziran zentinelak. «*iAlto! iAlto!*» egiñez, laxterka etorri ziran.

Bitarte ortan, Praixkuk, ezagutu baizituen nor ziran:

– Etzenuten besterik merezi. Or zegok zuentzat nik utzi detan lekua. Badaukazute puska baterako itzala –esan ta ezkutatu zan andik.

Zentinelak bi aiek arrapatu zituzten.

Zaitzallea, jetxi zanean, Praixku an etzegoela oartu zan. Bai bere burua galtzeko zorian geratu ere. Len ere iges egiña zala ta ondo zaitzeko agindu zioten, ta urkatzeko bezperan iges egin. Bi gazte aiei ala galdetu zien:

– Nondikakoak zerate zuek?

– Orrek il zuenaren anaiak gera. Gure eskuz ilko genduela egin genduen ziña.

– Orduan zuek eman diozute lima ori?

– Bai, jauna, bai, andik jexten zanean arrapatuko genduelakoan. Baña iges egin digu.

– Eta nor zerate zuek, Justiziari aurrea artzeko?

– Gure anaia zan illa, ta guk eman nai genion merezi zuena.

– Eta iges egiten utzi!

– Joaten uzten badiguzute, oraindik arrapatuko degu guk ori.

– Bai ederki eman ere! Aren lekua zuek artuko dezute. Bi pekatu garratz egin dituzute batera: bat, Justiziari aurea artu; ta bigarrena, iru edo lau gizon ildakoari iges egiten utzi. Nork daki ez ote duen onuzkero besteren bat il?

Epaillearen anai txalkorragatik esan zuen ori, bai-baizekin arek salatua zala.

Burua makurtu ta etzioten erantzun. Begia luze, beren sarean erori ziran.

Erria oartu zan zerbaiten ez-bearra bazala espetxe alde artan. Baña etzan beren egitekoa.

Goizerako, kendua zeukaten urka. Lotsagarri geratu ziran erriaren aurrerako.

Bertako agintariak, ikasi zutenean, inguruko erri guzietara biali zituzten albistalariak: *El terrible vasco*'k berriro espetxetik iges egin zuela ta erne ibiltzeko, iru edo lau eriotz egindako ero gaixto bat zala-ta.

Erriko sarreretan zaindaria jarri zituzten.

Praixkuk, berriz, bein andik iges egin zuenean, nai ta nai ez, enparantzan barrena igaro bear zuen. An zegoen, bera itotzeko jaso zeukaten urka. Bere gañetik igaro ta artu zuen mendi aldera. Arrapatu nai zuena, zettorrela ara. Igerriko zion norekin zebillen.

Txuxenean konbentura joan zan. Orma gañetik sartu ta basoan zegoen txabola txiki

batean artu zuen atsedena, biotza neketan zebilkin-ta.

Konbentura etortzen baziran ere, ura etzuten an arrapatuko. Ordu beteren bat an igarota, bere salatzalle txalkorrari ikertxo bat egin bear zion.

Lasai-lasai len lo egiten zuen lekura joan ta kandela-mutur bat artuta, txalkorraren atea ostiko batekin zabalduz sartuta, argia piztu zuen. Negarrez zegoen gure txalkor gi-xaixoa, etxetik bota zutelako.

Alako jauzi bat egin zuen, aurrean ikusi zuenean; ta, txuri-txuri egiña, oiera erori zan.

Izutu zan Praixku, il zalakoan. Baña ez. Begiak zabalduz:

– Praixku? –esan zuen.

– Bai. Uraxe bera. Gorputz ta anima, ordea; ez aren itzala. Petral ori, zer egin dit, ni salatzeko? Jakingo dek noski zer merezi dekan...

Besteak etzion begiratzen ere.

Arrats artan, nagusia erne zebillen, txalkor txikia azio txarren bat eginta aldegingo zion. Aren gelan argia ikusi zuenean, laxterka ara joan zan, ta izutua geratu zan bera ere, Praixku txalkorrarekin izketan somatu zuenean.

– Zer zabilta zu emen, gaur amabietan iltzekoa ziñuztela-ta?

– Gizonen asmoak ala ziran; baña Jainkoarenak ez.

– Iges egin dezu, beraz?

– Bai, jauna.

– Bejondeizula! Atoz nerekin.

Ontzako urre batzuk atera zitun etxetik ta:

– Torizkizu, ainbeste ta geiago merezi dezu-ta.

– Eskerrik asko. Nere illetak ospatzeko ez dira gaizki etorriko.

– Zer? Gaixo al zaude, bada?

– Bai, jauna. Biotzak bi eraso egin dizkit. Irugarrenean akabo. Baña etxeraño iritxi nai nuke.

– Asko suprituko zendun-ta. Baña jakin zazu etzaituztela pralleak salatu.

– Ez, jauna, ez. Badakit nor dan salatza-
llea.

Biak elkarri esku emanaz agurtu ziran. Praixkuk mendi aldera artu zuen berriro.

ETXEAN

Azkeneko arratsean, metondo batean esnatu zanean, izutua geratu zan. Gutxieneko zazpi edo zortzi txakurrek inguratua zeukaten, batzuk zaunkaka ta besteak audika.

– Au ere badegu? –zion berekiko.

Zutitu ta, ondoan zegoen orma gañetik jauzi egiñik, galdu zituen txakurrak bere bistatik.

– Txakur txar auek ere badakite noski igesi nabillela. Ezkutuan ibiltzeko alderdi ederra. Denak, gizakume, deabru, abere, baita Jainkoa bera ere, guziak aurka ote ditut nik?

Denak atzean utzi zituen: espetxeak eta pralletegiak. Iskanbil onak ibilliko zituzten, batek zituela erruak edo besteak, iges egin zuelako. Or konpon bi gazte aiek ere! Bere lotsagarrizko eriotz artatik aldegitia arrazoi zeukan, egin gabeko pekatuengatik zigortu zuten-ta. Iges egin ere garbi; iñor il gabe.

Orain badaki erri aietan, bera sartu orduko, zergatik zekiten denak bere berri. Espetxean geratu ziran bi gazte aiek zebiltzan bazter guziak nasten.

Illundu baño len, iritxi zan bere baserri txikira. Baña etzuen sartu nai izan etxera, iñork ikusterik nai etzuelako. Berdin bazekin barru artatik bizirik ertetzeko etzala gauza izango.

Goiko txaran igaro zuen illundu arteko denbora, bere gaztetan, zorionsu bizi izan zituen urte aietan, ibillitako bide ta bentak, bere zoritxarra non asi zan ere bai, gain artatik ederki ikusi eta agurtuz.

Orduan, jetxi ta aurreko intxaur aundi baten azpian jarri zan, pixar bat lasaitu arte. Bazekin etzuela iñork ikusi, erritik baztertu xamarra baizegoen bere etxea.

Intxaurpe artatik entzun zuen, zorame-
nez, bere amaren kantu-ots alai:

Aurtxo txikia seaskan dago,
ama, emaiuzu titia;
aita gaixtoa tabernan dabil,
pikaro jokularia.

Bere naigabe guzien artean, poztu zan
Praixku. Etzan bakarrik bizi. Aurtxoari kan-
tatzen zizkion amak, bere doñu ederrean,
bertso oiek.

Praixkuk ezin eraman izan zuen ori, ta
beste biko au kantatu zion, zekin bezela:

Zure semea intxaurpe ontan
oso gaixorik daukazu,
beti maitea izan nauzu ta
etxean artu nazazu.

Ama oraindik emakume zaulia ta ernea,
entzun zuen atariko kantu-otsa.

– Bizia edo il ta piztua, ori nere semea-
ren abotsa dek.

Aurtxoa besoan zeukala, leiora azaldu
zan.

Bai semeak ikusi ere. Atsegin geiegiare-
kin, biotzak joko txar bat egin zion.

Bera joanta emen geratuko zan amari, ala
kantatu zion orduan maitasun ta atsegiñez:

Ni banijoa; alare, ama,
nere poza ezin gorde:
landaretxo bat besoan orra
maitatzeko nere orde.

Aurra seaskan utzita, laxterka jetxi zan ama.

– Oraindik bizi da nere seme Praixku, ez nuen besarkatzeko itxaropenik galdu-ta.

Ura zala oroitze utsak xamurtu zion biotza. Bai-baizekin erruz supritzen zuela.

– Ez beldurtu, ama, zure seme Praixku nauzu-ta –esan zion, zutituz eta ate ondora urbilduta, amak ikusteko moduan.

– Ai! I al intzan? Olako zerbait pentsatzen nin, bai. Abotsera laxter ezagutu aut. Munduak zear aspertu aizenean, bakarrik uzten dekan amaren etxera al ator?

Ia lau urteren buruan, berriz besarkatu ziran.

– Jainkoak gabon, ama –esan zion, zerbait esan bear-ta-. Etzaude noski bakarrik...

– Baita iri ere, parrandero orri. Nola litekek, ordea, nik nere Praixku berriz begien aurrean ikustea, bi aldiz ildako gizona, itxaropen guziak galdu ta gero? Katuak bezela zazpi bizi ote dauzkak? Ez nieken sinistu eta nik izaki arrazoi. Orain ez nauk bakarrik bizi. Alaba ezkondu berria zeukat etxean. Seme bat ere baditek.

– Ikusi det, bai, leioan. Ez dakit zazpi bizi ditudan; baña azkenekoa larri dabilkit. Urkatuko niñuten arratsean bertan iges egin diet. Nere etsairik amorratuena salbatu naute: Joxe Migelen bi anai gazteenak, beren eskuz ni iltzeagatik, lima eder bat bota zidaten leiotik. Ango burniak ebakita, denei iges

egin diet. Aiek, arrapatu ta nere lekuan gera-
tu dira.

– Jesus! Ortaraño ere bai? Beste bat egiña
ator orain. Ille-bizar aundi aiek non moztu
dizkitek? Ez bauan iges egin, nik moztuko
nizkin, bai.

Semea, gaixo bazegoen ere, alaitu zuen
amaren errita ta itz-jarioak. Maitasunak era-
gin erazten ziola bai-baizekin.

– Gau-txori aleen ori! Exur ta larru bes-
terik ez aiz. Ez al dek jaten-edo? Agian gai-
xorik abil. Izan ere, auzi oietan i ibilliko
intzan bezela, ez dek arritzekoa orren aula
egotea. Ire abots indartsu eder ura ere galdu
zaik edo bajatu zaik. Doi-doi garbitzen dek
abotsa. Ator, ator aurrera.

– Ezur uts besterik ez naizela, egi borobi-
lla diozu, ama. Azkeneko otorduan bi arbi-
buru jan ditut, eta metondo batean jarri lo-
tan. Txakurrak biali naute aurrean andik,
basurde bat bezela. Denak etsai ditut. Mu-
turka nabilkite. Eriotz-zigorra emanta, ostira-
leko amabietan urkatzekoa niñuten. Espetxe-
tik iges eginta, benetan larri nabil. Bide oie-
tan ez det kristaurik ikusi. Erri guziak aizka-
tu dituzte, *el terrible vasco* espetxetik aldegin
ta aske dabillega, ez dakit zenbat eriotz egiña.
Bakarka ez ausartzeko iñor nerekin. Oso gai-
xo nator. Etzenduke sinistuko nere larriak
zenbaterañoakoak diran. Biotza, nekez ta nai-
gabetan auldua, zimikoka ari zait. Ez nago
luzarorako. Il-etsitako orduak igaro ditut.
Alare, beti aurrera. Zure ondoan nai nituzke

begi auek itxi. Bearrak lagundu dit noski, eziñetik indar berriak ateratzen. Gorputza eziñean gaixo. Zearo zalantza gaixtoetan zorratua, berriz, nere anima. Erdi erotua, beti pentsamentu bat buruan: Jaunak ez niñula ni beretzako egin. Unetxo batean aztutzen bazait nere larria, norbaitek, nik ez det ezer ikusten, intziri bat bezela, belarri ondora esango dit: «Ai, Praixku, Praixku! Alperrik abil. I ez aiz zerurako egiña. Judas gizarajoaz oroi adi». Gorputz ta anima daldaraka etorria naiz larritasunez, denen igesi, oneraño.

– Job santua dirudik, motell. Onenbeste negar! I len gizona intzan; ta, iri entzunez, ezin poztu dan emakumetxo alargun bat dirudik orain.

– Zuk ere ez ote nauzun artuko etorria naiz. Meserez, ez ukatu zure maitasun eta babesik. Ez det merezi; baña ez da luzarorako izango. Pralletegian emandako ontzako urre batzuk baditut. Torizkizu. Nere illetak ordaintzeko etzaizkizu gaizki etorriko.

– Eta iretzat ez al dituk bear?

– Ni ez naiz etxe ontatik bizirik ertengo.

– Jesus! Oraingo ontan benetan ezkorra ator. Eskerrik asko. Ez dituk gaizki etorriko.

Amak ezin zuen semearen larritasun ta bakardadea ulertu.

– Praixku, ago ixilik. Orrela itzeginda, min ematen didak. Emakume bat baintzake ere... Baña i bezelako gizon gazte bat orrela aritzea... Ikusi al dek egundo ire ama atzera egiten? Ire bearren bati begiak ixten?

– Gizonok askotan arrotzen gera, zerbait bageralakoan. Baña emakume oiek, arazo askotan, gu baño geiagoak zerate. Ainbeste naigabe eman dizkizut. Zugandik urrun ibilli, baziñanik ere iñoiz aztuta. Gaixorik nator, zure bizkar emen il arte bizitzera, ta ez didazu itz txar bat ere esan. Ez-ta aipatu ere nere maitasunik eza. Seme zintzo ta on bat bezela artzen nauzu. Zure pakea arraixku txarrean jarriz gañera; ta zu, zere lan ta nekez, ni mantentzeko pozez. Eskatu gabe ere, badakizu ematen. Neretzat, benetako maitasuna ori da. Olakoa izango da gure Jainkoa.

– Ez ago, motell, sermolari txarra. Nork erakutsi dizkik olako gauzak? Ago ixilik, berritsu ori. Gaixo agola? Etzekit; baña aoran dabilkiken aragi-puxka orrek etzeukak erreuma aundirik beñepein. Len ere esan dit min ematen didakela orrela itzeginta. I ez baaiz nitzaz oroitu ere, ni ez nauk beñere itzaz aztu. Bere seme-alabak maite ez dituen, ez dek ama. Bota itzik ipui ta beldur oiek, eta ator sukaldera. Bostentzat –irekin ala gaituketa geiagorentzat, leku-paltik etzegok emen. Zer jana ere nonbaitik sortuko diagu. Zer dala uste dek ama baten maitasuna? Amaika otoitz egin dit ire alde, buruko txorakeri oiek kendu ta bein betiko Jainkoak etxera ekartzen ote iñun. Orain, ondoan ikusita, asarretu egingo ote nauk? Edo aurrean biali edo Justiziari salatzer joan? Ez, seme, ez. Amak ez gaituk orrelakoak. Irea ez dek beñepein ala.

Aldegin baño len edukitzen zuen gela txiki batera sartu zan Praixku. Goseak eta nekakua zetorren. Bereala oiean zegoen.

– Goseak baldin baator, zerbait artu nainko dek? –esan zion amak.

– Utziozu, ama, gaurkoz. Zergatik nekaturazi bear zaitut? Biar ere, bizi bagera, eguna ikusiko al degu.

– Iri burutik egin zaik edo txakurra bezela ibilli aute? On egitetik egundo atzera egin al dik ire amak? Eska zak bear dekana. Al badet, ekarriko dit. Edo oraindik ez nauk ezagutzen?

– Katillokadatxo bat esne bero ekatzu, bai, ta ez det besteren bearrik.

– Gizarajoa aleena! Nola ibilli ote aiz?

– Len ere esan dizut: zigortua, nere biziaz etsia, denen igesi, iñor ikusteko kezka, erri guziak ni sartzeko beldurrak zainduak... Orixen izan da nere bost illabeteko bizitza.

– Beste zerbait ekarriko dit, sua piztua zeukat-eta.

– Ez, ama. Gaurkoz aski det eskatu dizudana. Otzak nago ta orrek berotuko nau. Biar ikusiko degu geiagotarako gauza geran.

IRUDIPENAK

Ama sukaldera joanta, semea bakarrik geratu zan gelan, krisallu baten argira. Bere buru gañean ikusi zuen gurutzea ola-zuretik zintzilik. Atzeko orman, berriz, Ama Birjiña, lauki eder batean. Bazirudin Ama-Semeak elkarri begiratzen ziotela ta oiean zegoenarengatik izketan ari zirala biak, beren naigabeen errudun Praixku balitz bezela, ta au salbatu nairik. Ama Semeari eskari ari zitzaion.

– Ai, seme biurria! Nola dabilkik ire ama, mundura ekarri ta ainbeste nekeen artean azi iñuna? –zion gurutzeak.

– Utzizu pakean. Berekin darama naiko eziña. Ta zuk ez niñuzun ni berdin ibilli? –erritan ematen zion Ama Birjiñak gurutzeari.

– Orain ere zerbaiten eskea badakartzu. Ni erru gabea nintzan, ordea; ta pekatariak salbatzeagatik eman nuen nere bizia –erantzun gurutzeak.

– Ez bazenituen griña gaixtoz beteak egin, etzuten pekatuak egingo; ta, pekatariak salbatzera etorri baziñan, zuk diozunez, orra or aukera. Oiean gaixo dagoen orrek eta ainbeste kupitu zaitun bere amak, zer besterik naiko dute? Ainbat negar ta otoitz bere seme galduaren alde egin duen amak eta nik, zer besterik naiko degu? Ona orain pozteko or-

dua. Zure esku dago dena. Ikaragarriak egin dizkiote. Bere amak bestek ez du maite noski.

– Eta berak maite al du ama?

– Ez balu maite izan, arraixku guzien artetik, bizi dala ta poztu nairik, etzan etorriko –erantzun ormatik Amak.

– Eta, bere ama zaindu ta babesteko, zer egin du?

– Uste gabeko erorikada bat izan zuen. Geroztik, zuk ala naita, deabru guziak bera galdu nairik dabilta. Gizonak, berriz, merezi gabeko eriotz lotsagarri bat erantsi diote. Ta, jakiña, igesi dabil.

– Eta benetan damutu ote da?

– Etzan bestela ainbeste aitorlekutan sartuko. Biotz gogorrekoa zera, ez badiozu barkatzen. Deabruak ere ez dizute gaizki irri egingo. Zure eriotz ta odol-ixurtzeak alperrik izango dira orrentzat. Deabruentzat, berriz, garaipena. Amaika pekatari gaixtoagoak zeruan badauzkazu.

Orduan gurutzeak errukiz begiratu zion Praixkuri.

– Orain dezu aukera bikaña. Gurutzeko nere Semeak biozkada sakon bat dauka; eta, benetan damutuz, eskaiozu. Ez dizu ezer ukatuko –zirudin ziola Ama Birjiñak.

– Uste gabe egindako nere pekatu orrentzat ez al dago barkamenik? Zuk dakizu zenbat naigabe eta ixtillu daramazkidan geroztik, eta pixti gaixto bat bezela denak aurrean bialtzen naute. Pekatu gabekoentzat

egin bazenduen zerua, alperrik egin zenduen, Jauna. Ez da berealakoan beteko. Zure biotzean errukiak ez al dauka lekurik? –zion bein ta berriz Praixkuk.

– Nork esan dizu ori? –erritan eman zion. Ama Birjiñak Praixkuri-. Zu salbatzea-gatik etzan, bada, il, zuk oraindik maite etzenduenean, zu sortu baño len, jakiña, eta oñaze gorritan? Ikusten dezu gurutze ortatik zintzilik nola dagoen? Zuregatik orduan maitasunez bizia eman bazuen oñazetan, zuk maite etzenduela, orain, oñazerik gabe ta maite dezula, zer ukatu dezaizuke nere Semeak? Eskaiozu. Ez dezu egokiera oberik arkituko.

– Nik maite ote det? Egia ote dio Ama Birjiñak?

Oldozpen auek alako zarrara goxoa egin zuten gaixoaren biotzean. Bere itxaropena indartuz eta al zuen damutasun ta sinismenik beroenarekin, biotz-biotzez otoi egin zion Jaunari:

– Egizu, Jauna, Amak eskatzen dizuna. Barkatu nere pekatuak. Zure ordekoak ez bazaizkit urrikaltzen ere, urrikal zaitez zu, Jauna, zuregatik nik denei barkatzen dieten ezkerro.

Itz auek barrun-barrundik esan orduko, irri maltzur bat entzungo balu bezela, intziri baten antzera, itz auek nabaitu zituen:

– Ja, ja, jai! Gizarajoa! Alperrik abil. Ez aiz zerurako. Odolaren kutsurik ez dek

kentzen, ez emen, ez bestean. Irea ikusia zegok, inpernurako aukeratua ago-ta.

– Madarikatua! Ago ixilik, nor baaiz ere. Zerua denentzat, iretzat ez noski, egin zin Jaungoikoak –oju egin zion amorruz.

Eta begira zeukan gurutzeari berriro:

– Urrikal zaitez nitzaz, Jauna!

Itz auk esaten ari zala, sartu zan bere ama, katillokada esne berorekin; eta, arrituta, ala esan zion bere semeari:

– Norekin ari intzan izketan!

– Neronek ere bai al dakit? Oldozpen on baten ondoren, beste gaixto bat etortzen zait. Txarrari, «Oa, madarikatu ori!» esaten diot. Onari, berriz, «Urrikal zakizkio pekatari oni!». Au da aspaldi ontan nere biotzeko guda. Itxaropena ta etsipena txandaka dabiltz nere barruan.

– Ik amari esan nai ez dioken zerbait badaukak ezkutuan. Zearo burua nasten dik.

– Biar, gauza banaiz beñepein, denaren berri emango dizut. Neri gertatzen zaizkidanak, ez dira txorakeriak, ama.

Katillokada eskura luzatuz:

– Ez al dek besteren bearrik?

– Ez. Gaurko aski det. Zuk zere atsedena artu bear dezu, ta nik ere bai nereaa.

Ama joan zan andik, Praixku bakarrik utzirik.

– Zer ote du nere semeak? –zion berekiko–. Exur eta larru besterik ez baidago.

Sukaldeko lan pixarrak eginta, igo zan

berriro ama, katillo ta pixturik utzitako krisalluaren billa.

– Orduan oso gaixo ago? –galdetu zion.

– Bai. Ta egun gutxiko bizia. Biotz kaxkar au naiko lanakin dabilkit.

– Nai al dek biar sendagillea deitzea?

– Sendagillea? Salatu ta urkamendira eramateko? Naiago det nere ontan bizitza au bukatu, oraintxe ez det urruti-ta. Gaitz au sendatuko duenik ez da lurrean.

– Ago ixilik, motell. Ez adi orren ezkorra izan. Ikusiko dek, etxeko epelean eta nere ondoan, nola sendatuko aizen.

– Ez nuke nai. Ni iltzearekin, zedorri poztuko zera geiena.

– Ori dek esatea! Semea iltzen ikusi ta ama geiena poztu? Oraindik olakorik!... Goseak eta kezka gaixtoak auldu ditek ire burua.

– Biarko egunik zabaltzen badu neretzat, itzegingo degu luze ta zabal. Ez dizut ezer gordeko. Orduan bestela pentsatuko dezu.

Gabonak opatuz, ama goibel joan zan oiera. Bazituen bere semeak, mandazaiaz gañera, beste lan txarren batzuk egiñak; eta, kezkaren kezkaz, erdi erotua zegoen.

– Ori iltzearekin, ni geiena poztuko naitzela! Ori ere, semearen ezpañetatik entzun bear genduen! Nork ulertu ori? Zer gertatzen ote zaio?

Gau erdi aldera, egundoko antsi ta karraxiak entzun zituen amak. Ez nolanaikoak.

Iltzen ari ote zitzaizkion? Etzan jeiki; baña benetan itxillutan zebillen Praixku.

Noizbait ixildu zan, Lasaitu ere bai amaren biotza. Biar dena kontatuko zion. Goiza etzitzaion nai orduko etorri. Zer ote zuen bere semeak?

Praixku beldurrak zebillen. Iges egin zuen, mandazaia il zuelako espetxetik aterata. Eriotz-zigorra emanta zegoen lekutik berdin; baña iñor il gabe. Zigor ori zeraman bizkarrean, ordea, ta saiatuko ziran bizirik arrapatu ta urkatzen. Artara bizi baño, il naiago zuen, bada. Ta, bere ustez, etzuen urruti.

SUKALDEAN

Goiz xamar, semea sukaldera sartzen ikusi zuenean, oartu zan, naigabez, Praixkuk egia esan ziola. Oso galdua zegoen. Zauli, ori bai, gaztea zalako oraindik. Baña ondatua, begi-zulo aien inguruak ugelduta, arnasa nekez artzen zuela ta atzo iruditu zitzaion baño argalago. Eskuak ere daldaraka zebilzkin. Etzegoen bere semea luzarorako.

- Goizegi jeiki aiz, motell. Nere betiko lanak eginta, gosaria oiera eramateko asmoan nenbilleken.

- Goizegi jeiki naizela diozu? Ni baño

ondotxo beranduago oiera joanta, aspaldi ontan lanean ari zera. Edo zuek txutik egiten dezute lo?

– Ni ortara oitua nagok.

– Baita ni ere. Zure griñak erakutsi zizkidazun. Itzai nenbillenean, goiz asko jeiki eta berandu asko erretiratzen nintzan, ta orain ere berdin. Igesi etorri naizen bost egun aue-tan, zer lo-pulamentu egin detala uste dezu?

– Bai. Egia diok. Aiek itun urteak iretzat, eta neretzat ere bai. Zergatik utzi bear uan lantegi ura?

– Zuk aolku orixe eman zenidan, ni espetxean nagoela ikustera joan ziñanean.

– Bai, bai. Egia diok. Oroitzen nauk.

Bat lanean, bestea izketan, bazkalordua etorri zan; ta, aurtxoa seaskan utzirik, eseri ziran maiaren inguruan ama, Praixku, bere arreba ta kuñadua.

– Dena kontatuko didakela esan ez didak? Oraintxe dek, motell, egokiera pollita.

Mandazaia il ta ordua arteko gora-bera guzien berri eman zien.

– Orain zerok juzkatu nola lasai bizi ninteken.

– Eta mandazaiaren bi anaiak non geratu itun? –galdetu zion kuñaduak.

– Nik iges egin nuenean, zentinelen eskuetan; eta, ziur asko, espetxe artan bertan.

– Eroak aleenak! Pake-pakean emen bizi besterik ez ta...

– Gorrotoa, ordea; ta au itxua izaki.

– Ara emen nere beatzak. Orain zerok epaitu.

– Azkazaletako zauri oiek nola egiñak dituzu?

– Ezpal txorrotxak sartu zizkidaten beatz bakoitzean bana; ta, galderaren bañi ez bation erantzuten, mallu txiki batekin joka, barrurago sartzen zizkidaten.

– Ago ixilik, motell, ozkia ematen didak-eta –zion amak.

– Ona emen nere bizkarra, oraindik larrutua.

– Goldetu egin al ziteken-edo? –amak.

– Eta olako beste asko. Lotsa ematen dit zuen aurrean kontatzeak.

– Deabruak al itun?

– Bai; alatsukoak. Joxe Migel mandazai gizatxar ura il nuenean asi ziran nere naigabeak. Ez al daukat nik bizitzeko eskubiderik? Edo belauniko jarri ta lepoa eskeñi bear diet il nazaten, pekatu egiteko beldurrak? Nik ere maite det bizi au. Nere lekuan jartzen zan beste edozeñek, ori egingo zion. Baña nik ez nuen txarrez ta gorrotoz il. Ori da nere pekatua, ala bada, beñepein. Ortik datoz nere gerroztikako ez-bearrak.

– Bai; orrek ala bear dik, nere iritzi apa-lean.

– Ire burua babesteko eskubide osoa daukak. Ortara gertatu bazan, arrazoi dek. Nai ez dala, ezin litekek pekatu egin. Azken juizioan leku onean geratuko giñuke bestela.

– Zuk ez dala pekatu diozu?

– Nere iritzi apalean, ez. Nai ez degula pekaturik egin al bageneza, amaikak, ezer askorik pentsatu gabe, galduko genikek zerua.

– Ta orra gauzak nola diran: Ogei aldiz gutxieneko aitortu det nik ori, eta ez didate barkatu apaizak. Kezka gaixto orrek ondatu ta gaixotu nau. Orrek moztu zizkidan etorkizunerako egin nituen amets guziak. Sinismen berokoa naiz ni, zuek dakizuten bezela; ta apaizenganako eraspén aundikoa. Badakizute kezka ori burutik ezin kendua zer dan? Judas bere burua urkatzeroño larritu zuen. Aralar'ko San Migel'en izan nintzan. Galizia'ko Santiago'n ere bai. Eta denetatik, ukatu ta aurrean biali naute. Nik aitortu orduko, «Kaixo, Praixku! Alperrik abil. Odolaren kutsurik ez dek kentzen ez emen ta ez bestean» erantzun ikaragarri ori. Orain, bada, ama, gertatzen dana gerta, gorago jo det. Jau-naren eskuetan uzten det nere auzia. Gizone-na baño ariñagoa izango al zait aren epaia. Urkatzeko aurreko arratsean, iges egin nuen, len esan dizutedan bezela. Geroztik, *el terrible vasco* orren billa ibilliko dira. Gizon, deabru, baita abereak ere, denak aurka dabilzkit. Deabru gizon egiñak edo gizon deabru egiñak. Ni aitortzera joan naizen bakoitzean, bikoak dira: besteentzat apaiz ta neretzat deabru. Jainkoak bakarrak ez du oraindik itzegin eta ez nuke etsi nai.

– Motell, motell! Ez nauk arritzen, gaixotu edo erotuta, ere burua galtzea ere. Ez etsi,

Praixku. Bestela, ireak egin dik. Eta epailleri eriotzik aitortu al ion?

– Zigor-era guziak ibilli zituzten. Baña etzuten nere itzik entzun. Zoritxarrez, nik Joxe Migel bakarra il nuen, ta ori etzidaten galdetu.

– Ik ez bauen aitortu, nola zigor ori eman ziteken?

– Eriotz bakoitzeko, etxea bete lekuko neuzkan aurka. Aldekorik iñor ez. Egundo ikusi ta ezagutzen ez nituenak, txeetasun guziakin kontatu ere. Nik alegiñak egin ditut, eta beti erantzun bera.

– Ixillean erriko bikarioa deitzea nai al uke?

– Ez, ama. Ori ere neretzat deabru biur-tuko litzake.

– Arritzen nauk, aitorle goxoagorik ez dit oraindik arkitu-ta.

– Joxe Migel il baño len, ala ziran neretzat ere.

– Oiek, iñondik ere, parte txarrekoak dituk. Ik ez etsi. Ez ere bururik galdu. Indartu ire itxaropena. Bestela galdua ago.

– Orixe berbera esan zidan, lagundu nion agure agurgarri arek ere.

– Eutsigarri bakarra daukak: Jaungoikoa. Elduiok orri ta ez aiz galduko, denen Jabea ta denen gañetik zegok Bera-ta.

– Ondo esana. Aolku bikaña da ori. Or dago nere itxaropena: maitatuz iltzen banaiz, ez naizela galduko. Ate ori daukat zabalik. Uste det deabruak, berentzat ez nautelako

nabilkitela orrela. Berena dutenari nola erasoko diote, damutu eraziko luteke-ta? Ni iruzurtua bizi nintzan. Mundu ontan bazala maitasuna uste nuen. Baña nere aragian ederki probatu det ez dala egia. Denok gerekoi utsak gera. Ez dago emen maitasunik. Orain zerok atera kontuak nola nabilkiten. Bizirik arrapatzen banaute, berriz, agaren batetik zintzilik ikusi bearko nauzute denen aurrean, jostallu ta parregarri, ta oñazetan ezin itorik. Alare, neretzat, kezka edo etsipen ori da txarrena. Ta eskerrik asko denei: aspaldi ontan ez det olako ordurik igaro. Salkeri-beldurrik gabe nere burua ustutzeko banaukan gogo. Baña ez al da nere azken aparria izango?

– Ago ixilik! Etzak olako astakeririk esan!

– Ederki nabaitzen det nere biotzean ori. Gutxiena uste detanean, *zapla!*, geldituko da, ta nereak egingo du.

– Ta pauso ori emateko bai al daukak beldurrik?

– Beldurra diozu? Ez ori bakarra: izua, larria, ikara... Baña datorrenean, joan egin bear, beste guziak bezela.

Zortzi bat egun orrela igaro zituen: gaur obetoxeago, biar okerrago.

Goiz batean, oso neketan jeiki zan su ondora, ta ala esan zion amari:

– Ez det gaurko arratsa arrapatuko.

– Ago ixilik. Beti lelo berarekin, nazkatu nauk oraintxe.

– Ez, ama. Gaurkoa azkenekoa izango

da. Ni banoa mundu ontatik. Lotua daukat biotza.

– Ik, noiz ilko aizen badakik orduan?

– Nere gaitza daukanarentzat ez da ori zalla. Ta, jakin nai badezu salbatu naizen edo ez, esango dizut zer egin.

– Nik ez dit sorginkeritan sinisten.

– Ez da sorginkeria. Egizu ta jakingo dezu.

– Motell, ikaragarria dek ori. Jainkoa tentatzea ez ote da gero? Ez, sinisten dedalako. Alare, esaidak zer egin bear detan.

– Ni iltzen naizen bezin azkar, ebaki ezazu nere bularra ta kendu biotza. Jarri goiko zapi-langetan zintzilik. Beleak eramaten badute, ez ospatu illetarik, ez otoitzik ere egin, lur onetsian ez eortzi nere gorputza. Bota arkaitzak beera, saiak irentsi dezaten. Betiko kondenatua izango naiz. Nere on egiteak, ildurak, denei barkatzeak eta otoitzak, alperrikakoak izan dira neretzat. Ez dute Jainkoaren biotzik xamurtu. Zure nere alde egindako otoitzak ere alperrik. Nere amets gaixtoen lekura eramango naute. Inpernu berbera dabilkitenen artera, Jainkoaren eskutik betiko utzia. Betikotasun osoan, «Non zera, Jauna? Non zera, Jauna?» oiuka. Badakite badala. Baña egundo arkituko ez duten Jainkoaren billa, inpernu gaixto batetik beste txarragoko batera eramanak. Uxoak eramaten badute, berriz, poztu zaitez, ama, nerekin. Eortzi gorputz au lur onetsian. Egin illetak. Nere on egiteak, ildurak, denei barkatzeak, eta

nere ta zure otoitzak ez dira alperrikakoak izan. Jainkoak bere atsedenera eramana izango bainaiz, betiko pozera, zu noiz igoko zeran zai.

– Gogorra dek, motell, semeari biotza kentze ori. Ama batentzat zalla.

– Ez dakit lenago ere ez ote daukazun kendua. Egizu ori, ama. Berdin nik ez det miñik artuko, ta zuk jakingo dezu Jainkoak barkatu didan edo ez.

ERIoTZA

Itz auek esanta, ama bere lanetara joan zan. Bazebilkin gora-beera ugari.

Praixku, berriz, su ondoan geratu kuxkurtuta, naiko larri noski.

Ezin lasaiturik zegoela, ondo-eza egin zitzaion. Azkena bertan zuela uste zuen. baña polliki-polliki pasa ta oatzera joan zan, urrengo txorabioa etorri baño len. Etzuen su ondoan il nai.

Bazkal aurrean, ama lanak bukatuta etorrita, etzuen semerik sukaldean aurkitu.

– Buru-aundi orrek gaur ere iruzurtu ote nau? Aldegin ote du? Aulegia zegok iñora joateko. Oatzera joana izango dek.

Txuxenean bere gelara joanta, illa aurkitu zuen.

Etzekin negar egin edo poztu. Mundu ontako naigabeak bukatu zitzaizkion. Etsaiak ere etzuten aga batetik, ezin itorik, ikusiko.

Arek eskatu ziona, gogorra ama barentzat. Eman zion azken musua. Ta, semearen il aurreko azken borondatea ala zan ezkerro, kendu zion, ta al zuen dotoreena jantzi, biotza palta zuenik iñor oartu etzedin.

Bazkal ondoan il-kaja ekarri zuen suiak, eta bien arte an sartu zuten, bi eskuak gurutze bati lotuak, lore batzuk il-kajaren barruan.

Kandelariotan onetsitako kandelak piztuta, bakarrik an utzi zuten.

Oraindik, etxeakoak bestek etzekiten il zanik. Urrengo eguna arte etzuten ikasiko ere.

Arratsaldean, zapi-langetan jarri zuen biotz ori. Urduri zegoen, beleak edo uxuak eramango zuten jakin arte.

Ortxe, illunabar aldera, beleak nabaitu zituen, «*Kroak! Kroak!*», gaztaiñik-gaztaiñ, bere etxe aldera zetozela. Larri zebillen ama.

– *Refugium peccatorum, ora pro nobis.*

– *Consolatrix afflictorum, ora pro nobis.*

Ama Birjiñari arrenka ari zitzaion. Baña beleak gero ta urbillago. Etxe ondoko gaztaiñ zaarreraño iritxi ziran. Benetan daldaraka zegoen ama, semeak eskatuari kaso egin ziolako. Andik bertan baizeukaten zintzilik, aizeak eragiñez, biotz ori.

– *Auxilium christianorum, ora pro nobis*
– zion eten gabea amak.

Noizbait, aurrelari edo zelatari zeukaten

belea, –denak edatera edo jatera jeixten diranean, beti bat edukitzen baidute zugaitzadarren baten puntan–, ura *kroak-kroak* egiñez egatu zanean, besteak ari jarraitu zioten.

Amari orduantxe eman zion arnasak buelta.

– Baldin-eta ez al dituk berriz etorriko!

Eguzkiaren sarreran, goiko pagadian ez-kurrez ase ta edatera, jetxi ziran uxoak etxe atzeko erreka txikira. Egarrria an ase zuteanean, beren bideari jarraitu zioten.

Denak ez, ordea. Bi, urduri zegoen amari pake-arbazta eskeintzera baletoz bezela, zapi-langetan geratu ziran.

Maite-mindutako uxoak ziruditen, elkarri zorriketan eta biak jolasean. Andik erdi legortua dilindaka zebillen biotzaren inguru artara begira, ernea baita uxoak, ikusi zuten. Bai egan etorri ta bien artean artuz eraman ere. Ezkutatu arte, ama begira egon zitzaien. Ta, aiek ezkututzen ikusi zituenean, txaloka asi zan:

– Bejondeizuela, uxoak! Eta zorionak, seme! Gorriak ikusi dituk! Deabru, gizon ta abereak aurka itun. Ez, ordea, Jainkoa. Arek ez baitu gizonen begiakin ikusten. Odolkutsua ere garbitzen dana izaki!

BUKAERA

Urrengo goizean, ildakoaren alde meza eskeñiz batera, epailleari bere semearen berri eman nai zion.

Etzuen galdezka ibilli bearrik izan. Bera ere mezetara joana, an aurkitu zuen.

Atera orduko, epaillea txuxenean etorri zitzaion, semeak andik ere iges egin zuela esatera; baña denak aren atzetik zebiltzala.

– Bejondeiola! Ez da ura lotua egoteko egiña.

– Baña laxter eroriko da, ta ez diote bar-katuko.

Ala bear-ta, orduantxe jo zuen bandua: Bost edo sei ildako gizona, eriotz-zigorra emanta, urkatu bear zuten arratsean, iges egin zuela, len bere errian bezela. *El terrible vasco* esaten ziotela. Ikusten zuenak salatze-ko. Baña ez asteko bakarrik. Indartsu ta gaix-toa zala. Aizkora txiki bat ere bazebiltzila be-rekin.

Etzuen bere izenik esan.

– Ori al da nere semea?

– Bai. Orixe bera.

– Nere semeak eriotz bakarra egin du: mandazaia. Beste oiek denak gezurrezkoak dira. Ondo badakit ori.

– Gezurrezkoak dirala nola dakizu?

– Berak esanta. Ez da amaren aurrean gezurretan aritu.

– Non dagoen badakizu orduan?
– Bai, jauna, bai. Etxean daukat.
– Barkatu, Joxepa. Baña arek, arrapatu ta eriotz-zigorra eman dioten lekura eramanta, urkatu egin bear du.

– Erru gabea dala jakinta ere bai?
– Ori ez dago nere eskuetan.
– Denak berdiñak zerate zuek. Nai deuztena egin. Arek ez du etxetik aldegitoko asmorik, denen igesi ederki aspertua etorria da-ta. Baña, meserez, sendagillearekin joan. Baituak ere beren eskubideak badituzte.

– Sendagilleak zer egin lezake or?
– Eramateko gauza dan edo ez ikusi.
– Ederki pentsatua. Ortan arrazoi dezu.
Amaikak alde ortan, an azaldu ziran bi ertzaiñekin.

– Zer egin bear diozute? –galdetu zien amak.

– Galdera batzuk egin; eta, gauza bada, eraman.

– Ez dizute erantzungo.

– Ori ikusiko degu.

Amak gelako atea zabaldu zien, eta Praixku illa arkitu zuten, bere kajan.

– Ez al dezute eraman bear?

Sendagilleak, begiratu zioneko, antzeman zion etzala il berria.

– Ez diguzu, Joxepa, adarra gaizki jo.

– Onen billa etzebiltzaten, bada? Orra nik erakutsi. Ori il eraziaren errurik txikiena ez dezute. Zuen baimenik gabe, gañera, ez dago iñora eramaterik. Urkatu nai badezute,

orra or. Ez du min aundirik artuko. Askotan itxurak egiten ibiltzen etzerate, bada? Zer egin bear diogu orduan oni?

– Beste illei egiten zaiena: kanposantura eraman ta eortzi, eta illetak ospatu –esanta joan ziran.

Alargunaren ateraldiak lenengo min eman bazien ere, gero par egin zuten.

Bikarioaren aginduz, urrengo goizeko zortzietan jaso ta bederatzietan egin zizkioten illetak.

Gauza zan bakar bat ere, etzan joan gabe geratu. Ari egin zizkiotenen berri ikasi zutenean, denak errukitu ziran.

– Ni iltzearekin, zu geiena poztuko zera, ama –esan zion semeak, eta etzuen noski arrazoiaren paltik.

* * *

Liburutxo onen gaia, su ondoan entzundako ipui batetik artua dago. Baita apaizak barkatu nai eza ere. Ikaragarria benetan. Au kontatzen zioten bakoitzean:

– Ori ezin litekena dek! –zion nere aita zanak.

Baña nik, askotan, emen dagoen bezela xe entzun nuen.

Jakiña: tartean zerbait erantsi diot ipuiari, liburua osatzeko.

AMAIA

ORAINDAÑOKO LIBURUAK (101'garrenetik aurrera)

- 101-102. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. I. (*Aitua*).
103-104. *A. Zavala*: Txirritaren bertsoak. II. (*Aitua*).
105. *Jose Inazio Etxeberria*: Mendi gañetik. (*Aitua*).
106. *A. Zavala*: Pastor Izuela.- Ezkioko ta Segurako itxuak. (*Aitua*).
107. *A. Zavala*: Zepai bertsolaria. (*Aitua*).
108. *Mattin*: Ahal dena. (*Aitua*).
109-110. *P. Lafitte*: Mañex Etchamendy bertsularia.
111. *Bertsolariak*: Xenpelar-saria, 1972. (*Aitua*).
112. *Basarri*: Sortu zaizkidanak. (*Aitua*).
113. *P. M. Urruzuno*: Sasiletrau baten ziria. (*Aitua*).
114. *A. Zavala*: Kaskazuri bertsolaria.
115. *A. Zavala*: Larraburu. Lexoti ta Balentin bertsolariak. (*Aitua*).
116. *A. Zavala*: Oiartzungo bost bertsolari. (*Aitua*).
117-118. *Balendin Enbeita*: Nere apurra.
119. *A. Zavala*: Oiartzungo beste lau bertsolari. (*Aitua*).
120-121-122. *A. Zavala*: Mendaro Txirristaka.
123-124-125. *A. Zavala*: Zapirain anaiak.
126. *A. Zavala*: Ustu ezin zan ganbara.
127. *M. Arozamena*: Nere aldia.
128. *A. Zavala*: Amodiozko penak bertso berrietan.
129. *A. Zavala*: Afrika'ko gerra (1859-1860).
130. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (I).

131. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (II).
132. *A. Zavala*: Patxi Erauskin bertsolaria (III).
133. *A. Zavala*: Arrantzaleen bizitza.
134. *J.M. Arrizabalo* – *A. Zavala*: Baso-mutillak.
135. *A. Zavala*: Jaioak bizi nai.
136. *A. Zavala*: Noe'ren ontzia.
- 137-138. *Ataño*: Txantxangorri kantaria.
139. *A. Zavala*: Soldaduzkako bertsoak.
140. *A. Zavala*: Nekazariak bai miseriak.
141. *Bertsolariak*: Bertsolari-Txapelketa Nagusia (Donostia, 1980 - I - 6). (*Aitua*).
142. *A. Zavala*: Txabolategi, Elkoro eta Leunda bertsolariak.
143. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (I). (*Aitua*)
144. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (II). (*Aitua*).
145. *J.J. Irazusta*: Nork bere bidea (III). (*Aitua*).
146. *A. Zavala*: Berridi eta Kuxkullu bertsolariak.
147. *Ataño*: Txori. (*Aitua*)
148. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (I). (*Aitua*).
149. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (II). (*Aitua*).
150. *I. Alkain, A. Zavala*: Gerrateko ibillerak (III). (*Aitua*).
151. *Martin Treku*: Etxe xokotik kantari.
152. *Xalbador*: Herria gogoan. (*Aitua*).
153. *J.K. Zapirain, Ataño*: Zure Pasio Santua. Asis'ko San Frantziskoren bizitza.
154. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (I).
155. *A. Zavala*: Jan-edanaren bertsoak (II).
156. *F. Artola, Bordari, R. Artola*: Aritz beraren adarrak.
157. *Elkar lanean*: Lexoti bertsolaria.
158. *Mari Treku*: Mattin, nere gizona.
159. *Txomin Garmendia*: Denbora pasa.
160. *Txomin Garmendia*: Bizitzaren arian.
161. *A. Zavala*: Kuba'ko gerra.
162. *J.M. Arrieta*: Nere ondar alea. (*Aitua*).
163. *J.C. Arrosagaray*: California-tik kantuz.
164. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (I).
165. *A. Zavala*: Mixioetako bertsoak (II).
166. *M. Manterola*: Lore apal bat.
167. *J.M. Lertxundi*: Baso tarteko oiua.

168. *P. Lazkano, A. Zavala*: Tiro tartean bertsoan.
169. *Basarri*: Kezka-giroan.
170. *Txomin Garmendia*: Bordaberri'ko gozo-mikatzak.
171. *Txomin Garmendia*: Bertsolari Kurpilla.
172. *Sebastian Salaberria*: Nere soroko emaitzak.
173. *I. Olea*: Otemotxeko arnasa.
174. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (I).
175. *A. Zavala*: Kristaubidea bertsoan (II).
176. *A. Zavala*: Ameriketako bertsoak.
177. *Txomin Garmendia*: Erririk-erri.
178. *Basarri*: Bertsolaritzari buruz.
179. *Ataño*: Espetxeko negarrak.
180. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (I).
181. *Ataño*: Zigorpean.
182. *M. Ostolaiz*: Oroipen-kutxa.
183. *A. Zavala*: Euskal jokoak bertsoan (II).
184. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (I).
185. *A. Zavala*: Esaera zaarren bilduma berria (II).
186. *A. Zavala*: Neska-Mutillen arteko bertsoak.
187. *A. Zavala*: Ezkondu bearreko bertsoak.
188. *Txomin Garmendia*: Belzak eta zuriak mendian ardiak.
189. *Ataño*: Eltzaorra.
190. *Pablo Zubiarrain*: Ia kantatuz bezela.
191. *Basilio Pujana*: Egi batzuek aixetaratzen.
192. *Ataño*: Odol-kutsua.



AUSPOA
LIBURUTEGIA